




Piarres Larzabal Carrere

(1915 - 1988)

Oroituz

Heriotzaren hamargarren urte mugan

Piarres Larzabal Carrere

(1915 - 1988)

Oroituz

Heriotzaren hamargarren urte mugan



Piarres Larzabal

Koordinaketa: Azpeitiko Udala / Antzerki Topaketak

Azala: Txakel (Azpiazu y Urarte), S.L.

Maketazioa eta inprimaketa: Iratzar

L.G.: SS-1029/97

I.S.B.N.: 84-921844-3-4

Azpeitian, 1997ko Iraila

AURKIBIDEA

<i>Aurkezpena (Nekane Larrañaga)</i>	3
<i>Hirri eta nigar</i>	9
<i>Herriko bozak edo nor alkate</i>	19
<i>Matalas</i>	69



Larzabal familia

AURKEZPENA

Piarres Larzabalek, bere sorrerari eta bizitzari eskeinitako bertso sorta baino hoberik ez da pertsonaia honen aurkezpena egiten hasteko. Honelaxe dio Piarres'ek:

Mila bederatzi ehun et'amabortzian,
Maiatzaren zazpian, asteazkenian,
Piarres zen sortu, Azkaingo herrian,
Mitxelenia deitzen den etxe handi batian.

Haren aitak zuen Alexandre izena,
Olhetan sorturikan, Azkainera jina,
Ama berriz deitua Carrera Maria,
Veran sorturikan, Sara't etorria.

Piarres, bost anai arreben arteko senitartean hazi zen. Larrun mendi magalean sortua izanik ondo ezagutzen zuen, mendi honen luze zabalera, baita bere inguruko kontrabando ofizioa ere. Gaztetatik sortu zitzaion apaiz izateko nahia. Apaiz ikasketak, Ustaritzeko Seminario txikian lehenengo eta Baionako Seminarioan ondoren egin zituen. 1939. urtean egin zen apaiz.

Gudari ere izan zen ordea Piarres. Gerran ibilia Alsaziako lurretan, Alemanek espetxeratua Alemania, Polonia eta Txekoslovakian egon zen. Ondoren, Hasparnera apaiz lanetara etorri zenean ere erresistentziarekin batera alemanen aurka ibili zen. Hasparneko bizitzan hainbat lan egin zituen, batez ere herriko gazteekin. Adiskide ugari egin zituen bere inguruan.

Ez zituen ordea herri honetan bukatu bere apaiz lanak, Sokoako parrokia zuzentzen aritu zen bere apaiz bizitzaren azken aldian. Sokoan hainbat lan egin zuen bertako parrokia eta apezetxea eraiki ahal izateko han eta hemen laguntza ugari inguratuz.

Euskal kulturaren alorrean ere aipagarria izan zen gizon honen lana. 1963. urtean Euskaltzaina izendatu zuten, hainbat kultur mugimenduren sortzaileetakoa ere izan zen: Enbata, Anai artea e.a. Frankismoaren ihesi zijoazten euskaldun ugari babesten ere ahalegin franko egina da gizon hau.

Piarres sortu haurretik hazia zen euskarazko antzerkigintza Iparraldean bere fruituak ematen. Senperen, Hazparnen, Donibane Lohitzunen antzerki ikuskizunak eman ziren. Antzerkigintza honen inguruko egile ugari ditugu: Jean Barbier, Justin Mirande, Madalena Jauregiberri, Leon Leon eta Piarres Lafitte esaterako.

Piarres Larzabalek aitortzen duenez, soldaduzkan eta apaizetxean izan zituen antzerkiarekiko bere lehen harremanak, komedia ugari egin omen zituen hasera hartan, apaizetxean zuzendari bezala ere aritu zen.

Piarresrek idatzi eta argitara eman zituen bi lehenengo lanak, «Irri eta nigar» (1934) eta «Merkatutik» (1937) izan ziren. Harreskero, antzerki lan ugari idatzi zituen, 1951. urtean obra drama-trajiko batekin «Etxahun» ekin, komediak alde batera utzi eta molde berri batzuei heltzen dio. Guztira, Piarres Larzabalek 150 en bat antzerki idatzi omen zituen, baina gaur egun 50 en bat gelditzen zaizkigu.

Piarresek idatzitako antzerki lan asko taularatu zituzten iparraldean sortu berri zen Euskal Antzerki Taldeen Biltzarraren inguruan zebiltzan talde ezberdinetako aktoreek. Oihartzun berezia izan zuen «Matalas» antzerki lana Baionako Antzoki Nagusian taularatu zenean.

Euskal antzerkigintzako antzerki talde ugarik taularatu zituen Larzabalen antzerki lanak. Azpeitian ere izan genuen 1990.urteko Antzerki Topaketetan, hain zuzen, Larzabalen antzerki lan bat Goaz taldeak taularatua. Aurtengoan ere izango dugu aukerarik Larzabalen antzerki lan batekin gozatzeko Azpeitiko Topaketetan «Bordatxuri» lana taularatuko baitu izen bereko taldeak, Larzabali eskeiniko zaion omenaldia dela eta.

Antzerkia idazteko zuen erreztasunagatik, Larzabal Euskal Lope de Vega deitua, antzerki ikusleei beti malkoak atarazten zizkien, batzuetan irria eta besteetan nigarra izanik. Sokoan hil zen Piarres Larzabal 1988.Urtarrillaren 12an.

Ohore bat izan da niretzat, Piarres Larzabal ezagutzeko aukera ez izan arren, euskal kulturaren eragile izandako pertsonai honen antzerki lanekin osatutako liburu hau aurkeztea.

Nekane Larrañaga Aizpuru
KULTURA ZINEGOTZIA
Azpeitian; 1997ko Iraila

PIARRES LARZABALEN ZENBAIT ANTZERKI LAN

- ANGLES GINELARIK. 1973. Drama. Elkar IV.
ARALAR. 1971. Komedia. Elkar IV.
BASABELTZ. 1971. Komedia. Elkar III
BERTERRETX. Trajedia. Egan 1985 1-2
BERTERRETX. Trajedia. Elkar II
BORDAXURI. 1925. Drama. Elkar II
BORDAXURI. 1925. Drama. Auspoa 11
DENDARIETAN. Komedia. Elkar I.
ELHERAZAINAREN ASTOA. Komedia. Elkar I
ETCHAUN. Trajedia....ditions Herria. Fotokp.
ETXAHUN. 1953. Trajedia. Elkar I.
ETXAHUN. 1953. Trajedia. Gure Herria Fotkp. 1953.
FERRANDO. Komedia. Elkar I.
GERLA URTE. Drama. Elkar I.
HERRIKO BOTZAK. 1956. Komedia. Elkar II.
HERRIKO BOTZAK. 1957. Komedia. Auspoa (Separata)
HERRIKO BOTZAK eta NOR ALKATE. 1957. Komedia. Auspoa 21.
HILA ESPOS. Komedia. Elkar II.
HIRU ZIREN. 1957. Komedia. Auspoa (Separata) 14.
HIRU ZIREN. 1957. Komedia. Elkar II.
IBA—ETA. 1968. Trajedia. Elkar IV.
IHAUTERIAK. Komedia. Elkar III.
IHAUTERIAK. Komedia. Egan 1-2 1987.
INTZOLAKO BIDEAN. Elkar I
IRRI ETA NIGAR. 1935. Komedia. Gure Herria «Fotpk 1934»
IRRI ETA NIGAR. 1935. Komedia. Elkar I
KONTRABANDISTAK. Komedia. Elkar I.
LANA ERI. 1965. Elkar III.
LARTAUN. 1969. Komedia. Elkar IV.
LAU DONADOAK. Komedia. Elkar I.
MANEZ OHORETAN. Komedia. Elkar I.
MATALAS. 1968. Trajedia. Elkar IV.
MATALAS. 1968. Trajedia. Antzerti 69.
MERKATUTIK. 1937. Komedia. Elkar I.
MERKATUTIK. 1937. Komedia. Gure Herria Fotp. 1960.

MUGARI TIRO. 1959. Komedia. Egan 5-6 1984.
 MUGARI TIRO. 1959. Komedia. Elkar II.
 MUTHIL BERRI. 1959. Komedia. Gure Herria Fotkp. 1960.
 MUTIL BERRI. 1959. Komedia. Elkar I.
 NOR DA HOBENDUNA?. Komedia. Elkar IV.
 NORK HIL DU OIHANALDE? Drama. Elkar I.
 OKILOMENDI ALKATE. 1955. Komedia. Egan 3-4 1952
 OKILOMENDI JAUN MERA. 1955. Komedia. Gure Herria Fotkp. 1955
 OKILOMENDI JAUN MERA. 1955. Komedia. Elkar I.
 ORREAGA. 1964. Trajedia. Elkar III.
 ORREAGA. 1964. Trajedia. Editions Goiztiri.
 ORRIA 778. 1974. Trajedia. Elkar IV.
 OTSOAK ARTALDEAN. 1973. Komedia. Elkar IV.
 PAPER MENDE. 1964. Komedia. Elkar III.
 PIARRES ZOZO. Komedia. Elkar I
 PORTU XOKO. 1954. Komedia. Elkar I
 ROXALI. 1970. Komedia. Elkar IV.
 SARA KO LOREA. 1964. Komedia. Elkar III
 SARA KO LOREA. 1964. Komedia. Egan 3-4 1984
 SEHI BERRIA. Komedia. Elkar I
 SENPEREN GERTATUA. 1964. Komedia. Auspoa 34
 SENPEREN GERTATUA. 1964. Komedia. Elkar III
 SENPEREN GERTATUA. 1964. Komedia. La Navarra/Egin 1995
 SUEDAKO NESKATXA. 1965. Elkar III.
 SUEDAKO NESKATXA. 1965. Egan 5-6- 1985.
 XIRRISTI MIRRISTI. Komedia. Elkar I.
 ZIRI ZIRI. 1966. Komedia. Elkar III.



P. Larzabalen sor etxea "Mixelenia", Azkainen.

HIRRI ETA NIGAR

Gertaldi bateko jostagailua

-1934-

Piarres Larzabal

JOKOLARIAK:

MARIA: 50 bat urte.

KALIXTRO: Haren senarra

BI OHOIN

JOKA-LEKUA: *Sukalde bat,
oren zahar handi batekin
zoko batean. Maria, su ondo-
an.*

MARIA.- Gauerdia, eta ez ageri! Gizon filda! Datorla, dator! Aditu behar ditik bereak eta asto beltarenak.

KALIXTRO.- *(Haren boza entzun ditake gero eta hurbilago. Kantuz ari da mozkorra)*

Aurten ardoa merke,
Lau bortz sosetan pinta da,
Andriek ere edaten dute
Erreberua bezala.....

(Sartzen da sukaldean) Bonsoir tout le monde!... (Badoa mahain bati buruz)

MARIA.- Hor haiz, urde errementa, arnoz usaindu tzarra. Ez haiz ahalke ere.

KALIXTRO.- "Doucement" andria, zer uste duzu mozkorra naizela!!!

MARIA.- Mozkorra ez, arraila; ez haiz ahalke ere. Igande guziz gauza bera, estatuz ostatu, arno asean.

KALIXTRO.- Zauke ixilik otoi! Zer dakizu non ibiltzen garen gu? Eta bertalde, nori egiten dugun kalterik?

MARIA.- Familiari beti, bat ederra. Zorrak ezin pagatuz hor hari gare, futxu, eta zu beti han, han, irabazi guziak ez aski, xahutzeko.

KALIXTRO.- Baietz, baietz, emaztekoa, beti hola zare zu. Ekar-azu jaterat, hobeki eginen duzu.

MARIA.- Jaterat? Ez duzu oraino tripan aski sarturik? Makila kolpeak ba, merezi zintuzke eta ez jaterat!

KALIXTRO.- Beha zan. Ez naun gero batera jostakura. Etxe huntan, nik manatzen dinat gero, eta ez hik. Zer, Igande guziz, gauza berak aditu behar ditugula! Badut gero leporaino entzunik.

MARIA.- Ba eta ez halare bertzelatzen. (*Jaterat emanetz*) Halare igande guziz, zure hamar liberakoa aintzinat gastatzen.

KALIXTRO.- Zer, hamar liberakoa gastatzen! Huna, goizean eman dautazun hamar liberakoa. Eta huna oraino gehiago. (*Sekulako diru paperak ateratzen ditu*) Eta, horra oraino bi botoila arno gainerat. (*Bi botoila arno sakelatik agertzen ditu*) Baduzu orai zer-bait arrangurarik?

MARIA.- Zer dire horiek ? Nondik dituzu horiek?

KALIXTRO.- Horiek hor, nereak. Egundaino ekarri duzu etxerat horrenbertze, zuk? Horra hor, bi, hiru, lau, bortz mila libera, garbi garbiak.

MARIA.- Nondik dituzu horiek ? Zer egin dituzu, norbaiti ebatsi bederen?

KALIXTRO.- Ebatsi nik? Noiz ikusi nauzu ni ohointzan? Ebatsi! Holako hitz bat berritz aipatzen baduzu, gaten ahal zare begien bixtatik. Ni, ohoina! Egundaino, ez nuen holakorik aditu eta horra nor ganik behar nuen entzun. Behazu, xuhur balinbaduzu, zaude ixilik, holakorik erran gabe.

MARIA.-Nork erran dautzu, ohoina zarela, gizona? Nondik duzun diruketa hori nahi nuke jakin. Eman zaite bada, ene orde, ean zinen zu ere kexatuko.

KALIXTRO.- Ba, hori da ba, Ni beti gizon tzartzat naukazu. Ni beti hau eta hura, Kalixtro mozkorra, Kalixtro ez dakit zer. Bainan, ni gizon ona bainaiz haatik. Ni gabe, ez bailitake etxe hau luze xutik egonen.

MARIA.- Baina, nondik duzu diru hori?

KALIXTRO.- Hori duzu, zuk ere. Egia ez aditu nahi, ni gizon ona naitzela. Bainan, erradazu egia, ezkondu baginen ezkondu, hartu duzu ni ganik egundaino makila kaska bakar bat?

MARIA.- Baietz, baietz, gizona. Bainan, diru hori?

KALIXTRO.- Ni, gizon ona, nahi duzuna erranikan ere. Ez da hala, Maria? Bertzenaz, ez zinen hoin luze biziko enekin.

MARIA.- Baietz, hala dela, gizona; bainan...

KALIXTRO.- Hala balinbada, zertako ez erakuts. Ekazu hunat musu bat, (*Besarkatzen du, xutiturik*) Andre debrusa; zer den haatik! Jaun ona duela berak erraiten eta halare beti hari mokoka hari behar.

MARIA.- Bainan, diru hori nondik duzu?

KALIXTRO.- Emazteak, begi luzeak zirezte haatik! Zertaraino sudurra sartu behar! Kondatuko daukizut beraz hastetik, denak, diren bezala. Heldu nintzen, hamarrak airean, ttanpa ttanpa, etxe-ari buruz. Ergelencoko ondoan iragaitean, han aditzen dut halako arkuma bat. Zer debru ote zen intzirin hura, gelditzen nahiz eta gizon bat ikusten dut kandolan luze luzea.

MARIA.- Gizon bat kandolan?

KALIXTRO.- Ba, gizon bat. Laster ezagutu baitut. Badakizu, hor baita etxe berri bat egina... Jes, nola du ba harek izena?.. Hango bordaria beti galtza petazu alimale batzuekin ibiltzen zen ba!!!...

MARIA.- Zer, villa “ Les Myosotis “?

KALIXTRO.- Ba, hura bera. Hango nausi amerikano tripa haundi hura zagon, luze luzea kandolan. Nik, frantximena ez jakin eta, egon niz beha, zer erran behar ote nion. Azkenean egiten diot: “Maufais ça” Batere ez ihardesterik. Nere baitan, dudarik gabe edana zela, ateratu dut izakatik (eta ederki izerturik ere eraman etxeraino.

MARIA.- Beharrik ez zen urrun.

KALIXTRO.- Urrun edo ez urrun, zer uste duzu halako karga ibiliko nuela, mozkorra izan banintz? Ez, sekulan. Etxerat heltzean, ez dio andreak hitz bat atera ere. Ez da ez hura, zu bezala. Eta bizkitartean ikusi nauzu ni egundaino tentu hartan?

MARIA.- Ta gizon hari zer egin diozue ?

KALIXTRO.- Gizona, ubel ubela zen. Ohe gainean izpirituarekin dena gantzatu dugu, bien artean, eta futxo, frango laster bere-baitaratu. Han zen, han, gero atsegin. Nahi bazenbat jaterat eta cdaterat

eman dautet; mahain gainekeo trapu xuriekin oraino. Sekulako mileskerrak izan ditut, gizon haren ganik. Ba eta, bizia salbatu niola, niri esker zela oraino mundu hontan, eta nik ez dakit zer. Azkenekotz, ahur bat diru paper eman dauzkit, ziolarik haurrik ez zuela, trufatzen zela hura zonbait mila libera goiti beheiti izanik ere eta hek neretzat zirela. Gero ariko zira zu, ni ez ernea, ni beti bertzez amonatu. Egundaino egin duzu zuk holako kolperik?

MARIA.- Hauxok, zer xantza! Hori, tenore oneko dirua izango dugu hau. Gure Katzo saldu eta, ederki eros dezakegu bertze uztarriko behi bat. Apailu berri bat, baitezpadakoa da gure etxean. Errenta ere hor dugu gainean. Ba, gure etxean, ez da dirurik luze zahartuko.

KALIXTRO.- Aski badut janik. Irrintzinaka hasi behar dut. Ai, ai, ai, ai, aufa!!! Jes zintzurra zoin idor dutan! Ekazu edarat. Behar dugu arno hontatik bat hustu. Edazu, zuk ere (*Kantuz hasten da*) Andre Madalen, Andre Madalen...

MARIA.- (*Edaterat emanek*) Gizona, zaude emekiago, auzoen gatik ere.

KALIXTRO.- Nork zer behar du? Ez naiz ni hemen nausi? Zer eman dautazu baso hau? Erdi arraildua da. Dirua, Hola ausarki dugun kasuan, ez dut gehiago baso arraildurik nahi etxean. Doala lurre-rat. (*Botatzen di eta hausten*)

MARIA.- Zer hari zare burutik xoratzen, hola basoaren hausteko?

KALIXTRO.- Hala da eta, dirua badugunez geroz. Hunako bi gatilu hauk ere ongi zaharrak dire. Doazila hauk ere. (*Hausten ditu lurrean*)

MARIA.-Otoi, jar zaite eta zaude geldirik, gizona! Zer behar dituzu, baxera guziak porroskatu?

KALIXTRO.- Badugunaz geroz dirua, zertako behar dugu beti bizi puska zahar hauiekin? (*Hausten ditu lurrean, hiru lau baxerak, bereziki katilu bat*)

MARIA.- Bainan gizona, burtxoratu zare naski! Horra ene gatilu ederra hautsia! Kattina zenak, ezkontzako present egin zautan gati-lua. Gaizoak ez zaitu ikusten. Onik entzunen zinue.

KALIXTRO.- (*Jarririk, pipa erretzeko prestatzen*) Gaizoak, hobe luke ba, ikustea. Hori edan behar dugu. Baso onetan haatik. (*Edanez*) Ba, egiazki, arno gahitza da hau: Zer mitxa duen!!! Ha, ha, ha! Bazinaki! Enc diruak hartu eta segidan izan naiz Arnoren ostaturat. Han ziren Xalbat, Beñat eta bertze lau lagun. Sartu-eta, erraiten diotet: Hal, nik deneri kafiak pagatzen; ttotekin oraino. Arno berritz -gizon xirtxila da haatik hura- ez zaut ba hasi bere boz meharrarekin: Hobe zinue zehorrentzat kafea pagatzeko dirua bazinu. Urde gizon zifera, halako hitzak ateratzeko hoinbertze gizonen aintzinean! Ikusi bazinu gero haren grazia! Ba, bainan, ez nik ere, kasu handirik gehiago eman. Gizon ustela, halako solasak behar zizkidan erran, denen aitzinean!

MARIA.-Oas! Halare, osorik ekarri baitituzu zure diruak. Nola ez dauzkitzuten nehork ebatsi!

KALIXTRO.- Ebatsi! Ha, ha! Nahiko nuen norbait lotu balitz lan hortan. Ori, Pisueneko gizon apostolu hura zu bezala mintzatu zaut. Han ibilki baintuen diruak purtzupilka, jin zaut apezka kobesatzerat bezala, ba eta kasu eman nezala, bazirela erne zagozinak, eta ez dakit zer.

MARIA.- Arrazoinekin, holako diruketa!

KALIXTRO.- Arrazoinekin, diozu? Hara bertzea berritz. Ez nauzu beraz oraino ezagutzen? Zer uste duzu, ohoin baten beldur naitzela. Laster baten lanak eginak nituzke. Ba eta hamar ere lotzen balaizkiet, ez nituzke aise eskolatuko. Ez, zer nahi joka nezake!

MARIA.- Zaude, zaude ixilik, espantu!

KALIXTRO.- Espantu? Batere. Ori, mahaineko diru paper horiek guziak baino nahiago nuke bizpahirur etortzen balire hunat. Ikusiko zinue zoin laster... (*Atea, idekitzen da arrabotsean. Bi gizon sartzen dire armatuak eta bisaia tapatuak*)

OHAIN (1) A.- Dirua edo erretzen zaituztegu! (*Maria erortzen da, oihu bat eginez*)

KALIXTRO.- Zer behar duzue gure etxea errekarat...

OHAIN (1) A.- Ez hitz bakar bat atera, edo erretzen zaituztegu. (*Ohainak, mahai gainetik diruak harturik, ateratzen dira*)

KALIXTRO.- (*Jartzen da daldaran*) Hau, izialdura! (*Edaten du. Ohartzen da, Maria lurtean etzanik dela, intzirika ari*) Zer egin zare, izitu? Ez da, ez deusere, emaztekoa! Ori, edazu poxi bat. Zertaz kexu zare? Ez naiz oraino bizi?

MARIA.- Horra, horra, zerk atzeman gaituen.

KALIXTRO.- Zer nahi-uzu ba? Zer nahi-uzu? Ez da fitsik egiteko.

MARIA.- Urde mozkor tzarra. Hire faltak dituk oro. Horra, horra baxera guziak xehatuak, eta zorrak ere hor, hoinbertze denbora hautakoak! Arnoz hantu debrua, horra azkenean hire ondorioak!

KALIXTRO.- Hauxok emaztea! Laster piztu zare! Non dituzu oxtiko solas hekiek? Ala ez ziren zinezkoak! Jes, ez kontent, ez bainaute hil.

MARIA.- Arnoak, arnoak! Gure etxean, bai kalte gogorak dakarki dituela! Gizon edale tzarra!

KALIXTRO.- Emazte debrua! Hobeki zintake, dudarik gabe, lotu banintz ohoineri papotik. Jainkoari, segur, eskerrak bihurtzen ahal diozkatzu, naizen bezalako jauzikorra, ez baitut holako lanik egin.

MARIA.- Etxean, hi bezelako gizon edale bat baino, hobe duk tu bat. Eta berea bertzerik, ez aditu nahi; hori da makurrena! Berari bakarrik kalte ekartzen balio oraino edariak! Bainan, familia hor baita ba! Eta ez holakorik konprenitzen! Arnoa, arnoa! Emozue hura hura ausarki horri! Ha, gizon mozkorra! Hametka nigar egin-arazi dik orai arte eta egin-araziko ere bai! Har zazu, har argia. Goazen oherat. Gargehiago, hola iragan beharko du gure biziak. (*Biak ateratzen dire sahetseko ate batetik*)

OIHALA

HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE

HIRU EKITALDIETAN ANTOLATUA

Zokoa - 1956

P. LARZABAL

PIARRES LARZABAL

HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE



AUSPOA LIBURUTEGIA


JOKOLARIAK:

ALKATEA:	65 bat urte; zalapartatsu eta haserrekor. Botikario
JAUN PHILIPE:	50 bat urte, faltsu, predikari- itxura. Eskribau
GREGORIO:	60 bat urte, ilargi-aurpegi: Errotari
PERRATZAILEA:	Beltzaran, bigotedun, segail latz.
JOSE:	60 bat urte, betaurrekun, txaldan antza. Aguazil
PAKO:	50 bat urte, jantzi urri, zaintsu, mozkor aurpegia. Apaizaren morroi
XIXON:	20 bat urte, lerden eta gizon antza. Alkatearen seme
OSTALERTSA:	45 bat urte, lerden eta gizon antza.
BERTA:	25 bat urte, eder eta maltzurra. Perratzailearen alaba.

JUSTINA: 70 bat urte, hortzak eskas, dotore.
herriko kanpai jotzailea.

DOLORES: 50 bat urte, aire nekatu, mokokari bat

Eta beste zenbait agertzen direnak mintzatu gabe,
edo mintzatzen agertu gabe.



Herriko bozak edo nor alkate (Donostiako Jarrai Antzerki Taldea)

LEHEN EKITALDIA

ESZENATOKIA: Ostatu bat.

OSTALERTSA.- (*Barruan dabil, lanpetua*)

JOSE.- (*Danborra joaz oihuka agertzen da, leihoan*) Alkate jaunaren ordena da... Herriko botuak ditugula...(Asto baten arrantza entzun bedi. Jose haserre) Errotako asto ustela!... Gregorioren asto zikin horri, oraindik nik hautsiko zizkioat hortzak. Ez bait dezaket hitzik argitu, horren errestarik entzun gabe.

OSTALERTSA.- Dударik gabe, zure miztuak belarriak minberatzen dizkio.

JOSE.- (*Haserre*) Zu ere zaude ixilik. (*Berriro danborra joaz*) Alkate jaunaren ordena da... herriko botuak ditugula...eta denak botua eman dezatela... Ez baitago boto-emaile gehiegi... zaharrak eta gaxo daudenak eramateko, auto bat ipiniko dala. (*Berriro ere astoaren arrantza*) Asto madarikatua! Bizkarrezurra makilka nik hautsiko diat hiri.(OSTALERTSAri) Ekazu edaten.

OSTALERTSA.- Zuritik ala gorritik?

JOSE.- Badakizu ongi asko, bototako egunetan gorriek, gorritik baka-
rrik dugula edaten. Zuria utz ezazu zurientzat.

OSTALERTSA.- (*Zerbituaz*) Gaur edo bihar perratzailea alkate atera-
tzen bada, horratik, sinistra dezakezu, zure aguaziltza hori galdu-
ko dezula zuk ere.

JOSE.- Perratzaileak ez du sekulan botako gure alkatea.

OSTALERTSA.- Ez dakit ba. Joan dan aldian, gorriak bi botoz baka-
rrik nagusitu zinaten gero...

JOSE.- Oraingoan, gutxienez, hamarrez nagusituko gera... Gure alka-
tea ez bada ba norbait!.. Erakutsi ahal du ongitxo zertarako gauza
den... Noiz ikusi da, orain arte, holako herriko besta ederrik?

Hori alkate den ezkerro bestelako txukuntasuna eta garbitasunik da gero gure kaleetan...

OSTALERTSA.- Jakiña ba! Zu zaude kale-garbitzaile eta.

JOSE.- Bai... Ni neroni bando-jotzaile, ni herriko mutil, eta ni kale-garbitzaile.. Norbaitek behar baitu hori ere. Eta bakar batek guzti hori egiten duala, ea nolako mesedea herriko boltsarentzat...

OSTALERTSA.- Ez dirudi ba asko, zu herriko langile sartzea herriko boltsari asko-asko baliotu zaionik. Zergak goratu egin dizkigute behintzat aurten ere.

JOSE.- Zer gero? Zu ere gure kontra? Alkate jaunak jakingo du.

OSTALERTSA.- Esaiozu, esan, nahi badezu. Berdin botuak bukatu arte, ni hartaz baino bera nitaz gehiago behartuko da, inolaz ere.

JOSE.- Botuak dirala eta batzarretan ez da agintarientzat errespeturik. Eta banoa bando-jotzen jarraitzera. Ardo hau, botuen kontura.

OSTALERTSA.- Ongi da. Zuk hasia izango da gorrien barrika. (*Bakarrik*) Komedi-hasiera... Zortzi egunotan, a zer mozkorrak bildu behar dituzten zenbaltzuk hemen! Bi barrika ardo, edateko. Gorritik barrika bat, gorriak eskeinia. Zuritik beste bat, zuriak eskeinia. (*Urrutira entzuten dira bando oihuak eta...astoa*). ezin sinistu liteke, botuak nola nahasten dituzten gizon batzuek... Botuak baino lehen inun ere nabarmentzen etziranak, hor ikusten dira botu-egunetan zeharo harrotuak, nahastuak, beren onetatik atereak. Egiazki parragarri. Politika egin behar da, noski; baina politika-saltsa?... Askorentzat saltsan sartzea da politika egitea. Eta orain esaidazute: nik nori eman behar diot nere botua? Orain arteko alkate gorriari? Ala, horren kontrako perratzaile zuriari? Nori? Gaitzerdi, zuri ta gorri horiek elkarrekin nahastu balitezke, salbo ta, ardoak bezela... (*Urrutiko bando oihuari parrez. Baina bereala....*)

Ara! Gure Alkate Jauna. Onekin beintzat gorri azaldu beharko degu.

ALKATEA.- (*Sartuaz*) Agur Kattalin...Hasi al dezute gure barrika ardoa?

OSTALERTSA.- Bai Alkate Jauna.... Herriko mutillak eman dio lehenengo ikutua.

ALKATEA.- Ardo onetik izango da, noski?

OSTALERTSA.- Jose behintzat ez da kejavu, ta.

ALKATEA.- Ekatzu baso bat, proba dezadan... Ixkribaua ez da oraindik azaldu?

OSTL.- Don Philipe? Ez; ez da oraindik agertu... Harritzekoa da. Bainan ez da noski asko luzatuko.

ALKATEA.- Eta?... Hemen dabilzanak zer diote botoetaz?

OSTAL.- Perratzaileak Gregorio jartzen omen du ordeko.

ALKATEA.- Ba, ba! ez genduan besteren beharrik herria parragarritzeko: Perratzailea alkate, eta Errotaria bigarren. Zergatik ez errotariaren astoa, bere belarri haundiekin? Berdintsu litzateke.

OSTAL.- Gregorio ibili omen da etxerik-etxe boto-bila.

ALKATEA.- Ba! Bere errotari izaera baliatzen zaio hortarako ere. Ustel arranoa! eta danetan gauza bera esango zuan: Ni botikario nahizenez, ez dedala ezer ere konprenitzen baserrietako joan etorrietaz. Eta perratzaileak ere gauza bera omen die ganadua perratzeraz datozenei.

OSTAL.- Bainan, badute entzulerik?

ALKATEA.- Nork daki? Baserritarra hain da zozoa... Zuk eta nik, kaletarrak alegia txunditzen omen ditugu baserritarrak.... Eta Perratzaileak eta Errotariak, zer egiten diete, lagundu eh?.. Ea zuk eta nik baino gehiago zurruputzen ez ote dieten horiek baserritarrei.

OSTAL.- Eta ez al-dezu uste baserritarrek berak beste horrenbeste kalkulatzeko dutela?

ALKATEA.- Ez dakit batere. Egin behar bai... Perratzailea hemen alkate? Ba, ba! zer konprenitzen du horrek lege-gauzetan? Hori jaunen artera agertzeko gauza dan gizona al da? Ba, ba! Berak

- ere konprenitu behar luke horrenbeste. Auzi bat behar bezala eramateko non du horrek jakinduri, eta nun astirik ere? Uste ote du alkatetza jostaketa bat dala?..... Hara Ixkribaua.
- PHILIPE.- (*Sartuaz*) Agur, alkate Jauna. Agur Kattalin.
- OSTAL eta ALKATEA.- Agur Jaun Philipe.
- ALKATEA.- (*Jaun Philiperi*) Zikin horietaz ari ginen hizketan... Zure kontra ere badute zerbait esan beharrik. Zuk agintzen dezula Herriko Etxean, eta ez nik. Alderdikaria zerala, eta hola...
- PHILIPE.- Espa dute horiek, espa galanta. Erakutsi baidegu guk garbi asko, alkatetzan sartu ezkerro zertarako gauza geran. Gure kaleetan beste txukuntasun bat dago orain; eta herriko bestak ere beste itxura bat dute; horixe da ezin eraman dutena.
- ALKATEA.- Bai, eta gainera perratzaileak ez digu barkatzen, bere ate aurretik kendu izana lehen ganaduak edanerazteko zuan iturria...Iturri hori herriarena zen; etzuan berea... Uste al dezute poliki ematen zuala hor, kale gaineen, beti inguruak lohitan zeukan ganadu iturri hori?.. Hortarako iturria behar duenak, asko du bat egitea bere lurrean.
- PHILIPE.- Utzi ditzagun, mintza ditezela. Eta egin dezagun gure alde tik beste hainbeste.
- ALKATEA.- Nik behintzat nere predikua egiten diet botikara etortzen direnei.
- PHILIPE.- Pentsatzen det baita, zuk ere. Kattalin, ez dituzula honera etortzen diranak ixilik uzten... Badakizu zure etxe hontan degula aurtan, gerran ibilitakoen bazkaria.
- OSTAL.- Mila esker, Jaun Philipe, zure borondate onari... Zuritik ala gorritik ?
- PHILIPE.- (*Irri bat ezpainean*) Arren Kattalin, egun hauctan ez galde guri holakorik.
- ALKATEA.- Esan, eta... Eman al diozu begiratu bat listari?
- PHILIPE.- Bai; dena ongitxo begiratu det baditugu hogeï bat zeharo kontrako eta beste hainbeste zeharo aldeko. Azkeneko hamarrak,

berriz, dudamudako. Horiek gureganatzen behar dugu saiatu.
(*Lixta eskuetan duala*)

ALKATEA.- Nor deritzazu gureganatu dezakegula hamar horietatik?

PHILIPE.- Lehendabizi, behintzat, baditugu hemen jaun erretoresaren ingurukoak: Justina kanpai jotzailea, Dolores Erretorearenean lanean dabilena... Pako Erretorearen ahuntz zaina.

ALKATEA.- Erretora bera guregana ahal bageneza...

PHILIPE.- Ez da erreza izango.

ALKATEA.- Esango diogu Eliza erreteilatuko diogula... Bchar ere badu eta.

PHILIPE.- Ez da gaizki pentsatua.

ALKATEA.- Eta zergaitik enkargatu ez mezatxo bat gerran ibilitako-entzat edo zerbait holako?..

PHILIPE.- Begiratu beharra dago, horregatik, gorriak haserratu ez ditzagun zuri jendeari loxintxa gehiegi eginaz.

ALKATEA.- Bai; nahikoa izango da dantza bat eratzea, gerran izandakoen izenean.

PHILIPE.- Bai, bai; nonbait hor izango da. (*Lixtari begira*) hemen ikusten det: Manez Mendigorri. Aspaldian "Famili Haundidunen Carnetaren" zai dago. Huraxe aipatuaz, behar bada, guregana dezakegu, eta haren emaztea ere bai.

ALKATEA.- Bai. Aski duzu hitz ematea.

PHILIPE.- Bi gazte ere baditugu soldado. Paketetxo bana bidaliaz, herriaren izenean, nik uste haien etxeok guregana ditzazkegula.

ALKATEA.- Bai, bai. Eta Pako eta Dolores.

PHILIPE.- Dolores, nik uste, jaun erretoresak kontsejatuko du, etxeok langile duan ezkeror. Bainan Pako nahasi horri nork konpreni? Saiatuko naiz nolabait gureganatzen. Besterik ez bada ere, moskor on baten bitartez bederen bilduko ahal degu.

ALKATEA.- (*Ahopetik*) Boto ontziaren zaintzaileak izendatuak ahal daude?

PHILIPE.- Bego hori nere gain. Eta behar bada lehengo urtean bezala aurtan ere bazkaltzeko garaian, bakarrik utziko gaituzte ontzi zai...Bainan, hona nun heldu den Pako “nahasi” Erretoraren artaldearekin.

PAKO.- (*Sartu gabe, leihotik ageri*) Ots! bixardo, ots (*Ahutzen “mee-koa” entzuten da.*) Zuek ezik nik ere joan behar diat iturrira... Aizu, Kattalin: botutako barrikak idekiak ahal dituzu?

OSTAL.- Bai, bai. Sar zaitez.

PAKO.- (*Ez ditu ikusten alkatea eta J. Philipe*) Ekatzu azkar edaten; azkar, zintzurra zeharo lehor daukat eta.

OSTAL.- Zeintatik nahi dezu? Zuritik ala gorritik?

PAKO.- Berdin zait edozein, Zuri bezala gorri. Nigatik denak lehertuko al dira; eta ni ere bai haiekin.

OSTAL.- Aizu, eta ostatu-aurrean utzi behar al dituzu hola ahuntz eta antxume hoiek? Ez al-zera jaun erretorak ikusiko zaituan bildur?

PAKO.- Erretorak bere edan-aldia egiña du goizean Mezetan... Orain, nere aldi.

ALKATEA:- Aizu, Pako...

PAKO.- (*Ikusiaz*) Ah, barkatu, alkate jauna. Etzintudan ikusten.

PHILIPE.- Zu, Pako, gerran ibilia zera pixka bat bederen?

PAKO.- Bai; hartu ninduten eta bidali ninduten frontera. Bainan ni hara heldu nintzanerako, gerra bukatua zan.

OSTAL.- Holako soldadoa ikusita etsaiak ikaratuko ziran?

PHILIPE.- Paper batzuek badituzu herriko etxera etorriak, eta, nik uste, zuk ere izan dezakezula gerrako pentsio-eskubide zerbait.

PAKO.- Bazan ordu nitaz norbait akorda zedin.

PHILIPE.- Botuak pasatzen diranean -guk irabazten badegu- hitz ematen dizut, neroni joango naiz behar dan tokira, zure pentsio hori logratzera.

PAKO.- Ongi da; eta zerbait iristen badezu, oroituko nahiz orduan ni ere.

PHILIPE.- Iristea nahi badezu, ba, oroitu zaite, botua ematera zoazenean.

DOLORES.- (*Leihotik haserre*) Gizon zoroa: erretore jaunak hainbeste aldiz esan dizu ba zuri, ez duala bere ahuntzarik ikusi nahi lotuta ostatuko atean... Eta oraindik hor al-zera?

PAKO.- Zaude lasai, nere emazte keixatia, zu... Berdin, ez nau erretora jaunak lanbide hontatik botako. Kostako litzaioke nere ordeko bat aurkitzen bere ahuntzak zaintzeko.

DOLORES.- Zoroa!... Batere zure beharrik gabe, erruki utsez ematen dizu lana. Eta horra nola eskertzen diozun zuretzat egiten duana.

PAKO.- Erretorak jana lanaren truk ematen dit neri; eta hemen edana berriz debalde ematen didate. Hari bezenbat zor diet hemengoei.

PHILIPE.- Aizu, Dolores, oraintxe aipatu diot zure senarrari, zuek ere laguntza beharrean ziñatela, eta gerrako pentsio koxkor bat ongi etorriko litzaiokeela zuen boltsari.

DOLORES.- Ez gera pentsio beharrean, bizi izateko. Asko du lanean aritzea, eta gutxiago edatea.

PAKO.- (*Oldartuaz*) Horra nolako errespetua duan nere emazte honek gerran ibili diranentzat... Eta seguru nahiz zuri zikin hoiei eman-go diela gainera bere botua.

DOLORES.- Zuri edo gorri, denak berdinak zerate. Denak su bererako on lirakeen egurrak...

PHILIPE.- Poliki, Dolores, poliki...

DOLORES.- Poliki edo azkar, hori hola da. Eta zuk hobeto zenduke, gizon zoro hori, hor ardoz engañatu gabe, bere lanera bidaliko bazendu. (*Bijoa*) Narratx, ez besten narratx!

PAKO.- Lana? Egiten dut hura ere, bere garaiz. Oraindikan eguzkiak badu argi beharrik. Zer dezu neri hola erasotzeko?

PHILIPE.- Alferrik ari zatzaizkio; joan da.

PAKO.- Hobe du, bai joan dan. (*Oihuka, urrutira mintza alegia*) Zuri -zale zikina zu.... (*Ahuntzak meeka asten zaizkio*) Ixilik zuek ere,

antxume ergelak. Estu al zarete? Ni ez batere. Sufri zuck ere hor.
Jes... Ez digutela elkarrekin hitz bi egiten ere utzi behar...

XIXON.- (*Sartuaz*) Ola...

Pako.- (*Irriz eta ixekaz*) To... Xixon...Ara, ara, ara...Xixon. Hi falta
hintzan oraintxe.

ALKATEA.- (*Haserre*) Aizu, Pako: nere semeak badu gero bere izen...

PAKO.- Sinisten dut, alkate jauna, ez dela izen gabekoa izango zure
semea. Bainan ez dezazula pentsa, Xixon gaiztakritz esan diodanik.

ALKATEA.- Ba, hemendik aurrera Ttotte esango diozu, ta ez bestela.
(*Semeari*) Zertara etorri haiz honera?

XIXON.- (*Keinu ta keinu*) Aita... erbia... erbia... Nik ikusi....Aguro....
Tau... tau...

ALKATEA.- Erbia ikusi?... Ehiza oraindik idiki gabe zegok... Hago
egun batzuk oraindik; eta gero ia tiro bat ematen diokan?

PAKO.- (*Irri-larriz*) Anartean emaiok isatsa-azpian eskutada bat gatz;
eta beharbada harrapatuko duk.

ALKATEA.- (*Haserre*) Pako: ezin mintza al-zenizkio leguntxeago
haur honi?

PAKO.- Haur horri, haur horri?... Xixon edo... hori ez da haurra...
Ehizarako eskupeta opa diozuna, haurra? (*Irriz*). Etzekitek asko
erbiak nor duten ehiztari! Aizak eta, Xixon -barkatu; ezin ohitu
nauk Ttotte esaten- esazak, zein begi isten duk tiro egiteko: ezke-
rra ala eskuina?

XIXON.- Hau noski... Ez ez, bestea. (*Begiak aldirka tapatuz; ezin
asmatu alegia.*)

PAKO.- Zozoa! Tapa hitzak biak. Hola hobeki ikusiko duk. (*Xixonek
obeditu, eta bera parrez lertzen*).

ALKATEA.- (*Zeharo haserre*) Ttotte, ator nerekin kanpora. Eta zuk,
gaur edo bihar, ez badiozu holako gizagaxo bati errespetu geiha-
go ekartzen, nik jakingo dut zurekin zer egin.

PHILIFE.- (*Lañoki*) Gauden ixilik. Bereizi zaitezte sumindu gabe.

Botuak ere laister ditugu, eta batzuren batzuek ez lirake gutxi poztuko, elkarrekin haserre gabiltzala ikusiaz.

ALKATEA.- (*Beti haserre*) Berdin zaizkit besteen pozak... Hau bezez-lakoak, belarri-ondoko bat merezi dute, huraxe.

XIXON.- Aita: erbia..Aguro, aguro.

ALKATEA.- Bai Ttote, goazen hemendik. (*Pakori*) Suerte dezu, gauden egunetan egotea. Bestela zure bekoki horrek hartu lezake bero aldi bat oraintxe. (*Irteten dira*).

PAKO.- Aa? Hola errespetatzen dezu zure boto-emailea?.. Ostalertsia: ekatzu honera zuritik baso bat. Ez dut gorritik gehiago ezer-ere nahi.

PHILIFE.- Tira, tira! Ez ahal zera izango zu ere ezerrez batengatik bere ideaz aldatzen diren hoietatik bat.

PAKO.- Gora “zuriak”!

PHILIFE.- Ondo da. (*Legorki*) Zure gerrako pentsioa iristeko, bilatzen ahal dezu ni ez beste adiskiderik. Egizu nahi duzuna... (*Irtetzen da.*)

PAKO.- (*Bakarrik*) Nola dan horratik! Beste egunetan inork ere ez dit kasurik egiten. “Pako moskorra” eta “Pako zoroa” esan, eta kito... Bainan etorri ahal da botuetako garaia, orduan ez da erregerik neri baino loxintxa gehiago egingo zaionik. Lehen egunetako “zorri-partza”, orain danok agurka darabilte. Balia gaitezen, bada, egun hauetaz. Hase gaitezen besteren kontura. Gure beharrean baitzucuduk, begira dezaiegun sorbalda gainetik. Munduan gizonik gaizoena nahizela, bainan, edariaz dal-dal daukadan esku honek ematen duan botuak, beste edozeinenak haina balio dik... Izan ere, gizonok hiru gauza hoietan gaituk denak berdin: Jaiotzean, hiltzean eta botoa ematean... Ah! zeinen goxo dan, hola, zenbait jaun handi zure eskale bihurturik ikustea! Lastima haundia, botuak maizago ez izan beharra!

JUSTINA.- (*Kanpotik*) So astoa, so... (*Sartzen da*) Egun on! Bai al da hemen norbait?

PAKO.- Ixo; Juxtina bere astoarekin kanpai-saria biltzen. (*Justinari*) Agur, justina, nere mirabe laguna.

JUSTINA.- Ni zure mirabe laguna? Nola gero?

PAKO.- Bai, Justina, bai, mirabe lagun gera biok: nik erretoraren ahuntzak zaindu, eta zuk -andere serora- eliza garbitu, aldareak apaindu eta kanpaiak jo... Beraz nagusi beraren zerbitzari gera. Hain xuxen ere, ez nintzan gaur goizean oso kontentu zurekin.

JUSTINA.- Zerbaitetan huts egin ahal dizut ba?

PAKO.- Bai, bai. Zuk Justina dezu izena, baina ez dezu izen hori merezi, ez bait dezu "juxtu" jotzen kanpaia. Gaur goizean zortzi-zortziretan ahuntzak bazkatzera eramateko asmoa nuan; baina zuk kanpaia beranduegi jo duzulako hain xuxen aurkitzen naiz oraindik hemen, nere ahuntzekin.

JUSTINA.- Kanpaia? Bost minutu gora behera xuxen jotzen dut nik, kanpaia.

PAKO.- Ba, minutu horiek asko izaten dira ni egun guztirako okertzeko... Esazu ta, zuritik hala gorritik edatera sartu zera?

JUSTINA.- Ez naiz edatera etorria... Hori zuretzat uzten dut; ni kanpai-saria jasotzera etorri nahiz.

PAKO.- Erretora jaunak, batere gizon balitz, berak eman behar lizuke zuri bizi izateko behar duzuna, hola eskean ibili erazi gabe.

JUSTINA.-Baina nik ez bait dut erretora jaunarentzat jotzen kanparik, herriarentzako baizik. Herritarrai dagokie neri sari ematea.

PAKO.- Hainbeste diru biltzen du ba hark, Igandutako eskabideetan; zer egiten ote du diru horretaz?

JUSTINA.- Asko ematen al dezu zuk zure poltxikotik?

PAKO.- Zu bezalako bat pagatzeko behintzat nola nahi biltzen ahal du.

JUSTINA.- Zuri emateko apartatu behar ez balu, hura gehiago luke gainera.

PAKO.- Zuri jende guztiak berdinak dira... Dana berentzako nahi izaten dute: besterentzako... hondarrak. Zu ere horien alderdikoa zera. Zure kanpai jotze saria biltzeko astoa ere Gregoriok prestatu dizu zuri.

OSTAL.- Etzaiozula kasurik egin, Justina... Tori zure saria. Hau, boltsarako, eta (*Eman bezaio botil bat*) hau, kafe-ondoko.

JUSTINA.- Milesker, milesker. Ondo etorriko da guztia.

PAKO.- Haizu, Justina: mirabe-lagun bezala ez al didazu kafe ondoko hortarako gomite egin behar?

JUSTINA.- Ez; ez da hori zuretzat on. Ur bedainkatua bait da hor.

PAKO.- Hainbat obeto. Behar bada, konbertitu egingo nauzu hortatik edan emanaz.

JUSTINA.- (*Irtenaz*) Horra non datorkizun erretora jauna zu konbertitzera. Mugitzen al zera oraintxe.

PAKO.- (*Txutituaz*) Ah! demoniñua! Seguro asko ahuntzak eta antxumeak atean ikusi dizkik.

ERRETORA.- (*Haserre hitza, urrutitik*) Aizu, Justina: Pako ostatuan al da?

JUSTINA.-Ala dut uste.

ERRETORA.- Esaiozu, arren, ez diodala agindu ahuntzak ostatura eramatekorik, larrera baizik.

PAKO.- (*Ahopetik*) Baietz, baietz; eramango ditudala larrera, eta kontentu ez bada, zakurraren ipurdira.(*Ateratzen da*)

ERRETORA.- (*Hitza alderago*) Gizon zoroa zu... Ardoak galtzen zaitu. Ez baitakizu, pauso bat egiten ostatu zikin horietara sartu gabe. (*Ahuntzak meeka*).

OSTAL.- (*Bakarrik*) "Ostatu zikiñak"... Ostaturik ez balitz, gutxituko ote lirake horregatik moskorrak? Nik ez uste... Guk edatekoa eskeintzen degu eta ez moskortzekoa. Honera sartzen diranak hartu bezate berak beren neurria... Bainan horra! Horra nun datozen zuriak: perratzailea eta Gregorio errotaria; bata Alkate-gaia,

- eta bestea Alkate bigarren-gaia. Oraintxen arestian gorritik; zerbi dezagun orain zuritik.
- PARRATZAILEA.- eta GREGORIO (*Sartuaz*) Agur, Kattalin.
- OSTAL.- Agur Jaunak. Heldu zerate, besteak bezala zuek ere zuen kalkuluak egitera?
- PERRATZAILEA.- Bai... Eta pentsatu ere pentsatzen degu, zu zerori gure adiskideetan konta ahalko zaitugula.
- OSTAL.- Nik ez dut zuen artean adiskide besterik.
- GREGORIO.- (*Esertzen dira*) Nere kontuak eginak ditut. Aurten gorrien arbola ipurdiz gora joan beharra da.
- PERRATZAILEA.- Joan dan urtean, ustel hoiek nagusitu badituk, gure faltaz izan duk. Ez genikan botuetako ontzia behar bezala zaindu. Bazkari.denboran berak bakarrik zai zeudela, egin ziguteken nahi zuten saltsa guztia: ontzia iduki, barrutik gureetako hamar boto kendu, eta ordañaak bereenetatik ipini.
- GREGORIO.- Aurten, horratik, eztigute holakorik egingo. Neroni egongo nahiz egun guztian, erne-erne ontziaren ondoan. Eta hainbat gaiztoago haientzat berak ontziaren ondotik alde egiten badute; hamar bat papel prest-prest poltxikoan gordeko ditut, ihazko botuetan lapurtutakoak ordaintzeko.
- PERRATZAILEA.- Zenbait beharkizunez ontzitik urrutiratu behar badugu ere, daudela han gainerakoak.
- GREGORIO.- Zaudela lasai, han izango naiz ni begiratzailerik.
- PERRATZAILE.- Eta?... Mintzatu al haiz baserritarrek hiru errotoak joan-etorria eginez?
- GREGORIO.- Bai, bai. Ederrak esan dizkiet botikarioaren kontra. Baserritarraren diruz aberastu dala; ez diola bat ere haien ajolarik; eta ez zaiola tutik ere konprenitzen haien gora-beheratan...
- PERRATZAILEA.- Botikario zikina! Zergaitik kendu behar zian horrek iturri hori gure etxe-aurretik? Nik ezarriko diat berriz ere iturria lehengo lekuan.

GREGORIO.- Errekatxarrekoai zubi berri bat agindu diet, irabazten badegu; eta gaztainaldukoai, berriz, bidea harriztatuko diegula...

PERRATZAILEA.- Ondo zegok... Aizak, eta... entzun al duk jaun erre-torari, elizako teilatua erreteilatzeke hitza eman diotela?

GREGORIO.- Susmo txarrak hartzen hasita nago, bai, ni ere, ez ote dagon gure erretor jaun hori gorrien alde...

PERRATZAILEA.- Jaun erretora gorriekin?.. Burutik egin al zaik?

GREGORIO.- Jum...Horiek zerbait agintzen badiote, eta guk ezer ez...

PERRATZAILEA.- Tira ba... guk ere Elizako teilatua erreteilatuko zioagu. Eta hortaz gainera zer gehiago nahiko dik?

GREGORIO.- Zer?.. Ba nik uste, oso gure alde bildu genezakcela, gauezko dantzak debekatuko ditugula hitz emanaz.

PERRATZAILEA.- Ondo zegok, esaiok, bainan ahopetik; ez dezala jendeak jakin holakorik; bestela apika izango diagu nor edo nor kontra horregaitik.

GREGORIO.- Justinari esan diot, irabazten badegu, herriak pagatuko diola bere kanpai-lana; eta Pakori, berriz herriko langileztat hartuko degula.

PERRATZAILEA.- Gehitxo agintzen ez baduk...Hitza betetzeak emango ziguk lan gero.

GREGORIO.- Oraingo, botuak irabazi ditzagun. Gero gerokuak; gero ez degu faltako aitzakiren bat emandako hitza ez betetzeko. Besteak ere beste horrenbeste egin izan dute.

PERRATZAILEA.- Ederki zegok... Eta orain beste zerbait. Hi hizta-rien lagun-artekoa ez al haiz? Ez ahal-hitukek poliki-poliki hire-ganatuko ihiztariren batzuek egun hauetan? Hoietatik ere bildu genitzazkek zenbait boto...

GREGORIO.- Zaude lasai. Ez dauzkat ahazturik. Elizaren hasierako festa haundi bat eratzen ari naiz egun horretan... Eta badakizu nor dan laguntzailerik beroena?

PERRATZAILEA.- Nor?

GREGORIO.- Xixon bitxi hori.

PERRATZAILEA.- To... Tonto abila... Etzegok gaizki. Parra egiteko lagunak ere on izaten dituk inoiz. Eta bai al dakik noren ondotik bihotza pil-pil hasia degun tetele hori?

GREGORIO.- Noren ondotik?

PERRATZAILEA.- Gure Bertaren ondotik?

GREGORIO.- (*Irriz*) Zure alabak Xixonen kutizirik bai al du gero?

PERRATZAILEA.- Badakit nolakoa den gure Berta. Maltzurkeria atsegin bahitzaiok, berak nahi duan guztia egiten dik Xixonekin.

GREGORIO.- Xixon gaizoa! Urrikari dut zuen Bertaren hatzaparretan.

PERRATZAILEA.- Bai, bai. Gure neska deabrutxo behintzat ederki jostatzen duk Xixonekin, katua xaguarekin bezela.

BERTA.- (*Leihotik*) Aita.

GREGORIO.- (*Irriz*) Ixo! hona Berta. Otsoa ahotan eta otsoa ateetan.

BERTA.- Gero esango dezute, emakumeak dirala bakarrik besteen jorran aritzea gustatzen zaienak.

PERRATZAILEA.- Ez giñunan inoren jorran ari... Sar hadi honeraino.

BERTA.- Ez, aita. Petraeneko idiak perratzeko etorriak dirala esatera etorri naiz.

PERRATZAILEA.- Bai, bai. Badinat astirik. Sar hadi (*Sartzen da*) Aizan; Xixonez ari ginukan. Hik nahi dudana egiten bait den horrekin; guri botua ematera erakarri behar uken.

BERTA.- (*Irriz*) Xixon gaizoa! Ezin nintzke etxetik irten. Hor dut beti ondotik. Orain bertan ere, ikusi bait nau hemen sartzen, nahi dezute laister hemen dela? Bai; hori behintzat baduk nik lagun zintzo. Ez dago nere maitasunez ukitua bakarrik; nigatik zoratua dago.

GREGORIO.- Ez dezu horrekin gusto gutxi hartzen.

BERTA.- Batzuetan jostagarri da; baina baita bestectan gogaitgarri ere.

GREGORIO.- Alkate Jaunaren semea da gero... Eta seme bakarra. Ondasunak eguzki cpeletan dauzkana... Etzinake bat ere gaizki izango holako batekin.

BERTA.- Bildurrik behintzat ez nuke bestetara makur dedin.

GREGORIO.- Etsi-etsian har ezazu diruarengaitik. Gero salda beltzetik zerbituko badiozu ere.

BERTA.- salda beltzetik? Zer da hori?

GREGORIO.- Salda sendo bat, Berta, salda sendo bat. Hartatik edan eta, ez omen da gehiago esnatzen.

BERTA.- Gizagaxoa! Errez ematen diozu zuk jendeari azkeneko tragua.

GREGORIO.- Hara! Horra nun datorkizun bera.

BERTA.- Bai, bai. Etzan dudarik, laster agertuko zala nunbaitetik. Kea suari bezain jarraikin zait.

XIXON.- (*Sartzen da; eta ezer esan gabe, plantatzen zaio Bertari begira zoraturik.*)

GREGORIO.- To! Hor al-haiz, Xixon? Aizak: Gauza pozgarri bat entzuna natxeok hiretzat. Egia ahal da hi eta Berta laster ezkontzen zeratela?

BERTA.- (*Irriz*) Bai, bai; hillabete honen seigarren igandean.

XIXON.- (*Berta begiz jo nahi duala, ondora hurbiltzen zaio.*)

GREGORIO.- Tira! portatu hadi jator. Aita beharra hemen zegok gero.. Edan zak, guk bezela, baxo bat zuritik.

XIXON.- Ez.. Aitak ez nai....

GREGORIO.- Zer nahi dik, ba aitak? Gorritik edatea?

XIXON.- Ez batere.

GREGORIO.- To... Hiri kalte egiteaz bildur duk nunbait... Ez dik, horratik, bildurrik bere buruarentzat... Tira! Nahi ahal duk, ez hurbildu horrenbeste neskatz horri? (*Xixon Bertari begira-begira, adoratzan bezala*) Polita duk eh?...(*Bertak eskua mahaigai-nean, eta Xixonek hartu nahi... Bañan Bertak kendu egiten*). Mutiko! Utzaiok horri pakean. Edo bestela, hasia hasi, emaiok musu...Bainan txuka-hitzak lehendabizi ezpain horiek. (*Xixon, ezpainai igurtzika*).

BERTA.- (*Goxo*) Orain ez, Ttotte. Gerotxuago. Etzaiozula kasurik egin gizon horri. Guri inbiri du. guk biok oso ondo elkar konprenitzen bai-degu. Ez al da hala?

XIXON.- (*Irri zozo batekin*) Ba...ba...ba.

BERTA.- (*Txutituaz*) Tira. Orain ni banoa. Aizak, aita, ez ahaztu gero idiak hor dituzula perratzeko. (*Xixonek obeditzen dio, aurpegi tristearekin*).

GREGORIO.- Aizak, Xixon. (*Xixonek ez aditzen. oihukago*) Aizak, Xixon. (*Xixonek jauzi bat*) entzungo al didak? Aizak: laister diagu hizaren hasiera; gurekin joango haiz noski. Basoan bai omen duk erbi eta basahuntz.

XIXON.- (*Pozez*) Pan, pan, pan. Ba.. ba..

GREGORIO.- Pan, pan, bai... Neronek jarriko haut paradan. Parada eroso bat emango diat.

XIXON.- Ba...ba...pan... pan...

PERRATZAILEA.- Ba, pan... pan... Bainan gero botua guretzat ematekotan.

XIXON.- (*Pozez txoratzen*) Ba, ba, ba. Pan... pan...

PERRATZAILEA.- (*Txutituaz*) Tira, hi: esanak esan. Ni banitxeak, paperen eta kartelen kontu hartzera.

GREGORIO.- Bai; eta ia maiz-maiz elkar ikusten degun... Badakizu botu denboran Jaungoikorik ez dagona, eta edozeinen ahotan gezurra ta urdukeria bal-bal ibili ohi dala.

PERRATZAILEA.- Eta zer nai duk?

GREGORIO.- Orohitzen al zera, ihazko botuetan nola zikindu zinduten?

PERRATZAILEA.- Bai, ala duk hori ere. Azken orduan etzekiak nungo ustelkik banatu zian neretzat, gauez ohez trukatzeko ohitura nuala...

GREGORIO.- Ba... Oraingoan beste horrenbesterik entzuten badezu ustel horietakoren batentzat, jakingo dezu Gregorio errotari honek badakiala, iriña ez dan besterik ere nahasten (*Irriz*)

PERRATZAILEA.- Hori, chorrek ikusi... Horratik beti ere zuhur ibili gaitezen.

GREGORIO.- Bego hori nere gain.

PERRATZAILEA.- Eta, bai al ator? Ala hemen gelditzen haiz?

GREGORIO.- Ez; banoa ni ere... Agur, Kattalin.

OSTAL.- Agur, ba, jaunak. (*Xixoni*) Zu hemen gelditzen al zera.

XIXON.- Bai; Bertak esan.

OSTAL.- Bost orohituko da Berta zuri esanaz... Tira ba.... zaude nahi badezu... Jaungohikorik ez dela botu egunetan... Zer gezur zabaldu behar ote dute aurten ere! A! zer nahaskeri berriz ere!

PAKO.- (*Sartuaz*) Eup! Kattalin! (*Moskor eztarri hasia*)

OSTAL.- Etorri zera zu berriz ere honcra... Nun dezu artaldea?

PAKO.- Ahuntzak larrean ezarri ditut... Ez ahal da egoki haien zaintzaileak ere beste hainbeste egin dezan? (*Xixoni*) To! Hor haiz hi ere? Zer hago? Nork ongi osatutako hauen begira? Alperrik duk... Onezkero hire eskaserekin ibilli beharko duk...Ator honera, zozoa; jar hadi hor.

XIXON.- Ni, ez zozoa.

PAKO.- Ez, ez. Ez haiz oso hala... Hamalau falta dituk, besterik ez, tei-laturaino osatua izateko.. Aizu, Kattalin: Ekatzu edaten. Ostatua debalde degun ezkerre -botuci eskerrak- ostatuan egongo nahiz, atera gabe botuak bukatu arte. Eta ez ditut bi edo hiru moskor-aldi izango egun hauetan, bakarra baizik, bañan bururen-buruko. Atertu gabe, saka ala saka, tripari eudia botako diot. Ekatzu honera edaten.

OSTAL.- Gorritik ala zuritik?

PAKO.- Ekatzu bakohitzetik pinta bat. Hola egingo degu bi eskualde-ekikoa.

OSTAL.- (*Zerbitzatuaz*) Ezin asmatu nago, zuk zuria ta gorria nola ajolatzen dituzun tripa hortan.

PAKO.- Ahal dedan bezela, Kattalin, ahal dedan bezala; eta beharko; eta alojatu nahi ez badute, biak kanpora. (*Xixoni*) To, hartzak hik

ere baso bat; eta ator edatera. Berdin zuen etxeko boltsatik pagatua duk edari honen erdia.

OSTAL.- Bai; eta beste erdia, horren etxe beharreko boltsatik.

PAKO.- Nola, nola?... Gorria da onenekotik. Zuriak ez du ezer ikustekorik.

OSTAL.- Ah...? Ez al dakizu berria?

PAKO.- Zer berri, gero ?

OSTAL.- Perratzailearen alabarekin hasia degu; eta ustez gauzak nahiko aurreratuak dituzte.

XIXON.- (*Pozez, eta kiñuka baietz, diola*).

PAKO.- Zer...? Hori ere badegu? Aizak; ez al haiz beldur holako neska itsusi puska emaztetzat hartzeko? Neska hori, motel, bekatu mortala bezain itsusia duk.

XIXON.- (*Haserre; botilakin Pako jo nahi duela*) Ez polita, polita, Berta.

PAKO.- Ez nazakela jo, motel. Utzak botila hori. Tira ba: polita duk, beraz ? Beste behin obeki begiratuko zioat...Demoniua! Gutxi aski duk hik horratik inori botilarekin burutik behera emateko... Beraz, Bertarekin hasia haiz? Etzegok gaizki. Funtsean hire eskasa haren sobrekinak hornituko dik... edo hik dukan ongi pixka hori harek galeraiziko. Deabrusa baiduk neska hori, deabrusa.

XIXON.- (*Botilaz jo nahi berriz ere*) Ez, ez da deabrusa.

PAKO.- Motel, utzak botila hori bere lekuan. Ez dik merezi haserre-tzea horrengaitik. To: ikusten duk baso hau? Honera ixuriko diat orain txuri-trago on bat eta gorritik ttanta bat bakarrik. Baso hontako edaria zuen ezkontzaren iduri bat duk. Zuria bat eta gorria bat-ere-ez bait-dituk baso hontan; alatsu izango zerate zuek ere biok (*Irriz*). Berta bai, biligarro polita... eta hi... zozoa. A! zer nolako kabia zuek biok laster egin behar dezutena.

XIXON.- (*Berriz ere*) Ni ez nahiz zozoa.

PAKO.- Motel ez adila haserre. Ez duk arrazoirik neri hola ekiteko. Argitzen ari natzaik. Ixura eman besterik ez diat egin hire

ezkontzaren. Zozoa haizela esan diat; ez diat esan pika edo hai-zenik. Baduk, beraz hi haizen baino beheragokorik.

OSTAL.- (*Xixoni*) Aizu Ttotte, hor ikusten dut Berta paseatzen. Azkar ateratzen bazera, aurkituko dezu; ikusi nahiko dezu noski...

XIXON.- (*Ateratzen da, ukabila Pakori erakutsiaz*)

PAKO.- Ah! Bai zail dala egia buruetan sarrarazten lur honetan!... Nik egiak esan dizkiot...

OSTAL.- Bañan egitik bizi algo bazera, hobeto dezu hor aurrean dauzkatzun botil horrekin mintzatu, gizonekin baino. Hobekiago aterako zera.

PAKO.- Nire aintzineko botilarekin mintzatu? Bainan zer esango diet?... Bat zuritik da; eta bestea gorritik... Zuria, apaiz ardoa da; eta badu begietarako grazia berezi bat, gorriak ez duana... Bixkotxoakin hartzeko ardoa. Badu baita bere esker, bere garbi, bere haundi aire berezia jateko leunekin zerbitzen dana, normahiri nohiz-nahi eskeini leiokiona; ohorezko ardoa; andereño gazte pertxenta... ardo zuria. Hik berriz, gorria, iluna haizelako, irri gutxiago duk hire begi tartean.

Irakiña izan haizelako, motelago eta hilago haiz; biziaren ñir-ñirra falta duk, zalapartaren kirkirra... Ardo gorri gaizoa! Edozeinen ardoa! Jateko larriekin erabiltzen haute; egun guzita-koa, haizenez mutur zuri ta esku finak gutxi parekatzen haute. Bainan igandetakoa ez izanik ere, ederra haiz, eta osasungarria, euskarria, zerbitzari leial zaharra... ardo gorria... Orain, Kattalin: esazu, zein derizkiozun komeni zaidala neri? zuria hala gorria?

OSTAL.- Hori jakin nahi badezu, galde czaiozu Joseri. Horra nun datoren.

JOSE.- (*Haserre*) Agur. Asto madarikatu ustela! Egiatzki bere nagusiaren astoa duk bai hori ere.

PAKO.- Zer duk motel? Zer duk horren haserre?

JOSE.- Ez dezakedala bandorik jo, Gregorioren asto zikin horren arrantza entzun gabe.

PAKO.- Hori besterik ez baduk, errex zuzendu diteken okerra duk hori.

JOSE.- Errex zuzendu? jakin naiko nitek nola...

PAKO.- Oso errexki. Astoak arrantza egitekoan, isatsa altxa ohi ditek. Lotu haklok astoaren isatsari edozer karga; eta ezin izango dik altxatu isatsa, ezta arrantzarik egin ere, eta ikusiko duk nola utzi-ko hauen pakean bere arrantzakin.

JOSE.- Hik ematea nahi nitek nik pakea hire zozokeri horiekin, ez bait-niagok bat ere jostaketarako... Aizu, Kattalin: ardo-tragoxka bat, arren.

PAKO.- Aizak, hi, lauso; hire lau begi horiekin guk birekin baino hobeto ikusten omen duk eta, noren alde haiz? zurien ala gorrien?

JOSE.- Kattalin, ekatzu onera nere ardo hortatik. Eta hik, Galeziano ume horrek, hire jatorria hango kastakoa duk eta, pixka bat argitu nahi baduk, ator, horaintxe eman dizkidaten kartel horiek irakurtzera.

PAKO.- Zer gezur botatzen diezute botu emaileai kartel horietan?

JOSE.- Gu, pakcaren, ogiaren eta libertatearen alde gaituk, eta jende xehearen alde. Hi, etzekiak ez ote habilen gu saltzen. Ez nauk batere fio hirekin, hor apaiz zerbitzari sartu haizen ezker.

PAKO.- Hiri, berriz, herriko mutil sartu haizen ezker, galo txar bat bildu dukala eta, ezin ixilduzko joale bat aditzen zaik apaizen kontra. Apaizen atze-milikari asko hintzan ba bi ere oraindik orain, elizan txantre hintzanean... Jaun erretorak, elizako ardotik edaten ikusita, kanpora bota hindunetik, bazirudik lehengo denborak aipatzeak berak min ematen dikala.

JOSE.- Ez nauk ni behin ere apaizen aldekoa izan. Apaizen artean nengibelarik ere, nik botua gorriei ematen niekan. Jende xehearen alde nauk ni, eta irakurtzen dizkiat periodikuak...

PAKO.- Zer irakurtzen duk periodikuetan?

JOSE.- Irakurri-bitzak nik bezala, eta ikusiko duk jende xheka nolako trantzetan bizi dan. Erne ez bagabiltza, laister gu bezelakoa ez

duk ezta bere soineko alkandoraren jabe izango, ez eta bere emaztearen jabe ere.

PAKO.- To, eta, hi chorri ba al haiz? Hobeto egingo hukck hik ere, hire emaztetxu horri gchiago begiratuko baio.

JOSE.- (*Oso haserre*) Hik zer duk esateko nere emaztearentzat?

PAKO.- Nik? Ezer ez. Jendeak diona bakarrik; hire emaztea horri maiztxo ahazten zaiola bere behatzeko eraztuna...

JOSE.- Gezurra duk hori. Gezur zikin bat. Saltsa nahastaile ustela hi. Hi bezelakoari nik muturra berotzen zioat.

PAKO.- Zer duk? Egiak min eman al dik? Nik esan bakarrik egin diat; gauza bera nik ez diat egin. Oker hori zuzendu nahi baduk, ekin hakiok ixkribauari, eta ez neri.

JOSE.- Zer esan nai duk? Jaun Philippe eta nere emaztea...?

PAKO.- Duda egiten al duk oraindik? Hi bakarrik haiz hemen, hori ez dakianik. Zergatik uste duk ixkribauak lagundu hauela herriko mutil sartzeko? Hire abilidade zorrotzengatik...? Edo ta, hiri herria zaituaraziz, berak hi obeki zaitzeko?

JOSE.- (*Zintzurretik helduaz*) Gezurra duk hori!! Zuri jende zikinak zabaldutako gezurra...

PAKO.- (*Burrukan*) Ez duk nere falta, lanean erdira hari bazerate, herriko mutila eta herriko ixkribau

OSTAL.- Halc...Pakea biok! Eta zoazte kanpora. Atadian zuri ezazute zuen lixiba...Errespeta ezazute ostatuba... Kanpora!

JOSE.- (*Burruka utziaz*) Ustel, ijitua! Galiziano!.. Ili bezelakoak, hito, zintzurretik helduta ito egin behar lituzkek.

PAKO.- Utzi nazak pakean... Ez nauk gero batere hire beldur.

OSTAL.- (*Atea ertsiaz*) Hok dituk jende errabiatsuak” Saltsero tzararak!! Barru hontako ixkanbila guztiak beti hortaxetik datoz: edo ardotik, edo emakumeen gainetik, edo ta politikatik... Botuak, botuak, bai; behar dirala badakigu... bainan zenbait buru galtze botuengaitik!

OIHALA

BIGARREN EKITALDIA

ANTZEZTOKIA: *Basoa... sasi, zugatz, txingurri- mendi bat; exertzeko edozein bixkar.- Oihala irekitzean entzuten dira urratsak ehiza-arrabotsak: zakur, tiro, turuta...*

GREGORIO.- *(Ehiztari jantzian)* Ator honera.

XIXON.- *(Berdin jantzia).*

GREGORIO.- Hemen izango duk hire parada. Eta orain nik ematen dizkidan xehetasunei, belarriak erne. Hementxe egon behar duk, txingurri menditxo honen ondoan; holaxe... Bainan kontu txingurri mendia zirika; bestela txingurriak harrotuko dituk. Ikusten ahal duk hortxe, bi haritz horien erditik dijoan bide txior hori? Hor igaroko diran ehizaki guztiai, tiro! Dala erbi dala basahuntz, dala basurde...

XIXON.- Eta basa konejuak ?

GREGORIO.- Baita basa konejuci ere... Adituko dituk, zakurrakin, urrutitik ehizkatzen dabiltzanak, ehiza paradatara bidaltzeko...

XIXON.- Eta azariak?

GREGORIO.- Azariak ere bai, hil. Bainan ez bait diat uste, azariak hiltzen lanik izango dukanik.

XIXON.- Eta azkonarrak?

GREGORIO.- Baita azkonarrak ere. Bainan nekez izango duk gaur azkonarrik hemen. Tirotako ehizak izango dituk bakarrik: basa koneju eta erbiak; behar bada, zenbat basahuntz... Agi danean izango duk basahuntzen bat hiltzeko suerte. Ohore haundia ukek hireztat holako bat.

XIXON.- Basahuntza, pan, pan.

GREGORIO.- Bai... Ikusten baduk bat, ez-ezakela huts egin... Ea konprenditu dukan dana ondo: zer egingo diok, erbi bat pasatzen bada?

XIXON.- Pan..pan..pan...

GREGORIO.- Ondo zegok. Eta basa-koneju bat?

XIXON.- Pan... pan...pan...

GREGORIO.-Oso ondo. Eta basahuntza bat?

XIXON.- Pan... pan..pan...

GREGORIO.- Ondo baino hobeto. Uzten haut, beraz ehorri bakarrik.

Ez adilla hemendik mugi inora, ni berriz etorri arte. Eta kontu, batez ere txingurri meta honi. Eta...ea basahuntza eder bat hiltzen digukan? Suerte on!

XIXON.- Basahuntza, pan..pan...pan

GREGORIO.- Ni banitxeak. (*Irteten da*).

XIXON.- (*Bakarrik. Urrutira entzuten dira ehiza-burrunbak. Egiten du lehenbizi inguruan itzuli bat. Bat batean erne-erne plantatzen da... Bainan, ez; ez da ezer... Exertzen da... Berriz ere zerbaiten otsa. Makur-makur joaten da soinu dan aldera*)

BERTA.- (*Atzetik, ixil-ixilik hurbiltzen zaio, irri batean. Ederki jantzia. Oihu egiten dio.*) Eup, Ttotte!

XIXON.- Ai, ai, ai! (*Oihu garrasi... Dardar dago, ikaraz; bainan hala-re Berta ezagutzean irriño bat egiten dio*)

BERTA.- (*Goxo-goxo*) Zer ari zera hola hemen?

XIXON.- Ehizan, ba, ehizan... pan... pan..pan...

BERTA.- Hil al dezu baterc?

XIXON.- Ez; ez ikusi.

BERTA.- Nun dezu hemen ehizaren pasea?

XIXON.- Hor... ba.. ba..ba..ba...

BERTA.- Oh! Ikusi nahi zinduket ehizaren bat hiltzen! Egon al nintzake hemen?

XIXON.- (*Poz-pozik*) Ba... ba ...ba...

BERTA.- Hementxe jarriko nahiz. (*Bizkartxo batean*)

XIXON.- (*Duda mudan dago, nori kasu egin: ehizari, hala Bertari. Azkenean Bertaren ondoan jartzen da, bere arma saietsean*)

duala. Ez daki zer egin. Elkarri begiratzten diote eta irri egiten bi edo hiru aldiz... Bertarengana hurbiltzen da pixka bat).

BERTA.- Asko maite al nauzu, Ttotte?

XIXON.- *(Pozez)* Ba... ba... ba...

BERTA.- Nik ere bai zu.

XIXON.- *(Bertaren espainak behatzez señalatuaz)* Ze polita, gorri-gorria!

BERTA.- Zer? Nere ezpainak? Nahi al dezu zureak ere berdin gorritzea?

XIXON.- *(Pozez)* Ba..ba..ba..

BERTA.- Zaude. Gorrituko dizkitzut.*(Gorritzekoarekin gorritzen dizkiola)* Ia nola? Luzatu hitzazu ezpainak. Orain hola. Ondo dago... Biziro mutil polita zaude. *(Pozez Xixonek ez du egiten keinurik... Berriz ere elkarri begira eta parrez egoten dira pixka bat... Azkenean Xixonek Bertari eskua hartu nahi lioke; baina Bertak ez adituarena egiten dio).* Zer nahi zenduan nere eskutik? Zer dezu? Zerbait falta?

XIXON.- *(Irri txoro bat)* Behatzak ere gorri... ba...ba...

BERTA.- Ondo da... Behatzak ere, ezpainak bezela nahi dituzu? Ekaitzu; gorrituko dizkitzut behatzak ere. *(Gogotik gorritzen uzten dio, keinu batzuek egiten dituala... gorritze horrek kilikatzen balu bezala)*

XIXON.- *(Gorritzea bukatzean, eskua hartzen dio, eta han sekulako musuak ematen).*

BERTA.- *(Eskua erretiratuz, eztiki)* Tira... Etzazula esku honetan ezpainik igurtzi... Gorri guztia kentzen duzu. *(Txutituaz)* Tira... nik aurrera joan behar dut. Zuk segi ezazu ehizean... Ah! baina zenbat txingurri da hemen? Begira, begira! Txingurri meta harrotu degu. Kontu egiezu animali tzar horici... Eta agur. *(Urrutiratzen da. Xixonek jarraitzen dio).* Ez, ez. Zaude zu hemen. Egizu ehiza. Agidanean basahutzaren bat hilko dezu. Huraxe litzake neretzako pozik haundiena.

XIXON.- Basahuntza, ba..ba...ba..pan... pan...

BERTA.- Laister arte, beraz.

XIXON.- (*Txirtatua dago pixka batean... Arma hartzen du... Txingurriak hasiak ditu gorputzean gora... Hasten da zalapartan haien kontra*). Phuuu! Txingurriak... Ai, ei,ai! Txingurri gorriak...

(*Bat batean ahuntza baten marraka entzuten da.... Mee.... Arma beso ondora jasoaz, erne erne plantatzen da.... Berriz ere marrika batzuek.... Ezker eta eskuin dabil, ehiza hobeto ikusi beharrez... Azkenean, nohizbait, hor ematen dio tiro bat*).

PAKO.- (*Oihuka agertuaz*) Eup!! Zer nahasketa da hau? nungo asto haundia dabil hemen tiroka?... Ah! hi al hitzan? Hik izan behar huan zozo buztan umc horrek. Nohiztik ona ehizatzen dituk etxe ahuntzak? eh? Begira zak zer egin dukan. Jaun erretoraren antxumca hil duk... Antxumea hil, bai. Begira zak. Nahi dukan bezala zuzenduko duk oker hau jaun erretorarekin... Alperrik duk hor harritua egotea tente potente, hire arma-tzarrerekin... Ekatzak orain arma hori...Hi ez haiz on, arma eskuetan ibiltzeko.

XIXON.- Arma, arma, ez... Arma nerea...

PAKO.- (*Indarrean kentzen dio*) Ekatzak arma hori honera... Aizen bezelako tipula-burua hi. Eta, arma hau berriz eskuratu nahi baduk, eskatu czaioak aitari. Nik haren eskuetan ezarriko diat... Orain egin zak nahi dukana. (*Joaten da*).

XIXON.- (*bakarrrik. Pixka batean geldirik, keinuka, zozotua bezela... Gero hasten da azka..*) Ah! Txingurriak, txingurri gorriak. (*Bere buruari txingurriak kendu beharrez ari bedi pixka batean, orain "txingurriak" ahopean diola, eta orain oihuka... Hobeto astintzeko, kentzen ditu, poliki-poliki soineko erropa guztiak, galtzak ez beste... Azkenean -beti oihuka- han dijoa sasi-atze batera, eta sasi-gainetik botatzen ditu barrura galtzak ere; eta haren oihuak gero eta urrutiago galtzen dira*).

GREGORIO.- (*Pixkak baten buruan agertuz*) Jes... tiroa zeri eman ote zioz mutiko zozo horrek? Etzian ba, hemen ehizarik tiro egiteko, gure sukaldean baino gehiago. Halako moduko parada ere horretxegaitik eman zioat- eta.. Jes... Eta nun da gainera gure gizona? Bere paradan ere etzegok... Ez al dira gainera horiek haren soinekoak? Phuun! Au txingurriz!... Jes... eta kartutxo kargatuak ere lurrera botata... zer gertatzen da, ordea, hemen?

PERRATZAILEA.- (*Hiztari- jantzian agertuaz*) Ta?... zer hil dik?

GREGORIO.- Ez dut ezer konprenitzen. Soinekoak hemen ditu, bainan bera ez da hemen. Begira zaiozu puska horiei. Zeharo txingurriz josiak.

PERRATZAILEA.- Ez al zaiok ezer okerrik gertatu baldinbetan, tetele horri!...

GREGORIO.- Edozeinek daki. dei dezagun, erantzunik ote-dan... (*Oihu*) Xixon! Xixon !! Ttotte! Oh Ttotte (*bainan erantzunik ez*). Jes... Hila ote da, ba? Ez ote degu, ba haren oin-hatzik bat ere haurkitu behar? (*Harritua; sasi-gainetik begiratzen du*)... Begira zazu, begira zazu horrera...jaun erretoraren antxumea hila. (*Eta joaten da sasi atzera*).

PERRATZAILEA.- (*Sasi-gainetik kanpora hizketan*). Nola zegok hila?

GREGORIO.- (*Kanpotik*) Tiro bat, bertatik-bertara emana du bularrean; begira, tiroa bete-betea hartua du.

PERRATZAILEA.- Hauxe duk misterioa! soinekoak hemen, eta jabea falta; armarik ez, eta antxumea armaz hila. Baduk hemen dea-brukeriren bat.

GREGORIO.- (*Berriz agertuaz*) Etzuan, ba, gure hiztaria zenbait basapiztik garbituko... Ea badan inun odol-markarik? (*Biak lurrean bila*).

PERRATZAILEA.- Xt...xt... Bi gizon zetozek, ezkutatu gaitezen.

PAKO.- (*Pixka baten buruan agertuaz bizi-bizi mintzo da*). Bai alkate jauna: horra nun zuan bere parada; ni haruntzaxeago nengoen

ahuntz-zai... Eta horra nundik hil duan antxumea. dohi-dohia ez nau harrapatu neroni ere tiroak... Holakoeri ez litzaioke eman behar chizarako paperarik. Arma eskutik kendu diot, eta nereharekin zugana joan nahiz berehalakoan.

ALKATEA.- Ah! gizagajoa! Bainan nun da bera?.. Jes... Horiek ez aldira haren soinekoak?

PAKO.- Nik ez dakit nora jo duan.

ALKATEA.- Bainan, bainan... Zer gertatzen da hemen? Hemen bada zerbait bchar-gabeko. Kartutxoak eta galtzak ere hor... Bainan nor da hemen gordea?

PERRATZAILEA eta GREGORIO.- *(Agertuaz)* Gu... *(Agertu ondoko haserre hasi bitez)*

ALKATEA.- Zer hari zerate zuek hemen? Nun dezute nere semea?

PERRATZAILEA.- Eskandalua... eskandalu bat da hemen gertatzen dana. Gorri zikinak, zuek!... Zer egin dizute zueri apaiz gizagajoa, haren antxumeari zuek hola ekiteko?

ALKATEA.- Zer diok, ordea? Gu, zuek bezain adiskide gaituk gero erretorarekin...

PERRATZAILEA.- Zuek? Erretorarekin adiskide? Bai, deabrua ur bedeinkatuarekin bezela.

ALKATEA.- Ikusiko diagu nork eramango duan haren botua.

PERRATZAILEA.- Jakina; haren antxumearen tirokatzaileak.

ALKATEA.- Haren botua eramango ditck, elizarentzat zerbait egiteko gauza diranak.

PERRATZAILEA.- Zer-nahitarako gauzatzat dauzkatzute zuek zuen buruak; bainan nun dituzute obrak?

ALKATEA.- Gure obrak ageri asko dituk... Ez al haiz konturatu oraindik, hire etxe aurretik iturri bat falta dala?

PERRATZAILEA.- Ustel zikina, Hi! Zirtzilkeriazko obrak egiteko bai, lehengoa bera haiz hi; bainan oraingoan hankaz gora joan beharra haiz. Eta ikusiko diagu zer faltako dan orduan hire botikaren aurretik.

ALKATEA.- Zer egin behar duk nere botikaren kontra?

PERRATZAILEA.- Badakik herrian komunak falta ditugula.

ALKATEA.- Komunak ezarri behar al dituk nere Botikaren aurrean?

Jakin ezak ba, hik ezartzen ez badituk komun horiek esandako lekuan, datorren astetik bertatik nik egingo dedala behar dana, beste nunbait ezartzeko. Perrategian aurrean lehen ez baduk usairik aski, hartatik zerbituko haugula ugari eta merke.

JOSE.- (*sar bedi arnas-larritua*) Ah? Hemen al zera?

ALKATEA.- Zer da?... Zer gertatzen da?...

JOSE.- Ttotte, zure semea.. Ttotte, larru-gorrian...(Ezin esan, arnas-larri)

ALKATEA.- Zer?

JOSE.- Ba, harra bezala, larru-gorrian...(Arnas larri).

ALKATEA.- Bainan mintzatuko al zera garbi?

JOSE.- Ez dakit nola eta nundik... Zure semea plazan agertu da larru-gorrian... Zakurrak zaunkaz, eta umeak ondotik lotu zaizkio, eta ahalegin guztian honuntz-aldera ihesi jo du. Eta jende-pila bat haren ondotik gabiltza.

ALKATEA.- Era hortan mutila...Bainan zer deabru gertatu zaio orain berriz gizagajo horri?

JOSE.- Ez dakit... Bainan oraindik gehiago ezpainak eta behatzak gorri-gorrituak omen ditu. Nik uste harront burua galdu duan edo...

ALKATEA.- Bainan, nun da orain?

JOSE.- Ez dakit. Eskualde hontara hartu du, eta gizon batzuek ere ondotik dijoazkio.

ALKATEA.- (*Perratzaileari eta Gregoriori*) Ustelak!... Ehiza-egunaz baliatu zerate, holako saltsa prestatzeko; guri parra eta burla egin nahi izan diguzute haur gizagaixo bat bitarteko hartuta. Bainan kontuan izan hitzazue ondorenak; etorriko dituk errestak.

PERRATZAILEA.- Guk zer kulpaa diagu hire semea inozua baldin bada? Zuzen zak bera, eta ez gu.

ALKATEA.- Holako hizketak belarrondoko bat merezi likek....

PERRATZAILEA.- Eman zak, gauza ba-haiz.

ALKATEA.- Bai emango pozik, eskuak zikindu-bildur ez banintz.

PERRATZAILE.- Aizak: jakin behar duk, perratzaileek badegula ohi-turarik, hi baino belarri luze azkarragoak ere ezitzeko.

JOSE.- Ixo, ixo... Horra nun datozen. (*Agertzen dira Xixon, Bertaren gaineko soinekoz jantzirik*).

BERTA.- Hemen zebilen larru-gorrian, ihesi... Ondotik joanik bildur dut. Eta nere soinekoz ahal bezala estalirik, etxera nekarren oraintxe.

ALKATEA.- (*Haserre*) Ttotte, bainan Ttotte, nun henbilen hola? Zer duk ibilera hori.

XIXON.- (*Txingurriak erakutsiaz ikaraz*) Phuuu... txingurriak...txingurri gorriak...

ALKATEA.- Hik hil al duk jaun erretoraren antxumea?

XIXON.- Ba...pan...pan...pan...

PAKO.- Bai, bai; horrek hil du; neronek ikusi dut ongi asko.

JOSE.- Zenbat pinta ardo eranak hintukan hori ikusi-aurretik?

PAKO.- Ez asko; hiri aurpegian lau begi ikusteko haina besterik ez.

ALKATEA.- (*Xixoni*) Bainan, gizagajoa-gizagajoa: esango ahal didak zergatik agoan soinekorik gabe?

XIXON.- Txingurriak, pik,pik... Nik arropak kendu...

ALKATEA.- Eta ezpainetako eta eskuetako gorri hori nundik dituk?

XIXON.- (*Irri goxo bat ezpainetan, Bertari begiratzen dio*)

ALKATEA.- (*Oso haserre*) Mintzatuko al haiz? Adieraziko ahal didak nola hagoan hola gorrituta eta larru gorrian?

XIXON (*Ikaraz*).

BERTA.- Arren: etzazula gaizki erabili mutila. Ez da honen errua.

PAKO.- Dударik gabe soinekoak erantzi ditu, berotxo zalako.

ALKATEA.- (*Gizon-gizonki*) Zuk gorde ezazu zure mingaina zuretzat. Ez dizu iñork ezer galdutu.

PAKO.- Eskubide dut ordea nere gogoan agertzeko. Nik ederki kon-

prenditzen dut gizon batek soinekoa kendu dezakela odola bero-
txo daukanean.

JOSE.- Bai; Holakoxe oihuturak ditu horrek.

PAKO.- Holako gauzak jakiteko hobe haiz hi ere, hire emaztea zain-
tzeko baino.

JOSE.- (*Izugarri haserre*) Hik zer duk, orain ere esan beharrik nere
emaztearentzat? Hi inor-zikintzaile ustela (*Lepotik heltzen dio,*
eta ateratzen dira kanpora).

PAKO.- Galdutu ezaizkiok xehetasunak jaun Philiperi. Galde hari...
Ai! utzi nazak pakean...

ALKATEA.- (*Haserre*) Hil ezazu! Akaba ezazu, zital hori... edo hartu
ezazu preso.

PERRATZAILEA.- Eh! Poliki, poliki; gu ere hemen gera gero.

ALKATEA.- Hi joan adi astoa perratzerara.

PERRATZAILEA.- (*Haserre; lepotik heltzen dio*) Asto-perratzerara?
eh? asto-perratzerara? Ator honera, perra beharrean ba-haiz..
(*Kanpora bultzatzen du*) Jarriko dizkiat nik perrak... eta ez han-
ketan; beste nunbait baizik.

PAKO.- (*Kanpotik*) Ai, ai, ai! Itoko nauela! Hilko nauela! Atozte
laguntzera!!

GREGORIO.- (*Aterez*) Aizak, jose: utziok horri pakean, edo ta urka-
tuko haut.

JOSE.- Utzi nazak; utzi nazak!... Badakik gero herriko mutila nahize-
la.

GREGORIO.- Bai; eta ni herriko errotaria.

PAKO.- Herriko mutil haiz; bainan ez luzarorako.

(*Zalapartak kanpoan gero ta ixilago*)

XIXON.- (*Ikaraz dago zalapartariei begira*).

BERTA.- Beldur al zera, Ttote?

XIXON.- (*Dardaraz*) Ez dakit.

BERTA.- Ez izan bildur... Auxe da POLITIKA.

XIXON.- Pol, poli...

BERTA.- Politika, bai. Zenbaitentzat haxe da politika. Zuk ez al dezu batere konprenditzen politikan?

XIXON.- (*Astiro, buruarekin*) Ez..

BERTA.- Ez zera zu bakarrik. Askok eta askok ere ez du gehiago konprenitzen.

XIXON.- (*Aho zabalik*) Aaah!..

BERTA.- Bainan, hala ere zerbait saltsatzen dira...

XIXON.- (*Beti aho zabalik*) Ah! ah!...

BERTA.- Eta horixe esaten diote "politika egitea".

XIXON.- (*Eskandaloz jota bezala*) Oh!..

OIHALA



Herriko bozak edo nor alkate (Donostiako Jarrai Antzerki Taldea)

HIRUGARREN EKITALDEA

ESZENATEGIA: *Botuetako etxe-barrua, botu egunean. Ontzia zai-tzen; eskualde bate-tik: Alkatea eta Jaun Philipe; eta bestetik: Perratzailea eta Gregorio. Erdian herriko mutil bezela ontziaren kontuan, Jose. Danok urduri daude. Kanpotik turuta-soinu batzuek entzuten dira.*

ALKATEA.- (*Haserre*) Turutalariak eta zalaparta-zaleak moldatu dituzte, gu hemendik botatzeko asmotan... Ikusiko diagu nor joango den hemendik kanpora, gu hala zuek.

PERRATZAILEA.- Turutalariak eta zalaparta-zaleak eratu ditugu, egia; bainan zuek egina egiteagatik... zertako hasi zerate?

(Zurien aldetik ate bat irekitzen da. Eta bandera txiki bat, zuria, agertzen da; eta zenbait turuta eta jats entzuten dira. Oihu batzuek ere bai: "Behera gorriak!". "Uuuuh!")
Gorrien aldutik beste hainbeste.)

ALKATEA.- (*Txutitu, eta alkate banda soinean ezarriaz*) Botutako sala hau errespetatua izan dedin, zuri ta gorri, guztiori eskatzen dizuet, kanpoan egon ditezela zalapartari guztiak.

PERRATZAILEA.- (*Ahopetik Gregoriori*) Zenbat dituk oraindik botua ematekoak?

GREGORIO.- Bost... etortzen badira behintzat.

PERRATZAILEA.- Eta partida zertan diagu?

GREGORIO.- Berdintsu noski... Azkenak eskuratu behar genituzke, ahal baldin bada.

PERRATZAILEA.- (*Joseri honek eskua botu ontziaren gainean ipini baitu*) Hep! Ken esku hori ontzi gain hortatik, nahi badezu.

JOSE.- Zer ajola zaizu zuri, nik ontzi hau ukitzen ba dut ere?

PERRATZAILEA.- Bai, bai! Izan ez balitz lehengo noizbait ontzi horren ukitzailerik, behar bada beste modu batera izango ziran orain kontuak.

ALKATEA.- Zer habil hi? Partida galdu eta orain aitzaki-bila?... Ni nauk gero hemen nagusi. Eta nik ematen zioat herriko mutilari ontzi hori ukitzeko eskubide. (*Uki beza Josek ontzia berriro*).

GREGORIO.- Horrek ukitu balezake, baita nik ere. (*Eta hasten dira biek ontziari tiraka*).

ALKATEA.-(*Ohihuka*) Geldi!! Bego ontzia hor! Ez dezala ukitu inork.

PERRATZAILEA.- Ez degu besterik eskatzen guk. (*Kanpotik berriz ere turuta eta oihuak*).

JUSTINA.- (*Sartzen da; burua galdua*) Botua ematera nator. jaun erretorari emango diot. zer egin behar dut hortarako?

PERRATZAILEA.- (*Paper bat eskainiaz*) Tori; hau da jaun erretoraren aldeko papera.

ALKATEA.- Hep! poliki-poliki, nahi badezu (*Paper bat eskainiaz*) Ona jaun erretoraren benetako papera.

PERRATZAILEA.- (*Haserre*) Zuek gorriak zerate. Antxumcaren hiltzaileok, bai al dezute lotsarik, jaun erretora zuen alde dezutela esateko?

ALKATEA.- Nik bazekiat jaun erretora norekin dan. Zuen uste guziak gora behera, nahiko burudun duk hura, herrian nor gauza dan eta nor ez dan ezagutzeko.

PERRATZAILEA.- Justina, nori emango diozu botua? Zuriari ala gorriari?

JUSTINA.- Jakina ba: zuriari.

PERRATZAILEA.- Ez da dudarik orduan: hau da zure papera.

ALKATEA.- Aizu Justina: noren alde zera kanpai jotze saria gehitu nahi dizutenen alde, ala lehen bezala utzi nahi dizutenen alde?

JUSTINA.- Jakina ba: gehitzen didatenen alde.

ALKATEA.- Gure alde, orduan... Torizu papera.

JUSTINA.- Eta zer egin behar dut bi paper horiekin?

ALKATEA.- Tori sobre bat... Sar zaite hor, gelatxo hortan, eta aukeratu ezazu zerorrek nahi dezuna.

JUSTINA.- (*Sartzen da. Zer egiten duan jendeak ikusten duala, zeharo nahasia, sartzen du lehendabizi sobrean paper bat, eta gero hura aterata, bestea...Azkenik zer egiten duan ez dakiela, sartu bitza biak bertan*). Orain zer egin behar dut?

ALKATEA.- Orain atera zaitez hortik.

JUSTINA.- (*Ateratzen da, esku hutsik*) Orain bukatu al dut?

ALKATEA.- Nun dezu, nik emandako sobrea?

JUSTINA.- Hor barruan.

ALKATEA.- Bainan, emakumea, sobrea ez da hor utzi behar. Hartu ezazu zurekin.

JUSTINA.- (*Obedituaz*) Itxi egin behar al dut?

ALKATEA.- Ez; utzi ezazu irekirik, eta bota ezazu ontzi hontara.

JUSTINA.- Erakutsi behar al ditut barruko paperak?

ALKATEA.- Ez; bere hortan sar ezazu sobrea ontzi hortan.

JUSTINA.- (*Obedituaz*) Bai; ez bai-nekian nola egin. Bi paperak horixe dijoaz sobre barruan. Ongi egin al dut?

ALKATEA.- Ongi edo gaizki, egin dezuna orain egina dago.

JUSTINA.- Tira ba; eta orain joango al naiz?

GREGORIO.- Bai, bai; joan zindezke, eta lehenbailehen crosten al dituzu botikarioarenean buru txorua sendatzeko botikak.

JUSTINA.- Zer? buruko minez al zaude?

GREGORIO.- Harritzeko al litzake, hemen entzuten eta ikusten diren gauzekin?

JUSTINA.- Zurek nahi ez dezute, ba? (*Irteten da*)

PERRATZAILEA.- (*Haserre*) Botu-emate hori ez da izan zuzena. Horren botuak zurientzat behar zuan izan. Ichenengo-ichenengo, ez da zilegi boto emateko salan bertan boto biltzen aritzea. Nik

ere ezagutzen dut gero legea...

ALKATEA.- Nik etzeoat botorik eskatu. Xehetasun batzuek eman besterik etzeoat egin. Botuez ni hainbat mintzatu haiz hi ere.

PERRATZAILEA.- Gauza horiek ez dira ahaztuko. Eta jakin ezazute, gora ere joko dedala.

ALKATEA.- Bai, bai; bainan nik ere izango diat zertaz gora jo... nola botu-papera markatuak eman dituzten, alegia.

PERRATZAILEA.- Nork eman ditula gero paper markatuak? Guk hala zuek? Larreondoko Manezi nork eman dio markatua? Eta Gaztaiñondoko Mariari ere nork?

ALKATEA.- Bai, eta Sasialduko Katixari? Eta Gorostarteko Andresi? Nork eman zietek?

PERRATZAILEA.- Gezurra; dena gezurra... Zer uste dezute? Zuek bezelako gerala? Gu ez gaituk zuek bezain saltsero.

DOLORES.- (*Sartzen da; bestiak ixiltzen dira*) Botua ematera nator.

ALKATEA.- Tori sobrea... Nun da Pako? Oraindik ez da agertu boto ematera.

PERRATZAILEA.- Badu eskubide, nahi badu ez etortzeko ere.

ALKATEA.- Esan nahi nuke, alegia mesede lukeela botu ematera etortzea, gerrako pentsioagaitik eta.

DOLORES.- Ez galde neri nere gizonaren berri; berdin, hark ez du boturik ematen nik kontsejaturik.

PERRATZAILEA.- Lastima da, ba, hala ez egitea...

ALKATEA.- Lastima? Zergatik, gero, lastima? Agidanean zuentzat eman behar al du Doloresek bere botua?

PERRATZAILEA.- Doloresek eta nik badugu elkarren berri.

JOSE.- (*Azkar*) Zer dezute? Elkar kontsultatzeko ohitura?

PERRATZAILEA.- Bai, hire emaztearengatik ikasia.

JOSE.- (*Haserre*) Zer dezu zuk ere, nere emaztearentzat esateko?

PERRATZAILEA.- Nik? Ezer ere ez, bestiak esaten ez duanik. Bakar-bakarrik horixe: hire emaztea baduala kontsejazale bat, ez nolana-hikoa.

JOSE.- Ia nere emazteari pakean uzten diozun!

PERRATZAILEA.- Utzi beharko! Bestela ere bazeukak hark gizonik asko.

(Turuta hotsa)

ALKATEA.- Dolores, utzi ezazu zure sobre hori ontzian. Agidanean, hemengo ixkanbilak ez al zaitu atzeratu botua zintzo ematetik.

DOLORES.- Zintzo emango duanak, ez dio aldameneko saltsari kasurik egiten... Agur, jaunak.

GUZTIOK.- Agur, bai, Dolores.

ALKATEA.- Laister duk oraintxe sala ixteko garaia... Ikusiko diagu norena izango dan azken hitza.

PERRATZAILEA.- Alegia, ikusiko degula.

BERTA.- *(Sartuaz)* Atoz, Tote, atoz. Botua eman behar degu. *(Xixon ere agertzen da)* Botu ematera gatoz biok.

ALKATEA.- Ondo da. Torizute sobreak... *(Xixon)* Hor al duk sobrean sartzeko nik emandako papera?

XIXON.- Ba...ba... *(Ateratzen du paper bat poltxiko batetik, eta beste bat bestetik).*

ALKATEA.- *(Bat irakurriaz)* Hau duk ona. Hau sartu behar duk sobrean.

PERRATZAILEA.- Ez duk hire egitekoa inori agintzea, botua nori eman behar dion.

ALKATEA.- Nik ez diat hiri debekatzen, nahi baduk hire alaba gobernatzea; bainan utzi nazak nere semea gidatzen... *(Semeari)* To papera; sartzak sobrean.

PERRATZAILEA.- Papera sobrean sartzea, ezkutuko gelan egiten dan lana duk, eta ez hola agirian.

ALKATEA.- *(Semeari)* Ondo da. sar hadi pixka bat horrako xulo hortara. Eta hortik aterata nahikoa duk sobre hau holaxe ontzi hontan botatzea.

PERRATZAILEA.- Hori ez duk botua libre ematea, hik aginduta baizik.

BERTA.- Atoz, Totte, nerekin ezkutuko gela- barrura.

(Sartzen dira biok)

ALKATEA.- *(Haserre)* Ez da hori legea. Bakarka sartu behar da gela- txoan, eta ez binaka... Ttotte, atera hadi honera, kanpora.

PERRATZAILEA.- Zer...? Eskubide ditek, nahi badute, binaka botua eman.

ALKATEA.- *(Ttotteri atzetik tira eginaz)* Ttotte, ator honera.

BERTA.- *(Gxo-goxo)* Ez, ez , Totte; zaude hemen nere ondoan. Atoz gaxo hori.

XIXON.- *(Aitaren kontra)* Neri utzi, utzi neri; ni Bertarekin.

ALKATEA.- *(Zeharo haserre)* ez diat hori onartzen. Hori ez duk liber- tatea. Hori, besteren argaleriaz baliatzea duk.

PERRATZAILEA.- Eta libertatea al duk, hik hire semeari agintzea botua nori eman behar dion?

BERTA.- *(Maltzurki atereaz)* Tira, tira! Etzaiztela bildurtu. Ttottek eta nik badakigu ondo asko, nori botu eman. Ez al da hala, Ttotte?

XIXON.- Bai noski

ALKATEA.- *(Erotua)* Ez didazute neri burlarik egingo! Ez duk hori hola pasako *(Kentzen dio semeari eskutik papera, eta bestea ematen)*. Hau, aditzen al duk? Hau botako duk ontzian, eta ez besterik.

PERRATZAILEA.- *(Haserre, ontziaren zuloa estaliz)* Ez da hori botua libre ematea. Utzi bere gisa! Berak gelatxuan aukeratutakoa duk horren botua, eta ez hik eskuetan ezarria.

ALKATEA.- Zer? ez duala botua emateko eskubiderik? Ikusiko diagu... Herriko mutila; nik agintzen dizut; indarrean bada ere libra ezazula botuetako ontzi hori.

BERTA.- Aita, zaude geldi. Utzazu ontzia libre. (*Besteai*) Al dut nik botu emateko eskubidea?

ALKATEA.- Bai. Bainan baita horrek ere.

BERTA.- Tira ba; horra nik ezarri nere papera ontzian.

ALKATEA.- Ondo dago. Eta orain hire aldi, Ttote. Sartzak hemen eskuko paper hori.

BERTA.- (*Irri ezti batekin ezetz dio Xixoni... Xixonek ez daki zer egin*)

ALKATEA.- Mugi hadi, ba. sartzak hemen.

XIXON.- (*Mila dudutan egon ondoren, hobedituko luke noski, baina..*)

BERTA.- (*Oihuka*) Kontu, Ttote, kontu! txingurriak, txingurriak. Dana txingurriz betea dago ontzi hori. Guazen, guazen hemen-dik!

XIXON.- (*Oihuka*) Ei, ei, ei! Txingurriak, txingurriak!? (*Egin ahalean ihesi dijoa Salatik, Berta ondotik duala*).

ALKATEA.-Ttote! Ttote! Demonio inozua! Ator honera!... Urde ustel zikinak! (*Bere lagunei*) Zaudete zuek hemen erne. Ekarrieraziko diat nik... Zer uste dute horiek? Gauza hau hortan geldituko dala?... (*Eginalcan irteten da*).

PERRATZAILEA.- (*Irri maltzur batekin*) Uste baldin badik gure Bertarekin nahi duana egingo duala, etzekik asko gizagajoak jokua norekin duan.

JOSE.- Ustelkeri bat da, zuek egin dezutena.

OSTAL.- (*Sartuaz*) Agur, jaunak. Botu ematera nator, ostatua pixka batean iñor gabe utzirik.

JOSE.- Tori sobrea.

OSTAL.- (*Behar bezela botua emanaz*) Jes! zer du alkateak kalean barrena holako korrikakin?

PERRATZAILEA.- Bere seme azkarraren ondotik ihizean dabil.

OSTAL.- Ehiza berriz ere? Izango degu ba lehen ere egun hauetan hortatik aski.

PERRATZAILEA.- Ez da, ba, oraindik dana bukatu. Ehiza-sasoia ireki berri degu oraindik.

OSTAL.- Orain baino saltsa hoberik egingo al degu ihizakoakin, ondorengo egunetan.

PERRATZAILEA.- Agidanean bai, eta piper gorri gutxiagorekin; piper gorriarekin ez baita saltsa onik...

JOSE.- Piper gorri bixia hobe, tipula buru zuria baino.

OSTAL.- (*Atereaz parrez*) Ondo da, ondo da. Zuek ekatzute gaia; nik saltsa egingo dizutet danon gustora.

JOSE.- Danon gustora, edo inoren ez...Lepoa jokatuko nuke, botua ere agindu digun saltsa bezelakoa bota duela horrek.

PERRATZAILEA.- Harritzekoa duk, nola ez dukan uste botua zuen alde eman duala...

JOSE.- Errez izango hitzateke ba, nori eman dion jakitea. Ontzi barruko gain gaineko papera da horrena. Eta azpi-azpikoa, bertiz jaun erretorarena... Hura baitzen goizean lehenengo boto emaile.

PERRATZAILEA.- Hola! Beraz boto-emaileak ere zaintzen dituzute? Eta paperak zenbaiti markatu dizkiozute?

JOSE.- Ofizio hori degu, bainan hortan ez dizutegu zueri zorrik.

PAKO.- *Sartuaz, zeharo moskorra, bi poltsikotan bi botila, bata zuritik, eta bestea gorritik; kantuan ari)*

Txakurrak hau!

Katuak ñau...

(*Oihuka*) Hep! Etxe hontako jendeak: gizon prestu bat hemen dezutela, bere egin-bidea betetzera etorria.

PERRATZAILEA.- Azkar ibiltzen al-zera ba oraintxe. Laister da ordu, sala ixteko.

PAKO.- Zer duk hik, perratzaile mutur beltz, neri hola agintzeko? Nahi diotanari emango zioat nik nere botua, eta ez hik aginduagatik.

PERRATZAILEA.- (*Haserre*) Heu!

GREGORIO.- (*Ahopetik*) Goxoago... Horren botuaren beharrean gade irabazteko. Ia gureganatzen degun.

PAKO.- (*Lurrean eseri, eta bi botilak aurrean dituala*) Hemen, nere etxean, ba-nahiz ni, beste edozein hainbat. Nere diruaz egina bait-duk etxe hau, beste edozeinenaz adina. Eta neri hemen inork ere ez dezaidala agindu.

PHILIPE.- Arrazoi dezu, Pako. Eta gainera zu bezala gerran ibili dan gizona, barru hontan bere etxean da ta beste inor baino gehiago.

PAKO.- Hain xuxen... Zuri banda zikina, zuek! Alkatetzan sartu baino lehen ere agindu behar al dezute? Hemen nik alkate bat ezagutzen diat. Eta zuetatik inork ez dik hemen nik baino eskubide gehiagorik. Gora gorriak! (*Gorritik edaten du*).

GREGORIO.- Ez al zera, hola oihu eginaz, ogia galduko dezun beldur?

PAKO.- A..! Zer nahi duk? Hik ere nere botua hireganatu? Eta ogia galtzen badiat, hiri zer ajola zaik? Nere ogia irabazteko gauza nauk. ez nauk behintzat hire errotan behin ere ogi-eske mintzatu, dakidanez. Ah!...Eta paperak? Nun dizkiat paperak? Ona zuriena, eta ona gorriena. Bai gauza politak ! Eta nolako errespetua dutela gero?... Ni beti, botu ematera azkeneko orduan etortzen nauk. Paper hok eskuetan ditudaino bai bait naiz norbait. Izan ere, aitor ezazute: zuek guztiok mezpresatzen didazute; bainan guztiok ixilik zaudute, honako paper polit hau zuenganatu nahiez. Paper hau ontzira bota ezkerro, nik ez diat balioko ezer zuentzat. gehiago ez nauk izango ezta zuen atzeko-alderako ere. Horregatik gordetzen dizkiat paper horiek eskuetan ahal dedan bezain luze... Hau zuena, zuriak; eta hau zuena, gorriak. Sufri hor! Gora gorriak (*Edaten du*) Halare, zuek zuriak, ez uste izan nahi eta nahi ez nere botua gorrientzat izango denik. Berdin izan diteke zurientzat... To! nahi al dezute tratuan hasi gaitezen: Ia nork eskeintzen duen gehiena. Lehendabizi zuek, mintza zaitzte.

PHILIPE.- Guk, Pako, badakizu; gizon behartsua beti errespetatzen degu eta laguntzen diogu. Zure pentsioari buruz, badakizu zer hitz eman dizugun.

PAKO.- Etzera gaizki mintzatu. Eta zuek, zuriak, zer agintzen didazute?

GREGORIO.- To! lagundu eiguk, eta irabazten badegu, herriko mutil, aguazil egingo haugu, Joseren lekuan.

PAKO.- Bai, hori gustoko lana nikek. Zuen tratua hobeia diat beste horiena baino. Gora zuriak!

JOSE.- (*Haserre*) Zuri ustelak! Zorionez, ez dezute zuen ametsa burutuko.

PAKO.- Gora zuriak! (*Edaten du zuritik*). Zuek, gorriak, pujatu ezazute orain enkantea. Gehiena eskeintzen duanak izango dik nere botua. Orain badakizute zurien berri... puja hor subasta.

ALKATEA.- (*Sartzen da haserre*) Mutiko gizagajoa!

PHILIPE.- Ez ahal dezute aurkitu?

ALKATEA.- Ez; egiñalcan ihesi joan da baso aldera. Bainan bidali ditut ondotik bilatzaileak.

PHILIPE.- Ibiltzen al dira laister, ixteko garaia heldu baita.

PAKO.- Gora zuriak! Nork eskaintzen du gehiago?

ALKATEA.- (*Haserre*) Zer ari zera hor, lurrean? Hori al da giza egoera? eh!...

PAKO.- Galde ezaiozu nere berri ingurukoei. Haiek esango dizute; enkantean ari ginan zu sartzean. Gora zuriak!

ALKATEA.- Nahi badezu, txutitu zaite hortik, eta txutik egon, toki honen errespetuagatik.

PAKO.- Alkate jauna! Zure etxean aginduko dezu, nahi badezu; hemen ez. Hau danon etxea da.

ALKATEA.- Zeeer?

PHILIPE.- (*Ahopetik alkateari*) Arren, mintza zakizkio goxo. Botua emateko dago. (*Pakori*) Bai, Pako, alkate jaunak arrazoi du: cederago litzake, batere agindu gabe zerori txutituko bazina.

PAKO.- Alkate jaunak lehendabizi agindu dezaiola bere etxeko zozoari. Hark obeditzean, nik ere obedituko diot.

ALKATEA.- (*Jaun Philipek ezin gozatu du*) Aizak: badakik herrian aurren-aurrena ni nahizela, eta errespetu zor didakela.

PAKO.- Bai, bai: zu herriko aurrena; eta zure beste hura, herriko azkena. (*Farrez*)

ALKATEA.- (*Egrabi bizian*) Esazak berriz holakorik... Nahi al duk belarrondoko bat?

PAKO.- Gora zuriak! Nork ikusi du holakorik inoiz ere?

PERRATZAILEA.- Aizu, Pako: zabilta azkar botu ematera.

PAKO.- (*Beti farrez*) Ehizara joan, eta armarik gabe etxera. Eta gainerra larru gorrian.

PERRATZAILEA.- (*Haserre*) Aizu Pako: ordua dezula. zabilta azkar, botu ematera.

PAKO.- (*Haserre*) Zer dezu? zu ere neri agintzen?

PERRATZAILEA.- Zure onagatik ari nahiz gizona; etzaitezela haseratu.

PAKO.- Nazkatu ere egin naiz azkenerako, eskaleakin ezin buruturik ari-beharrez.

PERRATZAILE.- (*Haserre*) Nor da hemen eskale? ni, hala zu?

PAKO.- Zu behintzat bazera bat ederra. Ni ez nahiz behin ere zuen etxean eskean ibili; zu, ordea, hemen zabilta nere ondotik boto-eske ta boto-eske, katu zaharra “miau-ka” ibili ohi den bezela. (*Orduak entzuten dira*).

PHILIPÉ.- Ixo!...Hep!... Ixo!... lau, bost, sei... seirak... Alde! itxi sala. Bukatu da oraintxe botu emateko ordua.

PERRATZAILEA.- Heu!! (*Izugarri haserre, Pakori lepotik helduaz*) Nor duk hemen eskalea? Urde moskor, nahasi, zikina hi?

PAKO.- Ai, ai,ai!.. Botuak bukatu, Pako bukatu.

ALKATEA.- (*Pakori ostikoka*) Alde! mozkortzar usaindua! Alde hemendik! aguazil: eramazu hemendik kanpora gizon hau.

PAKO.- (*Kanpotik*) Ez nian beste bildurrik... Ustel-banda zikinak zuek!

ALKATEA.- Tira! Orain hasi gaitezen botuak kontatzen. (*Ateetatik entzun bedi turuta-otsa, zalaparta eta oihu.*) Kanpokoak daude-la kanpoan; barruan bagera nahikoak.

ZURIAK.- (*Kanpotik*) Huuuu! Behera gorriak! Kanpora gorriak!

GORRIAK.- (*Berdin*)

PERRATZAILEA.- (*Zuriei*) Utzi iguzute, mesedez, lehendabizi pape-rak kondatzen.

ALKATEA.- (*Gorriei*) Zueri ere gauza bera eskatzen dizutet. (*Botuak kontatuaz*) Lehendabiziko papera.

GREGORIO.- (*Ahopetik Perratzaileari*) Ostalersarena.

ALKATEA.- Hau ez da inorentzako; bi lixtak dakartzi...

GREGORIO.- (*Ahopetik*) Atso ustela!

ALKATEA.- Hau gurea... hau ere bai... baita hau ere.. (*Segitzen du*)

GORRIAK.- (*Kantari pelotan bezala*) Sakeak bost, errestoak espe-rantza! (*Gero "Nor gera gu"ren airean*)

Nor da nausi? nor da buru?

Gu gorriak, gu gorriak.

Nor da nausi? nor da buru?

Gorriak nausi gera gu. Huuu!

ZURIAK.- (*Kantari*) Emezortzi eta hamabost. Zuriak emezortzi eta gorriak hamabost (*Gero kantari len bezala*)

Nor da nausi? nor da buru?

Gu zuriak.....

(*Kantu-denboran alkatea eta perratzailea ixkanbilan hasten dira papera baten gainetik. Denak ixiltzen dira*).

ALKATEA.- Paper hau ez da bale... markatua dago... begira ciozu... zerbaitekin arraskatua du baxter hau. (*Zuriak, huuu!*)

PERRATZAILEA.- Zer? ez dela bale? Marka hori berezkoa du pape-
rak; ez da inork egina. (*Gorriak, Huuuuu!*).

ALKATEA.- Tira, tira. "Paso" egingo degu. Zenbana gera, jaun
Philippe?

PHILIPPE.- Hogeina, berdin.

GORRIAK.- Nor da nausi? nor da buru... (*Bukatzean*) Behera zuriak!!

ZURIAK.- (*Berdin, kantu bera*).... Behera gorriak!!

ALKATEA.- Ixo, ixilik! Hogeitalauna berdin gera orain arte. Paper bat
gelditzen da bakarrik.

JOSE.- (*Oihuz*) Ba... Erretor jaunarena: azpi- azpikoa...

GREGORIO.- (*Arro-arro*) Hobe, hobe; beraz gora zuriak! zuriak
nagusi...

ZURIAK.- Gora zuriak! Behera gorriak!

ALKATEA.- Poliki, poliki. ikusi ta mintza; ez lehenago.

GREGORIO.- Zer ikusi, gero? Hori ikusia zegok.

ALKATEA.- (*Denak ixilik daudela, eskuak dal-dal, poliki-poliki ire-
kitzen du sobrea...eta bi paper, bi listak*) Hau ez da inoren zat.

GREGORIO.- Apaiz ustela! Saldu egin gatzik!

GORRIAK.- Huuuuu!

ZURIAK.- Huuuuu!

ALKATEA.- Ixo, ixilik! Beraz, hogeitalauna, berdin gara. Botuak
berriz egin behar, datorren Igandean....

PERRATZAILEA.- Ah! Nagusituko zinatela, bainan etzerate nagusitu.

ALKATEA.- Ez zuek ere.

GORRIAK.-Huuuu!

ZURIAK.- Huuuu!

XIXON.- (*Bultzaka sartzen dute, dena zozotua*).

ALKATEA.- (*Izugarri haserre*) Nundik agertzen haiz onera? Bainan
nundik agertzen haiz?

XIXON.- Botua, botua eman...

ALKATEA.- Hau al duk botua ematera etortzeko ordua? Nun ibili haiz orain arte, gizagajo hori? (*Belar ondoko bat eskeintzen dio*) Higatik ez gaituk nagusi.

ZURI eta GORRI.- (*Guztiok oihu batean.... sala hustuta, kanpora dijoaz*)

XIXON.- (*Bera bakarrik. Aurpegia ilun, eskuz mahai-gaineko boto paperak nahas-mahaskatzen ditu poliki-poliki. Halako batean, irri zozo bat ezpainenar:*) Nik ere ba paperak. (*Poltsikotik bi lixtak ateraez*) Hau, aitak emana.... Hau Bertak. (*Pixka batean lixtei begira ixilik dago... Bertarenari musu ematen dio*) Gizonak haserre....ba, paperak. (*Sorbaldak jasoaz, ez konprenitzen, alegia... Halako batean, irri zozo batekin behatz batez bekoki ondoaz zulatua:*) Zenbat jende txoro dan mundu hontan.....

OIHALA

ANTZERU



ANTZERKI ZABALKYNDERAKO ALDIZKARIA



Eusko Jaurlaritza
Servicio Arte Dramático

MATALAS
(HIRU EKITALDITAKO ANTZERKIA)
PIARRES LARZABAL

ARITZALEAK

MATALAS.-	50 urte, handi, sekail, botza apal
GOIHENETXE.-	30 urte, handi, bipil.
OLHAIBI.-	30 urte, handi, bipil.
ARKAITZA.-	30 urte, handi, sekail, zintzo.
HEGOBÜRÜ.-	40 urte, aurpegi gaizto, maltzur.
IRIGARAI.-	50 urte, edozein, milikari.
ETXAMENDI.-	50 urte, edozein, kakola.
BURUSOIL.-	60 urte, edozein.
APEZPIKU.-	50 urte, eder.
ZAINDARI.-	50 urte, larri.
BENAT.-	12 urte, jostakin.
PONPIDA.-	30 urte, eder
GAXUXA.-	60 urte, edozohin.

PANTXA.- 25 urte, moko fin.
 MADALEN.- 20 urte, edozohin.
 CALVO.- 50 urte, eder.
 GOBERNADORE.- 50 urte, edozohin, "apostolu".



Matalas antzerkiko jokolariak

LEHEN EKITALDIA

TAULAGAINA: *Biltzar toki bat, sahetsak eta gibela edozohin oihal ilunez.*

Erdi-erdian LUIS XIV. erregeren potreta. Mahain bat. Jarleku batzu.

Bi neskato, Pantxa eta Madalen, ari dira biltzar tokiaren garbitzen.

PANTXA.- Ikusi dinat Erregeak igorri jauna. Atzo jin dun Mauleko jau-regirat, lau zalditako (*moko fin*) karroxa batean.

MADALEN.- Nola din izena?

PANTXA.- Calvo omen din izena. Bigarren karrosa tapatu bat bazinan, berearen gibeletik, lau zaldi zurik tiratua. Lau andere pollit zituan haren barnean.

MADALEN.- Calvoren emaztea hain segur, bere zerbitzariekin.

PANTXA.- Ez omen, baina Calvoren bihotzeko izar berezia: Ponpida din izena.

MADALEN.- Jes! zer din Calvo horrek bere emaztea Parisen uzten eta ordaina hartzen gure Xuberoan gaindi ibiltzeko?

PANTXA.- Bai neska, hola ditun jende handi horietarik gehienak: espos-lagun bat ez dine aski, bi bederen behar ditizten.

MADALEN.- Eta ez dun hori bekatu?

PANTXA.- Bai guretzat bekatu dun, baina guretzat bekatu dena ez omen dun hala jende handi horientzat.

MADALEN.- Jes! zer dute jende handi horiek? Beren diruari esker elizako buruzagien ganik bi emazten ukaiteko baimena erosten, ala?

PANTXA.- Ez, ez dine haien baimena erosten, baina haien ixiltasuna. hi edo ni abiatzen bagina bi gizonen ondotik, ha zer eskandala!

Berehala hor gintizken herriko eta elizako buruzagiak beren eskumiko eta jendarmekin.

MADALEN.- Bai, hori segur.

PANTXA.- Ta aldiz, Calvo jaunak (*botza ozenduz*) “Pariseko Errege Handiak” igorria delakotz, ondotik ukan ditin hemengo xapeldun guziak, ez bera gaitzesteko, bainan agurtzeko.

MADALEN.- Hor zinan segur gure nagusia ere.

PANTXA.- Ez din erran beharrik: Gure nagusia dun hemengo gobernadorea eta beraz leku hontako Erregeren lehen mutila.

MADALEN.- Eta gure jaun apezpikua’

PANTXA.- Hura ere hor zunan bere inguru guziarekin.

MADALEN.- Gure apezpikuak ere agurtu ote din delako andere Ponpida?

PANTXA.- Ez... ez bederen denen aintzinean, gero egin badu ere. Ponpidak bere andere lagunekin ez din parterik hartu agurketa hontan: haren karrosa, atean gelditu gabe, Jauregi barnera sartu dun.

MADALEN.- Bazena jende ainitz bildurik jauregiaren aintzinean?

PANTXA.- Bai betikoak: soldadu multzo bat; eskoletako haurrak Erregeren bandera tipi batzu eskutan. Errientek erakatsia zioten “Vive le Rohi” oihu egiten, beren bandera tipiak higituz. Eta gero eskuzarta jotzale usaiaxo xakur manatu guziak.

(Urrats batzuen hotsa entzuten da.)

MADALEN.- Kasu! nagusia hor dinagu heldu.

PANTXA.- Bai eta segur nahiko din Calvo ongi tratatu “galonen irabazteko”: Xuberoko gobernadore izaitea ez zaion aski; Bordaleko bederen edo Pariseko nahi liken izan eta harek ohore biltzeko, guk beharko pekatu.

GOBERNADORE.- (*“apostolu” sartzen da*) Ari zirezte? Bon! Bai nahi nuke apur baten buruan hemen hukanen dugu bilkura iragan

dadin ongi baino hobeki. Honarat jinen baita Erregeren ordaina ezarriko duzue harentzat, hor erdian kadira bat eta gero inguruan, hemen, emanen ditutze zazpi alki, Xuberoko zazpi kontseilarentzat. Nerea aldiz Calvorenaren ezkerretarik.

PANTXA.- Mahainaren gainean, jauna, estalgirik ezarri behar ote dugu?

GOVERNADORE.- Bai, bai eta Erregeren bandera hau ezarriko duzue hor xutik. Bilkura denboran egonen zirezte ixil-ixilik, saihetseko salan. Apailatuko ditutzu usaiaiko edari ta jatekoak bilkura bururatzearan eskaintzeko.

PANTXA.- Dei eginen daukazu, Jauna, nohiz sar.

GOVERNADORE.- Bai eta... ahanztera nindoan: biltzarreko jaunak lagunduko ditutze atetik barne hontara.

PANTXA.- Ontsa da, Jauna.

GOVERNADORE.- Ta... egonen zirezte barrandan, noiz etorriko den Calvo jauna, Erregeren ordaina: Hari nihaurek idukiko diot atea. Ikusiko *duzuenean* heldu dela, aski nauzue berehaia deitzea.

PANTXA.- Ta orduan guk gorde behar dugu?

GOVERNADORE.- Ez. So egizue: emanen zirezte sar-atearen bi alderdietan. Ean! jar zaite zu hemen, eta zu hortxe. Caivo sartzean eginen diozue agurtze handia, (*Berak erakutsiz*) hola zaia hartuz esku muturraz. Gero agurtuz erranen duzue: "Basquaise humble servante de sa Majesté!". Ean nola egiten duzen.

PANTXA eta MADALEN.- (*Manatua egiten dute*)

GOVERNADORE.- Hola bai! Arras ontsa da. Fagore handi bat baita maila hortako jaun bat gure artera etortzea, esperantza dut grazia hoberena ukanen duela zuen aldetik. Erregck jakin dezan zer jende gisakoak diren Xuberotarrak.

PANTXA.- Eginahalak eginen ditugu, Jauna, gure zerbitzua ongi betetzeko.

GOVERNADORE.- Bai badakit nor zirezten eta holako jaun handi baten zerbitzatzeko ohoreak zuen baitan utziko duen ondorioa ez

dela izanen akidura bainan zoriona. beraz hemengo lan ondarrak bururaz-kitzue. Ni banoa Kontseilari jaunen goaitatzera. (*Badoa*)

PANTXA.- (*Irriz hasten da.*)

MADALEN.- Zer dun, neska, hola irriz artzeko?

PANTXA.- Gure nagusi xoro horrek uste din tripa atseginez betetzen daukula, burua beheti ta gibelaldea gohiti gu ezarriz, bere jaun handiaren agurtzeko.

MADALEN.- Bai ziminokeriak ere behar dine bizi.

PANTXA.- Eta horien ohiduran, badakin agurtze ohoragarriena nola egiten den?

MADALEN.- Nola?

PANTXA.- Holaxet: hire burua ezarriz agurtzen duenaren gibelaldea-ren heinean.

MADALEN.- Zergatik hori?

PANTXA.- Horrela erran nahi din: zure gibel milikari naiz!

MADALEN.- Hauxe ofizioa!

PANTXA.- Bai, handien arteko ofizioa dun hori. Ez dine besterik erakasten tipieri. Hori deitzen dine "ohore emaita".

MADALEN.- Balaki gure nagusiak buru makurtuen berri, urtuz hilen luken.

PANTXA.- Bazakin, bazakin... bere burua ezagutzen baitu. Zergatik uste dun gure nagusia egoiten dela goiz guziez, jeikita, apur bat leihotik so?

MADALEN.- Aroaren hartzeko araziz?

PANTXA.- Aroaren hartzeko bai! bainan ez zeruko aroa bakarrik, politikarena ere bai. Hala dun gobernadore ofizioa: Erne behar dine egon, gobernuaren haizeak norat joko duen aski goiz ohartzeko eta, aintzineko nagusiak salduz, berrieri jarraitzeko.

MADALEN.- Ta beraz gu zer gaitun gebernadorentzat?

PANTXA.- Gu? Zer nahi dun izan gaiten? Horien eskutako karta tipienak, zernahitan baliatzeko: gaur Calvoren ohartzeko eta bihar haren xixtukatzeko.

MADALEN.- Xo! xo! Heldu zaizkinagu gizoanak.

GOBERNADORE.- (*Agertzean*) Zoazte hemendik, zuek zerbitzariak!... Zatozte aintzina, jaun kontseilariak!...

(*sartzen dira zazpi kontseilariak. Gobernadoreak erakusten diozkate beren jarlekuak*).

Zu hemen Gohienetxe jauna; zu hor Arkaitza jauna; zu hemen Irigarai jauna; zu hor H jauna; zu hemen Etxamendi jauna; zu hor Olhaibi jauna eta zu hemen Burusoil jauna.

Gobernadore ospetsua mintzo zaiote) Jaun kontseilariak, zuek zirezte Xubero hontako buruzagiak, probintzia honen gidatzeko herriko gizonak hautatuak, Pariseko gure errege LUIS XIVren menpean. (*Burua apalduz, Erregeren itxurari buruz*) Ospe gure Erregeri eta Jainkoak luzaz gure artean begira dezala! (*Lauek berdin burua apaltzen dute*) Badakizue jaunak, zer den gure egungo bilkuraren gaia: Beraz Errege jaunak nahi du gure erresuma maitea Frantzia izan dadien munduan, gora, zabal eta ospetsu, hots iguzkia bezala lur guziaren argitzale eta berotzale. Bainan badakizue ere ez daitekela deus handirik obra dirurik gabe. Zor zaion maila Frantziari begiratzeko, Errege jaunak nahi du Frantses ume guziek parte har dezaten erresumako gastuetan. Gauko egunean gastu horiek biziki pisuak baitira, horien ordaintzeko Errege jaunak nahi lituzke Xuberoko herri-lur batzu saldu. Agertu da jadanik lur horien eroslea, orok ezagutzen duzuen Musde Arnaud de Peyrer, Biarnesa. Nahi luke ere Errege jaunak, zuek, jaun kontseilarick bere xedetan sustenga dezazuen, herri-lurren salmenta hori onartuz eta populuari onarteraziz. Horra jaunak, zeri buruz zaituztedan hemen bildu eta zertako gure arte-rat etorri den Calvo, Errege jaunaren ministroa. (*Oro ixilik dago-tzi apur bat*). Zuk zer diozu, Irigarai jauna?

IRIGARAI.- (*Milikari*) Nere biziko legea, Jaun Gobernadorea, beti izan da Errege jaunari obeditzea. Jainkoaren graziaz dugun kargudunaren nahikundea da neretzat Jainkoaren Berarena. Gure Erregek hola nahi duenez geroz, hola izan bedi.

GOIHENETXE.- Nik ez dut onartzen Errege jaunaren xede hori. Galdatzen dut iharduts diezogun Erregeri errespeturekin bainan fermuki, Xubero-ko herri ontasunak gureak direla eta ez Erregerenak. beraz horiek saldu behar balin badira, guk detzaz-kegu bakarrik sal eta ez beste nehork.

GOBERNADORE.- Ohartarazten dautzut Jauna, herrieri beren sortzea, izaitea ala suntsitzea heldu zaiotela Pariseko gobernuaren ganik. Beraz Pariseko gobernu da zuen herri ontasunaren jabea. Herriek dute bakarrik ontasun horien gozamina, ez jabetasuna.

ARKAITZA.- (*Gogor*) Gobernadore jauna, ni mintzatuko naiz, beti bezala. ahoan bilorik gabe. Guk ere badazkigu Pariseko berriak: Badakigu gure erregea eta gure gobernu gastu gorrian bizi direla, palazio zein ederragoak altxatuz, alimaleko festak muntatuz, beti eskuin eta ezker bidaiatzen, segida handi bat ondotik. Horiek guziak noren gustoz? Populu gaixoaren izerdiaren gustoz. hoinbestez jende alferren hazteko, behar ote zaio Xuberoko populuari ahotik ogia kendu? Gure herri lurretan biltzen dugu guk gure kabalen bazka eta ihaurla, gure suko egurra, bai eta ere jateko gaztaina. Jada hola hola, ezin biziarekin gure etxeak husten ari dira. zer behar gaituzte, ondarra larrutu? Pariseko buruzagieri iharduts diezotegun, jadanik aski xurgatu gaituztela. beren faltaz sartu diren leizetik ateratzeko, bide bat dutela bakarrik zuzenlegezkoa: berek beren xahupideak apaltzea.

GOBERNADORE.- Arkaitza jaunari ihardutsiko diot nik: Frantzia maita dela gure denen ontasuna; errege jauna gu denen aita gidaria. Frantziako xahupidez mintzo girelarik, familiako xahupidez mintzo gira. Ezin onartua da hoin saminkin mintza gaiten,

familiako gorabeheren zuzentzeko egina den bilkura hontan...
Eta zuk, Etxamendi jauna, zer diozu?

ETXAMENDI.- (*Kakola*) Nik diot, Jaun Gobernadorea, behar degula bakea. Bakerik gabe deus ez dezakegula egin. Elkar behar ginukela nolazpait antolatu; bai gure Errege handiari bai gure Xubero maiteari, emanez bakoitzari berea.

HEGOBÜRÜ.- (*Maltzur*) Eta nik galde bat nahi diot egin, hoin arroki mintzatu den Arkaitza jaunari: Ea non dituen bere larderiaren ahalak! Zer eginen duzu, Arkaitza jauna, Pariseko erregeak igortzen baditu zenbait mila gizon Xuberoaz jabetzerat? Indartsuagoren aintzinean indarrak ez du deus balio. Nahiz edo nahitez, ahulenak amore ematea besterik ez du. hautua dugu bakarrik, gogoaren alde ala kontra dugun "bai" erranen. Nere iduripena da, ondoko eguneri behatuz, hobeki aterako girala borondate ona erakutsiz, ezenez samindura.

GOBERNADORE.- Bai, segur naiz, hola jokatzuz, ez duzutela deus galduko. Irabaziko baizik... Eta zuk, Burusoil jauna, zer diozu?... Burusoil jauna!

BURUSOIL.- Ho!

GOBERNADORE.- Ean zuk zer diozun?

BURUSOIL.- Zer erranen dut ba nik? Ez dakit xuxen zertaz ari zirezen, piska bat elkortzen ari bainaiz. Hona zer diotan: ordena behar dugula eta disziplina. Ni gerlan ibilia naiz gero! Erregeri behar genioke adiarazi, larderia piska bat gehiago behar diotela gazteri erakutsi; oraiko gaztek ez baitute zaharren errespeturik. beren politika dute bakarrik ontzat hartzen, gu pitsik ez bagina bezala.

GOBERNADORE.- (*Mozten du*) Hortan zurekin nago, Jauna: adinak ekartzen du zentzua eta ez dezagun gure saila apaila oraino adinez onduak ez direnekin. Eta zuk, zer diozu, Olhaibi jauna?

OLHAIBI.- (*Zintzo*) Nik daukat ez daitekela izan ez ordenarik ez bakerik ez balin bada zuzentasunik: Xuberoa betidanik bere ontasun-

nen jabe izan da eta bere burua berak gobernatzeko eskua ukan du. Berrikitan izan gira Frantziako koronari josiak. Frantziari jostean, gure aintzineko eskubiden errespetua hitzeman izan zauku. Hitza- hitz izan dadien eskatzen dugu eta Frantziako erregeak onets dezan Xuberoa izan dadien ez haren eskupeko, baina bakarrik harekin eskuz-esku.

GOBERNADORE.- Gure Errege jaunak errespetu ekarri dio beti Xuberoari. Gaur galdatzen badio zerbitzu bat, ez da hor errespetu galtzerik; ez du Xuberotarren baitan duen konfientzia erakusten baizik.

PANTXA.- (*Agertzean*) Barka, Jaunak! (*Gobernadoreari*) Nagusia! Jaun ministroa hor omen da. (*Jalitzen da.*)

GOBERNADORE.- (*Pantxari*) Ongi da, heldu naiz.... (*Kontseilariari*) Jaunak, Calvo, jaun ministroak barda arratsean galdatu daute zuei bi hitzen erraiteko baimena. Baietz erran diot: oraixe berean aipatzera nindoan jaun horren xedea. Beraz hona non zaukun heldu. Pentsu dut ongi etorri egingen diozuela. (*Jalitzen da...* *Kontseilariak elgarren artean mintzo dira. Apur baten buruan gobernadorea itzultzen da Calvo-rekin*) Hona Calvo jauna, Errege jaunaren ministroa! Ongi etorri gure arterat, Jauna! (*Gobernadoreak presentatzen ditu bederazka kontseilariak ministroari eta hauek Calvo agurtzen dute, edo apalki ukurtuz edo xut egonez, nor zein diren*).

CALVO.- (*Bere alkitik*) Jar zaitezte, Jaunak! Duela lau egun gure Errege jaun ospetsuak galdatu daute Parisen, joan nindakion buruz-buru mintzatzera. Ohore neretzat. Ohore handiagoa oraino zuentzat, Jaunak, eta Xuberoarentzat. Ezen hona hitzez-hitz, zer erran daute Errege jaunak: Zoazi Xubero-rat. Xuberoa da ene koronako perla ederrenetarik bat: Betidanik Xuberoak eman diozka ene harmadari beso azkar eta leialenak. Hortakotz ez naiz mintzatu nahi Zuberotarrerik edozein mandatariren bitartez, baina erresuma handietarat igortzen ohi dudan kargodun baten

bidez. Errozute Xuberoko Kontseilarieri horien atea jotzerat heldu naizela, bere adiskiden ganat jotzen baitu lehenik behar-orduan gertatzen denak. Zazpi dira. Badakit zazpien izenak. Xuberoko populu guziaren aintzincan, bakoitzaren papo gainean ezarriko duzu nere zerbitzari leialeneri eman ohi diotedan medaila berezia (Lauck eskuak jotzen dituzte).

BURUSOIL.- Zer erran du?

HEGOBÜRÜ.- Medaila... medaila bederen ukanen dugula.

BURUSOIL.- Medaila? Zergatik? Lehenago baditut hiru gerlan irabaziak. haiek badakit zergatik ukan ditudan, baina oraiko hau?...

HEGOBÜRÜ.- (Sorbalda altxatzen du)

BURUSOIL.- Bon, bon... dena ere on!

CALVO.- (*Jaunskil*) Horra, Jaunak, nola bere bihotza zabalik daukan gure Errege jaun ospetsuak zuen eta Xuberoko populuaren alde-rat. Estimatuko duzue Jaun Erregeren atxikimendu hori eta segur zuen baietza gogotik emanen egiten dautzuen eskabideari.

(Oro apur bat ixilik dagotzi.)

GOBERNADORE.- Jaunak mintza zaitetzte lanoki, zuen ikusmoldea agertuz ministro jaunari.

ARKAITZA.- (*Gogor*) Ministro eta Gobernadore jaunak, holako galdeari ihardesteak behar du zenbait gogoeten egiteko cpea. Iduritzen zait kontseilariek behar ginukeela apur bat elkarrekin mintzatu. Gure solasak elgarren artean erabili-ta funtskiago eman baiginezake gure gogoen berri.

CALVO.- Zuzen zabiltza, Jauna multzo baten begiz gauzak hobeki ikusten dira, norberarenez baino.

GOBERNADORE.- Ongi!... Zuen arteko bilkura saihetseko sala hortan egiterat gomitatzen zaituztet beraz.

HEGOBÜRÜ.- (*Maltzur*) Ez dugu bilkura beharrik gure Errege aitari "baictz" erraiteko, baina hortan girenaz geroz, goazen

(Kontseilariak jalitzen dira. Calvo eta Gobernadorea bakarrik gelditzen).

CALVO.- *(Jaunskil)* Ongi mintzatu ote naiz, Jaun Gobernadorea?

GOBERNADORE.- *(Apostolu)* Behar zen hura erran duzu, Jaun Ministroa, eta behar zen bezala.

CALVO.- Bai, zuk barda arratsean salatuak jakinik moldatu dut ene solasa.

GOBERNADORE.- Gizon guzietan eta bereziki Euskalduneri laketa zaiote ohorea. Ohore emaita da horien biltzeko biderik erretxena: arras ongi pentsatu duzu medaila eskaintze hori. Medailak ez ditu bakarrik ohoratzen gure gizonak bainan ere ohorea zor zaioleta dio populuari erakusten.

CALVO.- *(Irriz)* Hori duzu: jende tipiek medailari ezagutzen diote bere balioa. Handiek aldiz, tipien enganatzeko daukan balioa.

GOBERNADORE.- Dena den, guri ere, ongi baliatzen zaikun gauza da medaila; horren ukailea zordun gelditzen baita emailearen alderat. Horri esker zenbait-zenbait kasko gogor leuntzen, gurtzen eta gureganatzen ditugu.

CALVO.- Eta horiek hola, nola iragan da hemengo bilkura?

GOBERNADORE.- Hala-hula!... Konduen egitea errex da: zazpi kontseilarietarik hiru ditugu kontra eta lau alde. Aitorturen dautzut nahiago nukeela, kontra ditugun hiruak baginitu alde, eta kontra aldiz, alde ditugun lauak.

Alde ditugunetan dituzu: 1- xahar xoxola bat; 2- zangopetan herresten ibiltzale horietarik; laugarren berritz, gu baino guretarago den errabiatu bat. Beste hirurei jarraikia dago Xuberoko populu guzia.

CALVO.- Hiru horiek ez ote ditzazkegu gure ganat bil nolazpait?

GOBERNADORE.- Ez dut ikusten nola: ez dute behinere onartu herri giderrak izan diren Parisen, ez-eta nehongo arrotzen eskutan. Horien gogoia hemengo jendearen gogoaren ohihartzuna da eta

horien jokabide izan da betidanik Xuberoaren beregaintasuna begiratzea.

CALVO.- Eta apezek zer diote?

GOBERNADORE.- Apezetan ere badezu orotarik, bainan bipilenak kontra ditugun hiru kontseilarien eskolakoak dira. Denen supiz-tale dute Matalas, Mitileko erretora.

CALVO.- Nor da Matalas apez hori?

GOBERNADORE.- Hori da, hiru kontseilari horietarik baten osaba; apez pizkor bat. Bernard de Gohienetxe du izena. Matalas izen-goitia. Gizon bat bipila eta zorrotza.

CALVO.- Ongi! mintzatuko naiz apez hortaz jaun apezpikuarekin.

GOBERNADORE.- Uste duzu apezpikuak zerbait eginen duela apez horri hegalean mozteko?

CALVO.- Ez ote dauku holako bat zor? Apezpiku balin bada ez ote da hala Erregeri esker?

GOBERNADORE.- Bainan Mitikileko erretorari jazartzen bada apez-plkua, bere apezetarik ainitz kontra izanen dituela, ni beldur.

PANTXA.- (*Agertuz*) Barka, Jaunak! hemen bada andere bat jaun ministroa ikusi nahi lukeena. Haren izena, Ponpida, aipatzea aski dutala erran daut.

CALVO.- A! Bai hala da: erranen nion honarat etor zadin. Sar-araz zazu, otoi! (*Pantxa jalitzen da... Calvok irrino batekin Gobernadoreari*) Pentsu dukezu, Jaun Gobernadorea, nolakoak diren andere honekin nere harremanak! Hitzemana nion, hemengo bilkuratik landa, joanen ginela, biak karroxan, inguruko lekuen ikusterat.

PONPIDA.- (*Agertuz*) Hona! ni hemen, hitzeman bezala!

GOBERNADORE.- Zorionak, Anderea, ongi etorria izan zaite gure arterat (*Eskuari musu emaiten dio*).

CALVO.- Jaun Gobernadorea, zer kontseilatzen daukuzu, bazter ikusterat norat joaitea, arratsalde hontan, Andere Ponpidarekin?

GOBERNADORE.- Andereak erran beza zer litzaiokeen atsegin.

PONPIDA.- O! Jaun Gobernadoreak, oro ikusi nahia naiz eta zernahitaz berdin tirriatua. Parisen entzuna nuen Euskal Herria eta hemengo jende arras bereziak zirela. Egia da. Hemengo etxe eta elizak, zeruaren garbia, bazterraren ferdea, denak nehon ez bezelakoak aurkitzen ditut.

GOBERNADORE.- Zorigaitzez, Anderea, ez zira jende gutirekin baizik mintzatzen ahalko: hemengo jendeak ez baitaki frantsesik.

CALVO.- Bainan makur hori, zenbait urteren buruko xuxenduko dugu: Errege jaunak manua eman baitu frantses eskolak muntatzeko herri guzietan.

GOBERNADORE.- Laster beren mintzaira basa hori galduko ahal dute! Hola bederen konprenitzen ahalko ditugu eta ez dira gure jorran ariko beren hizkuntzan.

PONPIDA.- Uste duzu gure jorran aritzen direla, Gobernadore jauna. Nik hasteko halako handiki aire bat aurkitzen diot hemengo jendeari; ez du iduri maltzurkeriarik badela horren baitan.

GOBERNADORE.- Badakizu Anderca, itxura dela maiz enganakor: zuk uste baino malezia gehiago izan diteke buru zintzo, tente, horien barnean.

PONPIDA.- Euskaldunek ba omen dituzte ere, pilota, dantza eta beste joko batzu biziki ederrak.

GOBERNADORE.- Bai, Anderca, eta ikusi nahi ditutzunaz geroz, muntatuko dugu zure ohoretan plaza-besta eder bat: ekar-araziko ditugu Xuberoko dantzari, kantari eta pilotari hoberenak.

PONPIDA.- Ez, Jaun Gobernadorea, ez dut holakorik behar: ez nuke nehoerentzat karga emaile nahi izan.

GOBERNADORE.- Euskaldunek gogotik eskainiko diote holako besta bat zure graziari.

CALVO.- Ta errazu, Jaun Gobernadorea, bada hemen ihizi-lekurik? Biziki laket zait ihizin ibiltzea.

GOBERNADORE.- Ez da segur ihizi eskasik hemen gairi: lumako edo ileko, baduzu hauta: oreina, orkatz, basahuntz, hartz, otso eta

beste hainbeste xori mota. Aitzinetik erraitea aski duzu nohiz nahi duzun ihizira joan eta behar dituzun laguntzalek eta tresna guziak bilduko dauzkitzut.

CALVO.- Milesker, bihotzetik, Jaun Gobernadorea, zenbait egun goxo iraganen ditugu hemen gaindi, zuri esker. Oroituko naiz zutaz Parisen.

GOBERNADORE.- Zure zerbitzari! jaun Ministroa, zure xeden ohoratzeke.

CALVO.- Bainan orena aintzina doa. Ez dezagun denborarik gal! Zu Ponpida jaliko zira eta egonen ene aidura karroxa barnean.

PONPIDA.- Ongi da.

CALVO.- Eta zuk, Jaun Gobernadorea, gizon horiek beren erraitekoak erranak baitituzte engoitik, deitzen ahal ditutzu honarat.

GOBERNADORE.- (*Andere Ponpida atera lagunduz*) Laster arte, beraz Anderea!

PONPIDA.- Bai, laster arte! (*Jalitzen da*).

CALVO.- (*Irrino batekin*) Ta Jaun Gobernadorea, zer diozu nere bihotzeko hautuaz?

GOBERNADORE.- Goresmenak, Jaun Ministroa, primadera ekarri daukuzu zurekin!

CALVO.- Bego hortan!... Bestalde, ez egin otoi odol gaiztorik zure hiru gizon horiengatik: Gure eztabada ez da begietako errautsa baizik. Herri lur horien salmenta jada sinatua dugu. Ez badute onez onean emaiten beren baietza, bortxaz kenduko diotegu. Indarra gurekin dugu... Sar-erazkizu; aire hartzerat joan nahia naiz eta bi hitzez trenkatuko dugu auzi koxkor hori.

GOBERNADORE.- Ongi da, Jaun Ministroa! (*Jalitzen da. Calvo bakarrik dago, apur bat gogoetatua. Sartzen dira lau kontseilari. Horien gibeletik gobernadorea*). Bainan, jaunak, non dira beste hiru kontseilariak?

ETXAMENDI.- Ez dakigu, Jauna, hiruak, beren artean, berez mintzatu dira, erranez basurde ihizarat zoazila.

GOVERNADORE.- (*Haserre*) Basurde ihizirat?

ETXAMENDI.- Hala erran dute... Zernahi basurde mota ba omen dabila Xuberoan, bereziki sasoi hontan.

GOVERNADORE.- (*Haserre gorri*) Zer da komedia hau?

CALVO.- (*Hotzki moztuz*) Ixo, Jaun Gobernadorea! Beraz zazpietarik lau, Erregek hartu xedearen alde zirzte?

LAUAK.- Ni segurik bai!.... Bai, Jauna, bai!.... Erran gabe doa.

CALVO.- Ederki! Beraz Erregeren alde ghiago zireztenaz geroz, kontra baino, herri lurren salmenta ontzat harturik gelditzen da. Nere eskerrak eta goresmenak zueri, lau Kontseilari jaunak. Aipatuko dut Parisen zuen egitate zuhur eta bertutetsua. Galdatzen dauzuet populuaren argitzea eta hartu xedearen alde biltzea. Jaun gobernadorea hor ukanen duzue laguntzale.

LAUAK.- Bai, bai! eginahala eginen dugu. Gobernadorea gurekin badugu, hori bera aski dugu.

CALVO.- Horra beraz! Erranak erran... Hontan bereziko gira elkarretarik. Zuen artean bainago zenbait egunentzat, berriz elkar ikusiko dugu, hala beharrean. Bestaldi bat arte, Jaunak!....

LAUAK.- Bestaldi artino, bai, Jaun Ministroa! Jainkoak nahi badu... (*Lauak jalitzen dira*).

CALVO.- (*Irriz*) Gizagajoak!

GOVERNADORE.- Holako ardi mantsoen ilea moztea erretx da! Nahi nuke jakin zer bilakatu diren beste hiru marroak!

CALVO.- Ez ahal zira haien beldur!

GOVERNADORE.- Bai haien beldur naiz, haiek baitaukate eskutan Xuberoko populu guzia eta bazter guziak nahasten ahal baitituzte.

CALVO.- Holakoetan kontrarioak elkarren artean nahastea da gure jokabidea: bota zenbaiti beldurra, besteri lausengua edo dirua. Munta edozoin saltsa horien artean, guk, Parisen, hola garaitzen ditugu gobernuaren etsaiak: Frantsesez diogu: "Diviser pour régner".

GOVERNADORE.- Hemen ere, orai arte, hola ditut kudeatu hemengo jendeak, bainan oraiko aldian beldur naiz ez ote duten denek “bat eginen” gure deliboroen kontra.

CALVO.- Ta gero zer? Harmen indarra ez ote da gure eskutan? Ez zaitela kexa! Mila soldadu askiko dira hemengo arrenkura eta zinkurina guzien ixil-arazteko. Ez beraz odol gaiztorik egin!... eta goazen aire hartzerat!

OIHALA



Matalas antzerkia. T. Monzon eta P. Larzabal jokolariekin.

BIGARREN EKITALDIA

TAULA GAINA: *Erretor-baitako sala bat. Lehen ekitaldiko oihal ilun bera. Erregeren potretaren orde, kurutze bat. Mahain tipi bat, eta zenbait kadira. Belaun-alki baten gainean estola, supeliza edo apez-etxe batean girela erakusten duen edozein jauntzi.*

Benat ogi ta gasna jaten ari da, aintzinean duen liburua irakurtzen duela.

BENAT.- “Dominus, domine, domini, domino, domino, dominum...”

Ai ei, ai ei! zer botiga!

GAXUXA.- (*Agertzen, pitxerra eta oporrarekin*) Nahi badezu apeztu, latina beharko duzu ikasi.

BENAT.- Nik ez dut apez egin nahi.

GAXUXA.- (*Zerbitzatuz*) Matalas arrazan izan dira betidanik apezak: Hemen, Mitikilen osaba apezak bere etxean hartu zaitu, pentsu baitu egun batez hartuko duzula haren segida.

BENAT.- Nik aita bezala nahi dut izan.

GAXUXA.- Aita ere Xuberoko kontseilari duzu: Osaba bezala nahi baduzu edo aita bezala kontseilari izan, berdin beharko duzu eskolatu (*Jalitzen da*)

BENAT.- (*Nardatua irakurtzen*) “Dominus, domine, domini, domino, domino. dominum..” Hau zozokeria!

MATALAS.- (*Agertzen, liburua eta makila pausatzen belaun-alki gainean*) Ea, Benat! Ikasi duka “Dominus, domine...”?

BENAT.- Bai, osaba, dena kasik badakit.

MATALAS.- (*Liburua eskutan hartuz*) Ea, ikus zer dakikan!

BENAT.-Ta oraino arras ongi oroitzen naiz, zuk atzo erranaz (*Botza harrotuz*): “Salve Xuberoa, ex omnibus locis pulcherrimus!”

MATALAS.- (*Irriz*) Ta hori bera nola da euskaraz?

BENAT.- (*Kantuz*) “Agur Xuberoa, bazter guzietako xokorik ejerre-na!”

MATALAS.- Bai ongi duk horren jakitea, bainan badakika hoin ontsa “Dominus, domine,...”?

BENAT.- (*Buruari hazka*) Bai ta, beste hura ere ez dut ahantzia gero!

MATALS.- Zer beste?

BENAT.- (*Xutituz eta hitzen araberako keinua eginez*) “Vade retro Calvo”.

MATALAS.- Horrek erran nahi baitu?

BENAT.- “Calvo, habil debruatarat!”. (*Jartzen da.*)

MATALAS.- (*Mahainerat hurbilduaz, kopeta ilun*) Bai segurki! doala debruatarat eta berekin eramán ditzala, gure bizkar bizi diren enplegatu, alfer, arrotz, guziak! Bainan “Dominus, domine,...” Horrekin, ikus zertan haizen.

BENAT.- (*Berriz buruari hazka*) Otoi, Osaba, ez da gehiago latinez nehor mintzo! Nahiago nuke “Dominus,...” euskaraz ikasi.

MATALAS.- “Dominus, domine, domini,... euskaraz?

BENAT.- Zergatik ez?

MATALAS.- (*Gogoeta*) Funtsuen hola duk: Egunak eta urteak ari gaituk gu euskaldunak, arrotza eta hila den latina mintzairaren ikasten eta oren bat ez diaguk, gurea eta bizia den euskararen ikasteko!

BENAT.- Egia hori!

MATALAS.- Bai zorigaitzez egia, bainan (*Botza ozenduz ilobari buruz*) egia ere alfer-aldi dukala hik egun. Gure zaldi hori eramak pentzerat eta hori zainduz ariko haiz gramatika ikasten. (*Norbait badela ohartuz, xutitzen da*)

BENAT.- (*Leihotik so*) To! Aita heldu!

MATALAS.- Hire aita? tenore hontan?... Agur ezak jalitzean eta habil zaldiarekin (*Benat jalitzen da*)

GOIHENETXE.- (*Apur baten buruan agertzen da.*) Agur, Osaba!

MATALAS.- Agur, iloba! Hi, tenore hontan hemen? Zer gertatzen zaik?

GOIHENETXE.- Ta zuri zer gertatu zaitzu barda bi jandarmekin?

MATALAS.- (*Kadira bat eskainiz*) Hire gana heldu baita berria?

GOIHENETXE.- (*Hurbilduz jartzen da*) Maule guzia hortaz mintzo da. Niri goiz hontan jin zait Atarratzera berria.

MATALAS.- Hona egia, den bezala. Barda ilundirian, bi jandarma etorri zaizkiat arrastatzerat. Gobernadorearen manuz, omen. Nahi baitzaiztaten eskuak katenaz lotu, erran zioteiat: "Katenak ezartzekotan beharko nauzue lehenik hil! Piska bat izitu ditiat eta bien artean eraman naie, batere estekarik gabe. Gero, ur handiko zubia iragaitean, zubi horrek ez baitu saihets makilarik- berek uste ez zutelarik, galtz-ipurtik, "brau", hartu diat batto, ondotik bestea eta biak urerat aurtiki.

GOIHENETXE.- (*Golpez xutituz*) Ta gero?

MATALAS.- (*Lasai-lasai*) Gero, to!... Pentsatzen diat uretik jali direla. (*Irrino batekin*) Ni etxerat itzuli nauk. Bereala bildu gaituk hemengo gizonak eta multzo bat harmaturik prets ziaudek, jandarma edo botiga heldu badira bazterren nahasterat.

GOIHENETXE.- Gobernadore zikin hori da bazter nahasten ari: (*Haserre gorri*) Atarratzeko inguruan ian bera egin dauku; niri ere arrastatzaileak igorri daukit.

MATALAS.- Nola egin duk ihes? (*Pitxer bat arno ekartzen du eta bi opor*).

GOIHENETXE.- Nere zaintzaileak prets nintuen aintzinetik: arrastatzaileak agertu direlarik gizon multzo bat bildu dira ene ingururatu eta arrastatzaileak, izuturik, laster lekutu. Harrikaldi on bat ukanik ordea, gibeletik.

MATALAS.- (*Zerbitzatuz*) Ta hi, gero, mendiz hona etorri?

GOIHENETXE.- Bai eta bi lagun kontseilarierei ere gaztigatu, hona bilditen haiek ere.

MATALAS.- Zer ziok bada herriko jendeak?

GOIHENETXE.- Gure eskualdean bederen arras alde ditugu: Gobernadoreak euskal besta handi bat prestatu nahi omen du, Calvo-ren amorantearen ohoretan. Gure dantzari eta kantari batzueri dei egiten diote, bainan denen ganik eza ukan du. Salbu baten ganik eta hau erregetiar kontseilari horietarik baten etxe zaina, omen: ogia ez galtzekotz, “bai” erran behar.

MATALAS.- Gobernadore zitala! Lur ebatsien jabek ohore eta besta egin behar orai beren ohohin ari! Hauxe da kopeta!

GOIHENETXE.- Bai, ohore ohoinari eta gainera ohoin -nagusiaren amoranteari: Gure larrutzea ez aski; larrutuen esker ona oraino nahi!

MATALAS.- (*Kanpotik arrabotsak entzutean*) Jes! zer dira arrabots horiek? (*Leihotik behatuz*) To! gure gizonak geldiarazi die plazarat sartu den zaldi-karroxa bat... Jaun bat karroxan. Ea paperak non dituen!... O, o! kexu, kexu gure jauna!

GOIHENETXE.- (*leihorat hurbilduz*) Bainan, bainan..... ezagutzen dut nik, jaun hori, gobernadorea, bera da.

MATALAS.- Zer, gure gobernadore tzar hori? Segur haiz?

GOIHENETXE.- Bai, bai! arras segur.

MATALAS.- Ontsa! hi ago gibeletik. Ni aterako nauk: garbituko baitute gure gizonak, sekula jakiten badute. (*Biak jalitzen dira, bat bere gordagirat, bestea kanporat*).

GAXUXA.- (*GOIHENETXE atera den atetik agertuz, leihorat buruz doa*) Zer da hor? Oi, oi! jaun hori hilen dute..... Beharrik horra gure apeza heldu.

BENAT.- (*Kanpotik heldu*) Errazu, Gaxuxa!

GAXUXA.- Zer da? Nondik heldu haiz? Non duk zaldia?

BENAT.- O! zaldia, iturrira joana, jauzi-putinka, egarritua baitzen. (*Leihotik so*) Gure osabaren beso ginarrietako mitxa! (*Jestua eginenez*) Lagun batek oro erran dauzkit: zubiaren gainetik bi jandarmak urerat; lehenik bat: “plits!”; bestea ondotik: “plats!”; gero han biak igerika, holako amurrainak! (*Igerikaren eskarnio eginenez*)

GAXUXA.- Haugi nerekin; goazen hemendik: horra apeza, karrosa barneko jaunarekin.

(Matalas eta gobernadorea sartzen dira. Hau haserre gorrian, gaizki erabili dutela, jauntzitik ageri).

GOBERNADORE.- Zer dira manera hauek, Jaun Erretora? Nork manatu ditu gazte horiek niri hola jazartzeko?

MATALAS.- *(Idorki)* Nork manatu ditu, Jaun Gobernadorea, baina bi jendarme ni preso hartzerat etortzeko?

GOBERNADORE.- Ez ote zaio Aizak hemengo gobernadoreari Mitikilen gaindi ibiltzea, mandilen eskuetan erori gabe?

MATALAS.- Ez ote zaio Aizak hemengo errotoari gauaz bere etxean lo egitea, mandilen bisitarik ukan gabe?

GOBERNADORE.- Noiztik dira gure jandarmak mandil batzu?

MATALAS.- Zure esku-makil bilatuz geroztik.

GOBERNADORE.- Zer mandilkeria egin dut nik?

MATALAS.- Nork ditu Xuberoko gure herri lurak ebatsi eta saldu?

GOBERNADORE.- Egitate hortaz arregura zaite, ez niri, bainan Errege jaunari.

MATALAS.- Erregek deus ez dezake, meneko xakurren laguntzarik gabe.

GOBERNADORE.- Nik nere gobernadore kargua dut bete.

MATALAS.- Ez zaituzte behinere Xuberotarrek hautatu-bere gobernadore.

GOBERNADORE.- Frantziako erregearen ganit dut nik kargu hori.

MATALAS.- Frantziako erregeak ez du Xuberotan manatzeko eskubiderik.

GOBERNADORE.- Jakin nahi nuke zergatik.

MATALAS.- Betidanik bere gain izan da Xuberota. Ez dio nehoi ez eman ez saldu beregaintasun hori xuberota. Frantziako erregea azpilanean ari da gure jabetasun hori beretu nahiaz.

GOBERNADORE.- Ez dut onartzen errespetua gal diezozun ene Errege Jaunari.

GOIHENETXE.- Ez nik ere, Xuberoari gal diezozuen zuek, handi ala tipiek.

GOBERNADORE.- Frantziako erregearena da Xuberoa.

MATALAS.- Xuberoa da Xuberotarrena.

GOBERNADORE.- Zer naiz bada ni zuentzat?

MATALAS.- Zu zira ohoinen mutila, kargutan jarria ebatsi dituzten ontasunen gobernatzeko.

GOBERNADORE.- Ez zira kopetarik gabe, niri hola mintzatzeko: aherentzi ote duzu ni naizela jandarman buruzagia?

MATALAS.- Eta zuk aherentzi ote duzu, Jauna, nere mutil gazte horien presonier zirela tenore hontan?

GOBERNADORE.- Zu zirenaz geroz horien aintzindaria, zu izanen zira ere hobendun zerbait gertatzen balin bazait. Zer egin gogo dezu nitarik?

MATALAS.- Hori ikusiko dugu gure mutil horiekin. Goazen horietarat. Zoazi aintzinean, heldu nauzu ondotik. (Jalitzen dira.)

GAXUXA.- (Aurpegi beldurti batekin) sar zaitezte, sar Jaunak! Ez da hemen nehor. (Sartzen dira GOIHENETXE, Olhaibi, Arkaitza) Ez dakit zer gertatzen den: gure apezka kalapitan ari izan da hemen zen jaunarekin. Orain so egizue, (Leihotik behatzen du) biak hantxet dira, gure mutilek inguratuak. (Jalitzen da.)

GOIHENETXE.- (Bipil) Gobernadore zirtzila! Behar dik kopeta, gauaz jandarmak igorri-ta, biharamunean bera hemen agertzeko! Bainan saltsa gose balin bada gure osabak saltsa onduko zio.

OLHAIBI.- Bai ez diat beldurrik: ez dikek gatz eta biper eskasik ukatzen hire osabaren saltsa horrek.

GOIHENETXE.- Eta Barkoxen gaindi, bakan zireztea zuen eskualde horietan?

OLHAIBI.- Banean? Ez gaituk hortarik ari, to! H sorjes hori bazter nahasten ari zaizkuk. Iragan merkatuan mozkor-arazi zitian bere kiduko batzu eta niri tzarkeria egiterat igorri: ostatuan nintzalarik ene zaldia libratu ziteian eta ene karrosa uzkaile.

GOIHENETXE.- Jakin duka nor ziren?

OLHAIBI.- Bai hatzeman ditiat eta bizkar beroaldi bat ona eman zieat. Bainan herenegun bi belar metari su eman zaitaie. Doi-doia diat etxea erretzetik begiratu.

GOIHENETXE.- Ai, urdeak! nor ote ziren su emaileak?

OLHAIBI.- Gobernadorearen polizak, Oloronetik igorriak, Hk galdaturik: Horiek berek die arroltze ustelez harrikatu Burusoil xoxola horren karrosa.

GOIHENETXE.- Burusoilen karrosa, erran duka? Hori berena die. Zergatik bada?

OLHAIBI.- Motelskoa baita gizona, gure kontra berotu nahi izan die, guk harrikatu dugula sinets-araziz.

ARKAITZA.- Badiaguk holako gure aldean ere: Muskildiko herri lurrak salduta, paxetak ezarri zitzeian inguruan. Gau batez paxetak oro errotik ateratu-ta eraman ditie norapait. Biharamunean jandarmak ibili dituk bots etxetan, gobernadorearen partez erranez, bakoitzari etxeko behi ederrena kenduko ziotela, paxetak ez bazituzten aintzineko lekuan ezartzen. Etxe horietakoek ez ziteian bada deus ikustekorik saltsa hortan.

OLHAIBI.- Zer zituzten, ala jende horiek gure kontra muntatu nahi?

ARKAITZA.- Bixtan duk baietz.

GOIHENETXE.- Ai, urdeak! Hola sartzen die beldurra jende xeha baitan; jende xeha egoiten duk ixil eta umil, oro jasainten, ondorio gaiztoagorik ez ukaiteko.

ARKAITZA.- Jende xeha ez duk hobendun, bainan gutarteko papo handi batzuk Xuberoa saltzen die, argi eta garbi dakitelarik zer ari diren.

GOIHENETXE.- Batzu ari dituk dirutan truk. Beste batzuk ohore gosez. Gure etsairik handienak ez ditiaguk Parisen, bainan hemen gure etxean. Halako apostolu arrazoin batzu aterako ditie: Parise gabe deus ez girela; Parise gabe ez gaitezkelat bizi; hobe dugula pixka bat gal eta jasan, ezenez-eta jazar eta oro gal; eta holako!.... Zinez ateka gaiztoan gaituk eta baniagok ez ote ginu-

ken, beste orduz bezala, sasi-harmada bat muntatu behar, hemen-dik sisti, handik sasta, etsaiari lotzeko.

ARKAITZA.- Nik nahiago nitek Xuberotar harmada bat agerian muntatu eta Xuberoko gidet guziez jabetu.

OLHAIBI.- Xuberoko populua gurekilan ote ginuke, hola abiatzen bagine?

ARKAITZA.- Gazte gehienak segur bai. Gudari duk bestetzat beldur-raren lokarrien haustea, kolpe handi bat eginez.

OLHAIBI.- Badakik jendea errazkiago jarraitzen zaiola bezur ta haragizko gizonari ezenez zuzenbidearen izar hutsari. Jazarkundearen banderari bezala ginikek Xuberoko buruzagi pizkor eta bipil bat, orok edo gehienek onart lezaketena?

ARKAITZA.- Nik begistatua diat, guk behar dugun gizon hori.

OLHAIBI.- Nor?

ARKAITZA.- Matalas, etxe hontako apezka. Hor dik Matalas-ek bere izena. Bere apez lagunek eta beste ainitzek ongi ikasia duk. Guk behar bezalako gizona duk.

OLHAIBI.- Bainan berak nahiko ote du?

ARKAITZA.- Berari galdegin beharko. To, hona non heldu zaukun.
(*Leihotik ikusi du*)

MATALAS.- (*Sartzean*) Sobera, soberarekin! (*GOIHENETXERI buruz*) Gobernadorca garbituko ziteian ez baniote atzaparretatik kendu. (*Olhalbi eta Arkaitzari ohartuz*) A! hemen zuek ere?

ARKAITZA.- Bai Jauna, bai! Badakizu nola etxetik iheska joan behar izan giren.

MATALAS.- Jakin ditut zuen berriak. Hemen Mitikilen, gaurkoan bederen gu gira nagusi: Nihaurek hartu ditut herriko giderrak, ez diton izan arrotzak manatzale.

OLHAIBI.- Jaun erretora, ez duzu uste, zuk hemen, Mitikilen, hartu duzun bide bera behar ginukela hartu Xuberoa guzikotzat?

MATALAS.- Zer erran nahi duzu?

OLHAIBI.- Erran nahi dut, zuk Mitikileko giderrak hartu dituzun bezala, behar ginukela norbait aurkitu Xubero guziko giderrak oro bere eskutan har letzazkeena.

MATALAS.- Baitaezpadaklo laiteke, kenka gaizto hontan. Gure saila eraman dezagun ez barraiatuki, orai bezela, bainan orok elkarrekin, elkarri loturik. Bainan nork ikusten duzu, Xubero hontan denek, edo gehienek, onar lezaketen gizon hori?

OLHAIBI.- Ori, Jaun erretora, Xuberotarren banderari horren hautua egina dugu gure artean.

MATALAS.- Eta nor?

OLHAIBI.- Zu Jaun erretora!

MATALAS.- Ni ? Zer kariaz?

OLHAIBI.- Zu baitzira, gure artean, indarrari indarraz ihardoki duzun lehena, gizon harmatu multzo bat moldatuz zure inguruan. Zure izena eta itzala Xuberoa guzian zabalduak dira. Nehor ez da zure bekaizti izanen, orok onetsiko baitute ez zirela ontasun edo ohore gosez denen aintzineko jarri, bainan bai Xuberoko herriari zerbitzu egitea gatik.

GAXUXA.- (*Agertzean*) barka, Jaunak, plazako mutil zenbaitek nahi lukete berehala jaun erretorarekin mintzatu.

MATALAS.- Ontsa da, Gaxuxa, heldu naiz (*biak jalitzen dira*).

(Beste hiruak elgarretaratzen dira)

GOIHENETXE.- Goazen solasak izartuz: nik ezagutzen diat ongi nere osaba. Hartzen dituen xedeak, beti kaskoz hartzen ditik; alduko eskualdea eta kontrakoa ongi haztatuz; bainan behin bide bati lotuz geroz, ez duk debrurik bide hartarik baztertuko ducnik.

ARKAITZA.- Holako aintzindariak behar ditiaguk orai, eta ez "norat haize, harat aise" dabiltza pika buztan horiek.

GOIHENETXE.- Hori, hori! gure suak onbor idorra behar dik, eta ez zume ergela.

MATALAS.- (*Irrino batekin agertzen da atean. Besteak hari buruz daude*) Pentsa gure gaztek nor daukaten hor preso!

ARKAITZA.- Nor ote?

MATALAS.- Andere Ponpida.

ARKAITZA.- Calvo-ren amorantea?

MATALAS.- Hura ta bera.... Karrosan zoan, omen, Nabarrenkoserat, hemen gaindi. Segur naiz harat hitzartuak direla gobernadorearekin. (*Irri maltzur batekin*) Jukutria zerbait munta ginezake menturaz, paradaz balia.

ARKAITZA.- Zein jukutria?

MATALAS.- (*Mahain muturrerat hurbilduz, beste hiruen ganat*) Eman dezagun zu zirela hemengo buruzagi lehena, gobernadoreak buru ezarria. Andere horri mila lausengu eginen dizkiotzu eta, ziri-ziri, kofesatuko duzu. Ez dukegu salatarik hoberik, gure etsaiak xer xedutan dabiltzan jakiteko, andere hori baino.

ARKAITZA.- Ez dautazu lan tipia emaiten!

MATALAS.- Ixo!... Hor da... Zoazi agurtzerat.... Gu goazen gordetzerat. (*Badoatzi*).

ARKAITZA.- (*Ponpida sar-eraziz, grazia handirekin*) Ongi etorri gure artean, Anderea! Barkatuko duzu nere ausartzia. Jakin dutarik nor zuten gelditu gure mutilek, ezin dut garaitu zure agurtzeko gutizia.

PONPIDA.- Lehen buruz-buruan piska bat izutu naute, egia erran, zure mutilek, baina gero mantsotu dira. Ondotik ezin xarmentagoak agertu dira.

ARKAITZA.- Nahi dugu jakin nor dabilan hemen gaindi. Hortako ditugu gelditzen iragaile guziak. Erregeren kontra ari diren bazter nahasle horietarik ez ginuke nahi utzi sartzerat.

PONPIDA.- Bizpahiru Xuberoko kontseilari omen dituzte buru berotzale, bazter nahasle horiek. Hola entzun diot Calvo jaunari.

ARKAITZA.- deusez, deusez!... Buru bero batzu eta haien iduriko apez zenbait, deus ez!.

PONPIDA.- Bai apez bat omen da guziz gaiztoa. Barda preso hartze-ko zuten. Engoitik preso daiteke.

ARKAITZA.- Apez bat preso? Zein ote? Matalas ote?

PONPIDA.- Bai izen hori hera da: Matalas. Gure etsai porrokatua, omen. Jaun apezpikuaren baimenarekin preso sartzekoa zuten; gero hemendik urrun bidaltzeko; bakea eman dezan.

ARKAITZA.- Jaun apezpikua ezagutzen baituzu?

PONPIDA.- O! bai! Gizon gaitza da. Bai Gobernadorearekin, bai ministroarekin arras adiskide!...

ARKAITZA.- Bai eta gurekin ere (*irri maltzur batekin*). Eta orai, Anderea, Nabarrenkoserat ari zinen, gu bezala?

PONPIDA.- (*Harritua*) A! zu ere heldu baitzira bilkura hortarat? Uste nuen soldado aintzindarietz bestalde, lau kontseilariak zirela bakarrik jitekoak. Hori erran daut Calvo jaunak.

ARKAITZA.- Bilkura bererat ari gira bederen, zu eta ni? Zenbat ore-netan da zurea?

PONPIDA.- Afal aintzin. Afarirat noa ni bakarrik. Ez bilkuralat.

ARKAITZA.- Nik bientzat dut gomita. Badakikezu zertaz dugun gure bilkura.

PONPIDA.- Bai, jakin dutanaz, hiru kontseilari etsaien eta horieu lagun zenbaiten preso sartzeaz omen duzue solas.

ARKAITZA.- (*Irriz*) Eta guk zu preso hartu, ustez eta buru berotzale horietarik zinen.

PONPIDA.- (*Irriz*) Kasu! salatuko diot Calvo-ri nola erabili nauzuen eta igorriko dauzkitzue soldadoak, zuen preso hartzerat.

ARKAITZA.- (*Irriz*) Datozila! Eginen diotegu ongi etorri!

PONPIDA.- (*Irriz*) Bainan hola preso atxikitzen banauzu, etorriko dira soldaduak nik deitu gabe ere. Utz nezazu joaiterat! (*Xutitzen da*).

ARKAITZA.- (*Hurbiltzen zaio laguntzeko*) Zinez, bihotza larri uzten zaitut urruntzerat. Etxe hontan betikotz sartu da zurekin, hemen izan zirelako oroitzapena.

PONPIDA.- Oroitzapen ebatsia, Jauna, ez bainintzan hona buruz abiatua. (*Jalitzen da.*)

ARKAITZA.- (*Bazterretik*) Oroitzapenez besterik ez balitz ebasten!... (*Jalitzen da*) (*Gorderik dagotzin hiruak agertzen dira. Matalas lehenik*).

MATALAS.- Orai bazakiaguk gufe etsaien barneko berri.

OLHAIBI.- Hil edo bizi, jokatzea besterik ez dugu. Irabazten badugu oro irabazten ditugu. Galtzen badugu, hainbat gaizto!

MATALAS.- Galdu edo irabazi, hori geroak erakutsiko. Gaurko eginbidea, partida jokatzea. Galtzen duenak ez dik desohorerik, zorigaitza baizik.

OLHAIBI.- Bai, uko egileak du desohorea.

ARKAITZA.- (*Sartuz*) Entzun duzue. Orai ez gaiten lo egon! Ni, gizon multzo batekin. Nabarrenkoserat banoa: Ihiza meta guzia saretarat bilduko dut eta, ontsa estakaturik. Mauleko jauregirat ekarriko.

GOIHENETXE.- Bai, hik hori egin-ezak! Guk beste gizon multzo batekin jauregi hortarat joko diaguk eta jauregiaz jabetuko gaituk. Han preso ditugun lagunak libratuko ditiaguk eta etsaiak han berean giltzatuko.

ARKAITZA.- Ta Xubero guziak jakinen dik, herri ontasunen jabe, Xuberotarrak gelditzen direla.

GOIHENETXE.- Bai eta ere Xuberotarren gidari... Xuberotarrak. Xuberoko Biltzar Nagusia bildu arte ordea, Xuberoko buruzagi bat guhaurk izendatu beharko nik uste.

(*Hiru kontseilariak Matalasi begira*)

ARKAITZA.- Zer ihardesten daukazu, Jaun erreтора?

MATALAS.- (*Apur bat ixilik egon ondoan*) Norbait behar bada, onartzen dut kargu hori.

ARKAITZA.- (*Kartsuki*) Milesker, Jaun erreтора! Xuberoa eta gu salbatzen gaituzu!

MATALAS.- Ez dut hargatik, apez bezala, harmarik eskuetan hartu nahi.

ARKAITZA.- Harmen lana bego gure gain! Ez dautzugu holakorik galdatzen.

MATALAS.- (*Deliberatuki*) Ez dut ere nahi odol ixurtze debalderik. Jende eta ontasunen errespetuan eraman dezagun gure saila! Eta lehen-bai lehen burura!.

ARKAITZA.- Zuk mana, Jaun erretora, jarraikiko gitzaizu.

MATALAS.- Ongi! Sarri Maulen, ixilka, sartuko naiz nihaur eta jauregiaren aintzinean aurkituko nauzue.

ARKAITZA.- Beraz gu guazen xeden betetzerat (*Jalitzen dira hiru gizonak*).

MATALAS.- (*Gogoetatua, bere buruari*) A, Matalas! Xede latza hartu duk! Nahitez norbaitek sakrifikatu behar!

GOIHENETXE.- (*Asaldata*) Osaba!

MATALAS.- Zer da?

GOIHENETXE.- Jaun apezpikua! Jaun apezpikua hor da, bere karro-san. Gure mutilek gelditu dute. Zu, behar omen zaitu ikusi.

MATALAS.- Datorla!

GOIHENETXE.- Osaba!

MATALAS.- Zer duk?

GOIHENETXE.- Ez duzula bederen hartu xedeari uko egien!... Apezpikuak manatu dautzula, edo...

MATALAS.- Zer dituk solas ahul horiek? Ala ez nauk oraino ezagutzen? Jakin ezak Matalasentzat hitza hitz dela eta ez dela apezpikurik ez debrurik bere hitza janaraziko dionik.

GOIHENETXE.- Barkatu, Osaba! eta milaesker! (*Jalitzen da.*)

APEZPIKU.- (*Agertzen da ospetsu, manatari.*)

MATALAS.- Nere errespetuak, Jaun apezpikua!

APEZPIKU.- Egia da, Jaun erretora, zutaz entzu dutana?

MATALAS.- Hala daiteke, ez bada gezurtiek errana. Egia da, jazarri zirela Erregeren manuari? Jarraiki naiz ene kontzientzieri.

APEZPIKUA.- Obedientzia zor diozu lege zibilari.

MATALAS.- Salbu zuzerikontrakoari.

APEZPIKUA.- Baduzu kopeta hola jaun gobernadoreari oldartzeko?

MATALAS.- Eta hark ez ote, gauaz, niri, bi jandarma igortzeko?

APEZPIKUA.- Ukanen dituzu laster gobernadorearen berriak.

MATALAS.- Ez ditu nor nahi mandatariak!

APEZPIKUA.- Errespetua zor dautazu niri.

MATALAS.- Errespetua zor diogu elgarri.

APEZPIKUA.- Apezak ez du behar politikan sartu.

MATALAS.- Lege bera da, izanik ere apezpiku.

APEZPIKUA.- Eman ta utzi Zesar-i berea!

MATALAS.- Xuberoa ez da Zesar-ena, baizik gurea.

APEZPIKUA.- Zesar-ek ohohintza egin badu, beretzat du makurra.

MATALAS.- Ez ote da hobendun ixilik dagon ate zakurra?

APEZPIKUA.- Jesusek erakutsi dauku jasaiten.

MATALAS.- Jesus gobernuko gizonak kurutzean hil zuten.

APEZPIKU.- Jesusek ez du erran, handiak behar direla mesprexatu.

MATALAS.- Jesusek erran du tipiak behar direla lehen zerbitzatu.

APEZPIKUA.- Obedituko nauzula duzu hitzemana.

MATALAS.- Gizon obedientzia ez da zakur herrestena.

APEZPIKUA.- Ez zira beldur Jainkoaren jujamenduaz?

MATALAS.- Hala ninteke, ez banu axolarik nere Xuberoaz.

APEZPIKUA.- Oldartzen zirenaz geroz, zure gain ondorioak.

MATALAS.- Badakit, Jauna, jada dituzula nere kartak joak.

APEZPIKUA.- Agur beraz, eta ikas-azu izaiten umil!

MATALAS.- Zure laguntzaile, Jaun Apezpikua, bainan ez zure esku-makil!

(Apezpikua jalitzen da. Matalas ixilik dago apur bat eta gero emeki)

Ainitzek badakite beren herriaz baliatzen,
Zenbaitek beren herria zerbitzatzen,
Arras gutik beren herriarentzat hiltzen.

OIHALA

HIRUGARREN EKITALDIA

TAULA GAINA: *Antzineko oihal bera. presondegiko mintza leku bat. Presoniera, burdin ziriz inguratu etxola baterat ekartzen dute, mintzatu behar delarik.*

OIHALA idekitzean, presondegiko zaindaria harat eta hunat-ka badabila, etxola kanpotik zaintzen duelarik.

HEGOBÜRÜ.- (*Agertzen maltzur*) zaindari! mintza leku hontarat ekar-azu presoniera.

ZAINDARI.- (*Badoa, eta apur baten buruan, Matalas ekartzen du, bi eskuak estekan, eta lotzen etxolako burdin ziri bati. gero jalitzen da.*)

HEGOBÜRÜ.- (*Herratsu*) Hor zirea, Jauntto? Ez dautzut erraiten “Jaun Apeza” ez “Jaun Erretora”. Egin duzunaren ondotik, ez baituzu holakorik merezi.

MATALAS.- Ez naiz titre gose. Kargua hor dut. Hura aski zait.

HEGOBÜRÜ.- Zer uste zinuten, gu garaitzea? Arkaitza lorios horrek denak preso hartu gintuen Nabarrenkosen eta handik Maulerat preso ekarri. Orduan burua harrorik zagon. geroztik apaldu baitzaio, bera preso sartzearekin. Bai eta apalduko ere gehiago, sarri, urka soka lepotik ezarriko diotelarik

MATALAS.- Pentsu dut kalbario horren lekuko izan nahiko duzula, zu ziren Pilatus-en soldadoak!

HEGOBÜRÜ.- Preseski! Eta, damurik ez baitiote beste hoinbeste eginen zure ilobari eta Olhaibiri, beste bi kontseilari usteleri! Beso gaitzak baitutuzte eta galeretan laguntza eskasa baitute, horrek diote burua salbatu. Bainan leku segurean izanen dira, sekulako galeretan: erakutsiko diote zer den Erregeren leialki zerbitzatzea.

MATALAS.- Eta ni sarri burua aizkoraz moztuko dautelarik, hor izanen ahal zira ere, aizkolariari esku kolpe baten emaiteko?

HEGOBÜRÜ.- Bai zuk ere buru hori harro zinuen, Mauleko jauregian sartu zinelarik jazarle guzien buruzagi! Han preso zirenak libratu zinituzten eta gu haien lekuan ezarri. Mintzatu zinen orduan populuari, erranez: “Beren burua goratuko dutenak izanen dira apalduak!” Egia zinuen.*(Irri gaizto batekin)* Bakarrik buruz zira tronpatu!. Orduan esku zartak jo zituen populuak zure erraneri. Berdin berdina joko ditu laster zure hil zeinuari.

MATALAS.- Zenbat ehun Xuberotarrek, zorigaitzaz ez dute egiten ahalko? Geroztik hil baitira.

HEGOBÜRÜ.- Ta noren faltaz hil dira?

MATALAS.- Galda hori zure nagusi, Frantziako errege xarmantari. Hark baitu igorri bere harmada Xuberotarren zafratzerat eta Xuberoko ontasunen suntsitzerat.

HEGOBÜRÜ.- Bai eta ere gure libratzerat. Parise urrun dela-ta, uste zinuten, hango gure adiskiduk laguntzarik gabe utziko ginduzte-la?

MATALAS.- Ai, segur, kargutan zirezten multzo tipi horrek, ondorio onik ekarri diozue gaixo gure herri honi, Parisek eman indarraz baliatuz! Xuberoa duzue desjabetu bizipidea errekaratu eta azkenik Xuberotarren odola ixurtzerat arrotzak hona deitu.

HEGOBÜRÜ.- Horiek oro ez ziren gertatuko, egon bazinete geldirik.

MATALAS.- Ohoinak etxean sartu-ta, zer ginuen, besoak kurutze egon behar, haieri so? Ala, zuek bezela, ohoineri erran, nahi zutena eramane zezaten? *(Haserre)* Hola mintzo den gizonak, gizon izena merezi ote du? Hola jokutzen den Xuberotarrak bere herria maite ote du?

HEGOBÜRÜ.- Zu bezain Xuberotarra naiz ni.

MATALAS.- Bai Judas ere Jondoni Petri bezain Judua zen bezela. Dirutan truk herriaren saltzale batzu; aintzinetik musu, gibeletik ostiko, horra zer zirezten, zu eta zure lagunak!

HEGOBÜRÜ.- Ez gira zure baimen eta erakaspenen beharretan gure herriaren maitatzeko.

MATALAS.- Maitasunik ez da sakrifiziorik gabe. Zein dira sakrifizioak Xuberoaren alde? Zer kargu duzu sakrifikatu? Zer diru galdu? Zer pairamen jasan? Xuberoko jendecaren larrutzaileri diozute esku eman eta Xuberoaren larrutzetik zirezte aberastu, dirutzaile maltzur ustelak, zuek!

HEGOBÜRÜ.- Ez du balio hola jar zaitezen oihuka! Ez zira prediku alkiari. Ez naiz zure predikuaren entzuterat etorria.

MATALAS.- Zertarat jina zira bada hona?

HEGOBÜRÜ.- Bestek manaturik naiz jina, ez ene baitarik: ea piska bat eztitu zinen, mantsotu, zentzatu, jakiteko.

MATALAS.- Zer duzue *ahulezia* bat ni ganik igurikatzen?

HEGOBÜRÜ.- Ahulezia aberatsa menturaz zuretzat, zure burua salba baitiezazuke.

MATALAS.- Ez gira Jauna, birika beraren jabe, gu biak: Neretzat, biziak ez du estimurik, bizitzeko arrazoinek emaiten diotena bai-zik. Nahiago dut miltetan hil nere sailetik baztertu edo nere saila ukatu baino!

HEGOBÜRÜ.- Hilan zaitugu beraz, hola nahi duzuncaz geroz. Nardatzale bat gutiago, bizirik gelditzen girenentzat!

MATALAS.- Ni hil-eta gero, ene itzala biziko da Xuberoan. Zu biziko zira, bainan bizirik hila izanen zira. Herioa jinen zure bila, zikin-ketariak zikinketa bezala. Euskaldun ume garbiek tu eginen diote zure itxurari. On dakizula holako geroa!

HEGOBÜRÜ.- Profeta bezala mintzo zira geroaz, bainan zure erranak ez ditutzu zeruak salatuak, zure sukar gaiztoak baizik. Biziak badu zer baiten mentura, bizigabeak aldiz ezdeusa segura. Iepoak traba egiten badautzu, Iepoa kenduko dautzugu. Zure xede horren betetzen laguntzea atsegin eta ohore daiteke neretzat (*Irri gaizto batekin jalitzen da.*)

(Zaindaria sartzen da, ahamen bat jaten ari dela.)

MATALAS.- *(Zaindariari mintzo)* Eta zuk, Zaindari, zer diozu gure auziaz?

ZAINDARI.- Ni, Jauna, ez naiz politikan sartzen. jenden arteko ordena zaintzea da nere ofizioa.

MATALAS.- Noren ordena?

ZAINDARI.- Manatzaleri dut obeditzen. Ez naiz manatzalen arteko guduketan sartzen. Nagusi denari naiz jarraikitzen.

MATALAS.- Duela zenbait egun, zuhaur zinen, guk hemen preso sartu erregetiarren zaintzaile. Orduan gure ordena zinuen zaintzen. Zein da egiazko ordena? Haiena ala gurea?

ZAINDARI.- Nik ez dakit. Zuen aldekoak zaindu ditut, zuek haien libratzerat jin artino. gero zaindu ditut zuen presonierak. Orai berriz zuek zaintzen zaituztet.

MATALAS.- Beraz, presondegi hontako burdin ziri hauek bezala zira. Edozeinen zaindari; ororentzat berdin hotz eta ezazol, izan dituen hobendun ala hobengabe. Uste duzu zure jokabidea gizon denari doakona dela?

ZAINDARI.- Gu bezalakoak tipiegi gira, gure baitakoari jarraikitzeke: Handien ganik dugu gure eguneko ogia eta horien erranari behar dugu, nahitez plegatu.

MATALAS.- Ta orai niri lepoa moztuko batautet aizkoraz, lan hori manatzen badautzute, berdin egingen duzu?

ZAINDARI.- Nik nagusia behar dut obeditu.

MATALAS.- Orai arte, hil duzu gizon kondenaturik?

ZAINDARI.- Nik... manatua beti egin dut.

MATALAS.- Eta etxerat itzultzen zirelarik, hemengo lan lazgarria eginik, barneak ez dautzu mintzen familiari zor diozun goxotasuna?

ZAINDARI.- Hemengo lana bat da eta familiako bizia beste bat: Hemengo gorabeherak hemen uzten ditut, kanporat jalitzean.

MATALAS.- Hurrek, burasoen ganik ikasten baitute nola bizi, zer erakaspen emaiten diozute zure haurreri?

ZAINDARI.- Nik beti erraiten diotedana da: ez diton handien arteko saltsetan sar, nahi badute bakean bizi. Egon diton ere beren mihiaren jabe, eta zangoa nun ezartzen duten, kasu eman dezaten. Funtsean oneski bizi ditezen. Oneski bizitzea, hori izan da beti gure etxeko legea: Beti Elizako urratseri jarraikiak izan gira. Gure ait'amak hala ziren, eta etsenplu bera eman diotet ene haurreri.

MATALAS.- Ez duzute uste gure biziak izan dezakela zimendu finko-agorik: Besten erranetik ari zira eta ez fedeak eskatzen daukun gure baitakotik. Politikaren aro aldakorra duzu izar gidari eta ez zure sinisteak eman argia.

ZAINDARI.- Nik deus ez dakit..."Euskaldun fededun" izan behar dugula, ikasi dut betidanik... (*Aterat buruz*) A! norbait bada atean! Nor da hor?... Aintzina!

GOBERNADORE.- (*Pergamino bat eskuan agertzen da*) Zaindari, erama-zu Matalas bere preso gelarat eta ez hona ager nik deitu arte! (*Biak badoatzi eta berritz ateari buruz itzultzen da gobernadorea*) sar zaite, sar, Calvo jauna! Bakarrrik gira hemen.

CALVO.- H kontseilariarekin mintzatu naiz: Hona igorria nuen ikus zezan zertan den Matalasen gogo. Uste dut -eta Jaun Apezpikuari ere hala iduritzen zaio- hobe ginukela Matalas ez hiltzea. Behar ginuke polliki bildu urrikitan sartzerat eta barkamendu galdatzerat. Jazarleek entzun lezakete beren buruzagiaren ahotik, enganatuak izan direla.

GOBERNADORE.- Matalasek barkamendu eskatu? Ongi ezagutzen dut gizona: aintzinetik erraiten dautzut ez dugula hori ardietsiko.

CALVO.- Bainan badakizu, Jaun Gobernadorea, nola kexu den jendea, azken gertakarien ondotik. Behar ginuke nolazpait populua jabaldu.

GOVERNADORE.- Adimen zorrotzegia du Matalasek, gure saretarat erortzeko. beste jokabiderik behar dugu hartu. Xuberoko buruzagiak munta ditzagun batzu besten kontra, xahu baigintezke, guziek bat egin balezate. Ez dezagun guk hil Matalas, bainan hemengo herri gizoneri galda diezotegun, hil behar den ala ez. Heriotzaren alde mintzatuko da segur. Bainan izanen dira ere kontrakoak. Guk askiko dugu bazterretik egohitea, gurea gogoan eta barnetik irriz, xoro horiek nola nahasten ditugun.

CALVO.- Ez da gaizki asmatua. Berehala eginen dut jaun horien biltzarra, berek delibera dezaten, Matalas hil behar dugun ala ez.

GOVERNADORE.- Gero, Matalastiarrak baitiote euskaldungoaren etsaiak girela, jendeari erakusteko ezetz, ez girela hortarik ari, fagora ditzagun pilota, dantza ta josteta. Zer zauku guri jendea abusa dadin bere gisara, moltsa ta bizipidea eskutan ditugunaz geroz? Ezin bentzutu baditugu oraino, askiko dugu bizipidea xuhurtzea. Bizitzekorik ez badu aurkitzen hemen, gazteak lekuak hustu beharko ditu. Ta gazteak urrunduz geroz, nahitez ahulduko da herria.

CALVO.- Bai eta nik uste, ahulduko degu ere eskolaren bidez: emeki emeki Xuberoari kenduko baitiogu bere mintzaira berezia, euskara ordainduz, frantsesaren bidez.

GOVERNADORE.- Ez daiteke egun baten lana izan hola gauzen aldatzea, bainan polliki polliki Pariseko Erregeren gizonak nagusitzeareki, ez ditugu ikusiko hona heldu zerga eske, baiian hemengo gizonak dute joan beharko Pariserat diru eske.

CALVO.- Ikusten dut errotik ikasia duzula eraman behar dugun bidea. Jakin-arazi diot hori gure Errege jaunari, eta ondoko eguncetan, Britainia alde hortan edo... Gobernadore kargu zerbait.... Bainan Oraingotz gure herri gizonen biltzarra egiterat noa. Anatartean atsegin nuke, zuk zure aldutik, azken aldikotz, matalas mintza bazineza!

GOVERNADORE.- Entsaiautuko naiz, Jauna!

CALVO.- Laster arte, beraz! (*Jalitzen da*).

GOVERNADORE.- Bai, laster arte!... (*Zaindariari oihuka*) Zaindari!

ZAINDARI.- (*Agertuz*) zerbitzari, Jaun Gobernadorea!

GOVERNADORE.- Ekar-azu otohi, hona Matalas!

ZAINDARI.- Ontsa da, Jauna! (*Ekartzen du Matalas, estekatzen eta badoa*)

GOVERNADORE.- Matalas Jauna, berri on batekin heldu naiz.

MATALAS.- (*Bere buruari*) Beraz neretzat berri txarra.

GOVERNADORE.- Egiak bere aitorra behar du: Norbait zira eta baduzu ainitz adiskide Xuberoan.

MATALAS.- (*Bere buruari*) Gatu horrek badik beste buztanik!

GOVERNADORE.- Ikusiz zure ahal handiak eta Xuberoari ahal horiek oraino ere ekar diezoketen laguntza, Calvo Jaunak eskaturik, heldu nitzazu antolamendu baten eskaintzerat.

MATALAS.- (*Hortzen artetik*) Antolamendu! ikusten haut heldu!

GOVERNADORE.- Ikusiz bestalde zure baitan daukazu kargu sakratua: apeztasuna eta Errege Jaunak Elizari dion atxikimendua...

MATALAS.- (*Solasa moztuz eta goratik*) Bakea, Jaun Gobernadorea, bakea! Otoi! zure tetelckeriekin. Errazu bi hitzez, erran gogo duzuna eta bakea niri!

GOVERNADORE.- (*Idorki*) Horra beraz: hauxe duzu hautua: edo aizkoraz sarri hil, edo barkamendua galdatuz zure burua salbatu.

MATALAS.- Zure nagusi handiari ihardutsiko diozu ene partez: Matalasekin nahi baldin badu antolamendu bat egin, itzul ditzala lehenik beren jabetari, ebatsi diozkatene lurrak. Bigarrenetik, bere basakeriez barkamendu eska diezotela Xuberotarrerari eta hitzeman ordainduko dituela, ahalaz, egin diozkatene kalte ikaragarriak. Hirugarrenetik, zu, Calvo eta beste Paristar manatariak joan zaitezteela manatzerat zuen lekuetarat, Xuberotarrak utziz beren buruen jaun eta jabe... Horiek onart ditzala zure Calvok, bere gizon eginbidea bateko du; Matalasek barkatuko dio eta bakea emanen.

GOVERNADORE.- Aski argitua naiz engoitik zure barneko berriez:
zure amets ederrekin uzten zaitut. Banoa Calvo-ri...

ZAINDARI.- (*Asaldaturik*) Jaun Gobernadorea, Apezpiku Jauna
hemen da; Matalasekin nahi luke solas egin!

GOVERNADORE.- Ontsa da... Nihaurek ar-araziko dut. (*Maltzurki*)
Pentsu dut ongi etorri hobea egingen diola apezak Jainkoaren
gizonari, ezenez-eta Erregeren ordainari.

MATALAS.- Egiaren atea zabalik dago hemen deneri. (*Jalitzen dira
herabe, gobernadorea eta zaindaria, Matalas bakarrik utziz*)
Judas, Burregoa, Pilatus eta orai, nor ote? Kaifas ote? Ez agian!

ZAINDARI.- Aintzina Jaun Apezpikua!

APEZPIKU.- Agur, Jaun Erretora!

MATALAS.- Nere errespetuak, Jaun Apezpikua!

APEZPIKU.- Eginahalak egiten ari naiz zure bizia salbatzeko, bainan
deus ez dezaket zure laguntza gabe.

MATALAS.- Ta zer laguntza igurikatzen duzu ni ganik?

APEZPIKU.- Frantziako Erregeari behar zinueke amor eman.

MATALAS.- Badakizu nik bezain ontsa Xuberoa josia izan dela
Frantziari duela berrogei-ta-hamar bat urte, ezkontza bidez.
Orduan Frantziako erregeak zin egin zuen Xuberoa utziko zuela,
aintzinean bezela, bere gain gobernatzerat. Geroztik ainitz aldiz
bere hitza jan du Frantziako erregeak. Azkenik oraino, bere
zorren tapatzeko, Xuberoa herri lurren saltzen hasi da, bereak
balitu bezala. Galdutzen dautzut, Jaun Apezpikua, nork du behar
amor eman? Nork hutsak ordaindu? Ohointza jasan duenak, ala
ohointza egin duenak?

APEZPIKU.- Elizako gorabeheretan, apezpikua da bere eskualdean
manatzale eta gaurko egunean hemengo apezpikua ni banaiz, niri
dagokit fededunen gidatzea. Ez edozein apezzi.

MATALAS.- Duela ehun urte, Jauna, hemengo apezpikuak izena zuen
Gérard Rousel. Nafarroako bere erreginari kausitzeko, protestant

bilakatu zen eta Xubero guzia protestant egin nahi izan zuen. Apezpiku horri oldartu ziren apezak gaizki egin ote zuten? Horietako zenbaitek bizia galdu zuten, bainan sakrifizio horri esker zuen menturaz Xuberoak katoliko fedea begiratu.

APEZPIKU.- Badira Xuberoan ideia guzietako fededunak. Elizak behar du ororen libertatea errespetatu; ez du eskualde baten alderdia hartu behar.

MATALAS.- Libertatea zor zaikunaz orori, zergatik ez diote Xuberotarrerri libertate horren hautua emaiten? Ni bai libertate horren alde altxatu naiz. Eta zu?

APEZPIKU.- Apezpiku batek behar du artaldea zuhurki gidatu eta batzutan landako bihi onaren gatik iraka gaiztoa jasan. Xuberoaren makurbidean ixilik egon nahiz ez alderdikieriaz, bainan kalte handiagoen beldurrez. Ez ote duzu uste gaurko egunean hobeki izanen zela herri hau, Erregeren salmentak onartu balitu?

MATALAS.- Ez dakik, Jauna, zenbat eztabadatu duzun zure baitan egina duzun hautua. Ikusten dutana da errege-bidea duzula hartu, ez kurutze-bide nekea; ez jende xeheak sakrifikatzen dizkiona. besterik ziren naski, Jesusen solasak eta urratsak.

APEZPIKU.- Denen aita den Jainkoak, denak jujatuko gaitu. Zuretzat otoitz egingen dut, Jaun Erretora!

MATALAS.- Nere odolaz azkar bedi eta garbi Xuberoan, zeruko erre-suma!

APEZPIKU.- (*Jalitzen da ilun*) Herrarik gabe, Jaun Erretora!

MATALAS.- Zeruian bezala lurrean ere, Jaun Apezpikua!

ZAINDARI.- (*Agertzen da eta ixilik eramaiten du Matalas.*)

HEGOBÜRÜ.- (*Zaintsu*) Eup! Non zira, zaindari?

ZAINDARI.- (*Agertzen*) Heldu, Jauna, heldu!

HEGOBÜRÜ.- Zure beharretan gira: Calvo Jaunak eman daut Matalas hiltzeko kargua.

ZAINDARI.- (*Beldurti*) Eta nohiz egingen duzu hori?

HEGOBÜRÜ.- O! Lehen-bai-lehen... Pentsatzen dut onartuko duzula mandil horri lepoa mozteko kargua.

ZAINDARI.- (*Buruari hazka*) Badakizu, Jauna, adina hor da..ta.... ez dut besoa lehen bezain fermu... ta..

HEGOBÜRÜ.- Errege Jaunaren nahia da, zu bezelako Euskaldun egiazko batek, lepoa motz diezoon Euskaldun izaitea zer den erakutsi behar omen zaukun apostolu horri. Ukanen duzu nahi duzuna edaterat eta behar dena pagatuko zaitut.

ZAINDARI.- Ez da hortan, Jauna, bainan nik ez dut ene burua lan horri lotzeko on kausitzen... Hor ditutzu Erregeren soldaduak. Hor aurkituko duzu behar duzun gizona.

HEGOBÜRÜ.- (*Umore txarrean*) Ontsa da! Joanen naiz horietarat. (*Jalitzen da*).

ZAINDARI.- (*Apur bat bakarrik, gogoetatua*) Norbait bada?... Aintzina!

PONPIDA.- (*Agertzean*) Agur, Zaindari!

ZAINDARI.- (*Kexu*) Emazteak hemen? Tenore hontan? Zer da hola-korik?

PONPIDA.- Andere Ponpida naiz: Hona Calvo ministroaren baimena hemen sartzeko eta Matalasekin mintzatzeko.

ZAINDARI.- (*Papera ikertuz*) A! hola! zu zira beraz Andere hura! Barka! Barka! Matalas ekartzen dautzut berehala. (*Jalitzen da eta Matalas ekartzen.*)

PONPIDA.- Agur Jaun Erretora! Ez nauzu beharbada ezagutzen: Andere Ponpida naiz.

MATALAS.- Zerk ekartzen zaitu hona, Anderea?

PONPIDA.- Betidanik, halako latz bat eman daut heriotzeari pentsatzeak, deneri bezala, nik uste. Jakin nahi nuen zertan zen zure gogoa, oren ilun honta.

MATALAS.- Zer naiz zuretzat, Anderea? Zirketako kabala ikusgarri bat?

PONPIDA.- Barka, otoi, jaun Apeza! Ez naiz jakingose ergelez etorria, bainan bihotza urrikalmenduz beterik.

MATALAS.- Urrikalmenduaren harria orok botatzen diotela, guduka galdu duenari bai badakit. Bainan zuri ere, Anderea, larru eder hori zimurtuko zaitzu noizbait. Orduan bazterrerat aurtikia izanen zira haur jostagailu hautsi bat bezela. Zure guduka galdurik geldituko zira, ni orai bezala, bakarrik, ororen urrikalgarri.

PONPIDA.- Jauna, ez naiz zuk uste duzuna. Eskualde hontara etorria nintzan zenbait egun goxo iragaiteko xedearrekin. Ez dut hemen aurkitu gerla eta odol ixurtze baizik. Eginahalak egin ditut joak diren guzien laguntzeko. Zu ere nahi zintzuket lagundu. Calvo jaunari galdatu diot zure biziaren grazia. barkatuko dautzula hitzeman daut, zuk barkamendu eskatzekotan. Horra, jauna... Iiitz bat aski dut zure ganik... Calvo gizon ona da.

MATALAS.- Calvo gizon ona!... bai gizon ona, deitzen duzu, bere emaztea Parisen, nigarrez urta utzi duen gizona!

PONPIDA.- Gure ahuleziak badiugu orok, Jauna! Aldaxka zenbait eihartuak dituen arbolak oso-oso surat botatzea merezi ote du?

MATALAS.- Egia duzu, Anderea, Calvo-ren zuzenkontrako amodio hori ez da bekatuxko bat baizik, bizpahiru presunentzat bakarrik baita kaltekor. Bainan miletan hobendunago da Calvo, kargodun bezela hemen egin dituen abrekeriez: Ehunka dira gaur, Xuberoan, Haren faltaz, alargunts eta umexurtiak, ehunka etxalde erre eta hondatuak.

PONPIDA.- Otoi, ixil zaite! Oro begietan ditut: horien aipatzeak berak bihotza lazten daut. Nahi nuke sarraski hau burura dadin behin betikotz!

HEGOBÜRÜ.- (*Bapatean sartuz*) Non zira, Zaindari? (*Ponpidari ohartzearekin*) A! Barkatu, Anderea! Solasean zinaden!

MATALAS.- Erraitekoak errantxe ditugu.

HEGOBÜRÜ.- (*Moztuz*) ez dautzut zuri deus galdatzen.

ZAINDARI.- (*H-ri buruz*) Jauna, badira atean bi emazte eta haur bat, Matalasekin mintzatu nahiz.

H.- Errozute ezetz. Badugula beste egitekorik. Sar-azu Matalas bere presogelan

MATALAS.- (*Ponpidari*) Galdatzen ahal dautzut fagore bat?

PONPIDA.- (*Hunkitua*) Zer, Jauna?

MATALAS.- Ate hortan den mutikoa nere iloba da, segur naiz. hor diren bi emaztekiak hobe ditut ez ikusi, bainan mutiko horri nahi nioke egin azken agur bat.

PONPIDA.- (*Jalitzen da.*)

ZAINDARI.- (*Kezkatua.*)

PONPIDA.- (*Agertzen da, benat eskutik eta baztertzen ixilik.*)

MATALAS.- Milesker, Anderea! Bihotz ona izan baituzu, Jainkoak ainitz barkatuko dautzu. Azken aldikotz, Benat, diaguk lur hortan elgar ikusten. Badakik nola den gure etxe gibelcan gaztain ondo zahar bat eroria. haren inguruan landare berri andana bat ari duk muskiltzen. Ni nauk gaztain ondo zaharra. Hi eta hire heinekoak zirezte muskil gazteak. Har-azue nere lekua. Baten orde, hamar altxa zaitezte!... Zuek, gazteak, ez egin so gaurko lanoari, bainan bai biharko izarrari!

HEGOBÜRÜ.- (*Sartzen da herratsu*) zer duzue hola egoiteko? Ala Matalasen itzala hemen geldituko dela uste duzue? (*Orroaz*) Zaindari, eraman-azu gizon hori!...

MATALAS.- (*Jalitzen, emeki mintzatuz*) Bai H, Matalasen itzala hemen geldituko dela uste duzue? (*Orroaz*) zaindari, eraman-azu gizon hori!...

(*Jalitzen dira, Zaindari, Matalas eta H. Ponpida bere xokoan dago. Benatek so egiten dio preso etxolaren burdin ziriari loturik gelditu den katenari. Berak eskutan hartzen du eta taulagain aintzinerat jinik, lurrerat aurtikitzen, hitzik erran gabe.*)

OIHALA

**PIARRES
LARZABALEN
IDAZLANAK
IV
MATALAS...**

PIARRES XARRITTON-ek paratua

1992

ELKAR

HIZTEGITXOA

Ahamen	<i>Ahokada</i>	Intziri	<i>Hasperen</i>
Aidura	<i>Indargabetu</i>	Izaka	<i>Ubidea</i>
Akidura	<i>Nekea</i>	Izpiritua	<i>Alkoholataguardientea</i>
Anartean	<i>Bitartean</i>	Jabaldu	<i>Lasaitu</i>
Arrabotsa	<i>Iskanbila/Zarata</i>	Jalitzen	<i>Ateratzen</i>
Arraila	<i>Mozkorti</i>	Jauzikorra	<i>Saltolari</i>
Arraildua	<i>Kolpatua/Plizatu</i>	Jorran	<i>Maxiatu/Jorratu</i>
Arrangura	<i>Ikara/Kezka</i>	Kabalen	<i>Eixe-aberea</i>
Barda	<i>Bart</i>	Kadira	<i>Besaulkia/Aulkia</i>
Barranda	<i>Espiatu</i>	Kandola	<i>Bide bazterra</i>
Baxera	<i>Ontziteria</i>	Kariaz	<i>Hori dela eta...</i>
Bipila	<i>Ausarta/Ernea</i>	Larderia	<i>Autoritatea</i>
Bisaia	<i>Aurpegia</i>	Mandil	<i>Gaizkile</i>
Bizkitartean	<i>Bitartean</i>	Marroak	<i>Aharia</i>
Botiga	<i>Balio gutxiko gauza</i>	Nardatua	<i>Nahigabetua/Nazkatua</i>
Ebatsi	<i>Lapurta</i>	Ohoi	<i>Lapurra</i>
Elkortzen	<i>Gortzen</i>	Oren	<i>Erlojua</i>
Errienta	<i>Irakaslea (Gizonezkoa)</i>	Pentza	<i>Zelaia</i>
Filda	<i>Itura txarra daukana</i>	Porrozkatu	<i>Txikitu</i>
Futxu	<i>Harridurazko interjezioa</i>	Potreta	<i>Erretratua</i>
Gantzatu	<i>Gizendu</i>	Sorjes	<i>Makur/Higuin</i>
Giblean	<i>Atzean</i>	Trenkatu	<i>Ebaki/Erabaki</i>
Hazka	<i>Harraskatu</i>	Tronpatu	<i>Huts-egin</i>
Herratsu	<i>Gorrotoa eduki</i>	Trufatu	<i>Burla-egin</i>
Herrestena	<i>Pertsona tristeenetan tristena</i>	Txantre	<i>Eleiz-kantaria</i>
Idor	<i>Lehor</i>		
Ihardestu	<i>Erantzun</i>		





E U S K A L A N T Z E R K I T O P A K E T A K

A Z P E I T I A

ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAIEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON.
• ANASTASIO ALBISU.
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA.
• ARKOTXA ANAIAK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGI.
"GARBIÑE"
• EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN.
Maria Arizmendi/Janamari Malhariau/Miren Arrizabalaga.
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984).
Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933).
Antzerkiak: Laño ta Izar.
Bi aizpak.
Ezkondur ezin ziteken mutilla.
- 1997 • PIARRES LARZABAL CARRERE.
OROITUZ.
• AITA JOSE ANCHIETA
(S.J.) Dohatsua.